



BERRIKUNTZA LABORATEGIA, ETORKIZUNeko "ERRONKA KONPLEXUEI" ERANTZUTEKO

Arantzazulab aurkeztu dute Gandiaga Topagunean, erakunde publikoetako, hezkuntzako, ekonomiako eta gizarte erakundeetako kideen aurrean / 4

Naiara Goia, Arantzazulabeko zuzendaria, atzo, Gandiaga Topagunean egindako aurkezpen ekitaldian.

ANDER GILLENEA



Haritz Gallastegi eta Rafa Mungia, Euskadi Irratiko esatariak. XABIER URZELAI

Errege Kopako finala aztertu dute bi kazetari debagoiendarrek / 38

Bergarako EAJren bozeramaileak kargua utzi du, "arrazoi pertsonalak" tarteko direla / 24



Pandemiaren itzalpean, lehen leerroan lanean

Zalao Ipiña artistari elkarrizketa

Gehienez ere, 26 autokarabana egon ahalko dira Arantzazuko aparkalekuan / 30

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



SINADURAK

	IÑAKI ETXEBESTE / 10		ALAZNE GURIDI / 31
	ANE ZUZUBISKAR / 15		AINZANE OIARBIDE / 48


ASTE SANTUA

Honako egunetan jasoko dituzue hurrengo aldizkakiak:
GOIENA: apirilaren 16an.
'Puntua': martxoaren 31n.

Ondo izan!


Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Neurri murriztaileak zorrozteko aukera aztertuko du gaur LABIk

Sagardui Osasun sailburuak esan du datuen bilakaera "hazkunde fasean" dagoela. Eskualdeko intzidentzia-tasak behera egiten jarraitu du azken astean, nahiz eta azken bi egunetan zertxobait gora egin duen. Bestetik, 93 positibo berri izan dira

Maialen Santos ARRASATE
Iñigo Urkullu lehendakariak atzo iragarri zuen COVID-19aren aurkako neurri murriztaileak "zorrozteko" aukera aztertzen ari dela: tartean, gune itxien ordutegiak murriztea eta udal-errien edo lurraldeen arabera konfinamendu perimetralak berriro ezartzea, koronabirusaren intzidentziak goranzko joerari eusten badio. Hala, Euskadiko Plan Zibilarren Aholku Batzordea (LABI) gaur arratsaldean batuko da, datozen egunetarako neurriak zehazteko.

Eguaztenean egindako Lurralde arteko Osasun Kontseiluan ez zuten Aste Santura begirako neurri berririk adostu, nahiz eta komunikabideetan hedatu zen Osasun Ministerioak etxeratze agindua 20:00etara aurreratzea proposatu ziela erkidegoei.

Edozelan ere, Ministerioak ez du erabakia erkidegoen esku utzi; beraz, ezingo da aurreratu. Gotzone Sagardui Osasun sailburuak asteon ohartarazi du bilakaera epidemiologikoa "hazkunde fasean" dagoela, eta aurreikusitako datuen egunetan intzidentzia tasak "igoera moderatua" izango duela. Ildo horretatik, mugikortasuna ahal bezain beste murrizteko dei egin die herritarrei.

TXERTAKETA-PLANA ASTRAZENECA TXERTOAK JARTZEARI EKIN DIOTE BERRIRO ASTE HONETAN

Joan den astean egindako prebentziozko etenaldiaren ostean, eguazten honetan ekin diote

berriro ere AstraZenecaren txertoa jartzeari Hego Euskal Herrian. Sendagaien Europako Agentziaren (EMA) gomendioei jarraituta hartu zuten erabakia astelehenean Lurralde arteko Osasun Kontseiluan; izan ere, txerto hori "eraginkorra eta segurua" dela ondorioztatu zuen agentziak, baita bere onurak "kalteak baino gehiago" direla ere. Hori bakarrik ez: txertoaren erabilera 55 urtetik 65era arte zabalduko dutela iragarri zuen Gotzone Sagardui.

Gauzak horrela, joan den astetako hitzordua zutenak eta etenaldiaren eraginez txertoa hartu gabe geratu zirenak izango dira txertoa hartzen lehenak: unibertsitatez kanpoko hezkuntza-esparruko profesionalak, hain zuzen ere. Joan den astean deitu gabe geratu ziren kolek-

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	43	30	2.550	115,48
Bergara	20	33	1.325	88,12
Oñati	10	7	929	81,01
Aretxabaleta	4	10	587	82,91
Antzuola	1	9	201	92,24
Eskoriatza	0	3	297	72,39
Aramaio	0	1	138	93,24
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
GUZTIRA	78	93	6.086	93,91

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

tiboei ere emango diete txertoa: besteak beste, aireportuetako suhiltzaileei, portuetako langileei, bidaiarien garraio publiko profesionaleri eta arrantzaleei. Azkenik, AstraZenecaren txertoaren lehen dosia dagoeneko hartu duten kolektiboaren barruan, 55 eta 65 urte artean dituztenak ere badira txertoa laster hartuko dutenen zerrendan; alegia, Ertzaintza, udaltzaingoa, suhiltzaileak eta osasun arloko eta esparru soziosanitarioko langileak.


POSITIBO KASUAK DAGOENEN 6.000 DEBAGOIENDAR BAINO GEHIAGO KUTSATU DITU BIRUSAK

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 78 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak, aurreko astean baino 15 gutxiago -93 izan ziren-. Hori horrela, dagoeneko 6.086 herritarrek hartu dute birusa, eta, ildo horretatik, aipatzekoa da martxo-



Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



ren 17an 6.000 kutsatuen langa gainditu zela eskualdean, urtarilaren 29an 5.000 kutsatu erregistratu zirenetik 47 egun pasata. Hain justu, denbora tarte antzekoa behar izan zen bailaran 4.000 kutsatuetatik 5.000ra igarotzeko: 52 egun. Birusa, baina, azkarrago hedatu zen lehen hilabeteetan: 39 egun behar izan ziren 2.000 kutsatuetatik 4.000ra igarotzeko, urriaren 31tik abenduaren 8ra.

Herrika, azken zazpi egunetan Arrasatek izan ditu positibo berri gehien (43), eta Bergarak jarraitu dio herri horri (20). Lau herritan ez da kutsaturik izan: Eskoriatzan, Aramaion, Elgetan eta Leintz Gatzagan.

Horretaz gain, aipatzekoa da atzo bailarako herri guztiek zutela intzidentzia-tasa 500etik behera, Antzuolako eguaztanean jaitsi baitzen. Semaforoaren sistemari jarraiki, laranja zeuden Bergara eta Arrasate, eta horiz Oñati eta Aretxabaleta.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, hiru pertsona zeuden atzo birusak jota ingratsuta.

INTZIDENTZIA-TASAREN BILAKAERA GIPUZKOAREN ETA BIZKAIAREN GAINETIK DAGO ESKUALDEKO INTZIDENTZIA-TASA

Azken bi egunetan gora egin du zertxobait Debagoieneko azken hamalau egunetako 100.000 biz-

tanleko intzidentzia-tasak, baina, oro har, azken astean behera egiten jarraitu du, eta atzo, 263,85koa erregistratu zuen. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako (220,97) eta Bizkaiko (235,15) tasaz gaindi dago eskualdekoa, baina Arabakoaren (304,66) azpitik. Horren harira, aipatzekoa da azken lurralde horretako tasak martxoaren 21ean, domekan, gainditu zuela Debagoienekoa, eta, bestetik, Gipuzkoarekiko eta Arabarekiko aldeak murriztu egin dira. Nafarroako intzidentzia-tasak gainontzekoen azpitik jarraitzen zuen atzo (191). Gauzak horrela, muturreko arrisku mailaren gainetik, 250etik gora, daude Debagoiena eta Araba.

OSTALARIAK, PROTESTAN LANALDIA LUZATU DIEZAIETELA ESKATU DUTE GIPUZKOAKO OSTALARIEK

Eguaztanean Beasainen egindako agerraldian salatu zuten azken urtean etengabeko sufri-mendua, jasanezinezko galera ekonomikoak eta neke handia pairatzen ari direla, eta baldintza horietan urtebete eman ondoren ostalaritza sektoreak gutxieneko lan baldintzak berreskuratzeko garaia iritsi dela, "diru sarrera gehiago lortzeko eta jendea lanpostuetan mantendu ahal izateko helburuarekin". Arrazoi horregatik, lanal-

dia luzatzeko eskaera egin zieten agintariei: "Gure negozioak gauerdira arte irekita egotea eskatzen dugu, modu horretan jatetxeek afariak eskaini ahal izateko. Gaueko tabernek ordu-tegi murriztuarekin bada ere lan egiteko aukera izan dezaten".

LAGUNTZA EKONOMIKOAK TOKIKO TURISMOA BULTZATZEKO 30.000 BONU KALERATUKO DITU JAURLARITZAK

On egin kanpaina aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak, turismoaren sektoreari laguntzeko. Zehazki, produktuen erosketetan gastatutako 100 euroko, 50 euroko deskontua lortu ahal izango dute erabiltzaileek, turismoaren sektorean erabiltzeko.

Honako hauek izango dira bonuetan sartuko diren produktuak, besteak beste: txakolina, ardoa, Idiazabalgo gazta, Euskal Sagardoa, Basque Beer, Euskadiko Ekoizpen Ekologikoa eta Eusko Label produktuak. Lehenengo eta behin, ekimenean parte hartu nahi duten saltokiek eta ostatuek webgunean eman ahaliko dute izena, maiatzaren 22ra arte. Kontsumitzaileei dagokionez, gutxienez 100 euroko gastua egin beharko dute establezimenduetan. Apirilaren 19tik aurrera egin ahaliko dira erosketak, eta bonuak baliatzeko epea ekainaren 1ean hasiko da.



Miren Basaras mikrobiologoa, EHU. 'AIKOR' ALDIZKARIA

"Ikusten ari gara gero eta gazte gehiago iristen direla ospitalera"

MIREN BASARAS MIKROBIOLOGOA

Txertaketa-plana aurrera eramatea "ezinbestekoa" da

M.S. ARRASATE

Azken egunetan datuek okerre-ara egin dute EAEn, eta ospitalizazioek eta ZIUetako okupazioak kezkatzen dute Basaras.

Nola dago egoera?

Azken asteetan positibo kasuak gora ari dira egiten, eta horrek kezka sortzen du. Ospitalizazio eta ZIUetako okupazio maila igotzen ari da, eta datuak dira Gabonetan geneuzkan parekoak. Esango nuke udazkenean hasi zen bigarren olatu hura ez dela amaitu; uhin epidemiologiko ezberdinak izan ditu.

Birusaren zein aldaera dago gure artean?

Aldaera britaniarra ari da nagusitzen: lau kutsatutatik hiruk dute. Eta aldaera hori besteak baino kutsakorragoa da; baina ez dakigu hilgarriagoa ote den. Jende gazteago lehen ere kutsatzen zen, baina orain ikusten duguna da gehiago iristen direla ospitaleetara eta baita ZIUetara ere; alegia, ospitalizazioa aldatzen ari da.

Aldaketarik ezean, Aste Santuan EAE barruan mugitu ahaliko da...

Mugimendua izan daiteke arazo bat, baina garrantzitsuena da nola mugitzen garen. Mendira edo hondartzara joatea ondo dago; pilaketak dira saihestu beharrekoak, eta baita leku itxiak eta gaizki aireztatuak ere.

AstraZenecaren txertaketari ekin diote berriro, etenaren ostean...

Segurua eta eraginkorra da, guztiz. Arazoak daudenean aztertu egiten dira, baina ez hori

bakarrik; une oro egiten zaie txertoei jarraipena. Garrantzitsuena zera da: ematen duten onurak arriskuak baino askoz gehiago direla. Beraz, lasaitasun mezua zabaldu behar dugu. Adin tartea ere 55 urtetik 65era zabaldu da, tarte horretan ere eraginkorra dela frogatu delako. Txertoak udara begira jarri ditu zenbait...

Uda lasaia izateko behar dugu txertaketa-plana aurrera joatea eta jende askoz gehiago txertatuta egotea, eta hori une honetan ez da betetzen. Biztanleriaren %70 edo %80tik gora txertatuta egongo balitz, lasaitasunari buruz hitz egin genezake, baina une honetan ezin dugu.

Ziurtagiri Digital Berdea izeneko agiria ezarri gura dute, bidaiatzeko...

Europako Batasunak ezarri gura du, bermatzeko agiria duen pertsona segurua dela: txertatuta dagoela, PCR negatiboa duela edo antigorputzak dituela. Arazo da txertoa jartzeak ez duela esan nahi guztiz babestuta zaudenik, eta ez dakigu beste norbait kutsatu ote dezakeen -aztertzeke dago hori-. Immunizazioak zenbat irauten duen ere ez dakigu. Beraz, ziurtagiriak segurtasun faltsua eskaini dezake.

"SEGURTASUN FALTSUA EMAN DEZAKE BIDAIATZEKO ZIURTAGIRI DIGITAL BERDEAK"



Juan Ignazio Larrea, Izaro Elorza, Iñigo Ucin, Markel Olano, Ander Aizpurua, Naiara Goia eta Joxe Mari Arregi. ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA

Burua aurkeztu dio munduari Arantzazulab berrikuntza laborategiak

Gandiaga Topagune berrituko ekitaldiarekin inauguratu zuten atzo Arantzazulab. Laborategiaren baitan dauden instituzioetako eta eragileetako ordezkariak zabala egon zen bertan, eta mundu zabalari begira daudela argi utzi zuten aurkezpenean

Xabi Gorostidi OÑATI

Garai berrietako erronkei modu berritzailean erantzuteko asmoz jaio da Arantzazulab gizarte berrikuntza laborategia, eta modu berritzaileak erabiliz aurkeztu dio bere burua gizarteari ere. Arantzazuko Gandiaga Topagune berritua puntako teknologiez hornitu dute, eta horiek baliatuta egin zuten laborategiaren aurkezpena, atzo goizeko ekitaldian: ikus-entzunezkoen proiektioekin, nazioarteko zuzeneko konexioekin eta, nola ez, proiektu hau babesten duten askotariko erakundeen eta eragileen presentziarekin.

Oñatiko alkate Izaro Elorzak, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok eta laborategiko zuzendari Naiara Goiak hitza hartu zuten aurkezpenean, eta laborategiarekin lotura duten eragileetako ia 50 lagun egon ziren ekitaldia bertatik bertara

jarraitzen. Arantzazu Gaur Fundazioko kideek –Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Mondragon Korporazioa, Kutxa Fundazioa eta Arantzazuko Frantziskotar Probintzia– bultzatu dute laborategiaren sorrera, eta horiek ordezkatzeko aritu ziren, besteak beste, Gipuzkoako diputatu nagusiorde Eider Mendoza, Joxe Mari Arregi frantziskotarra, Kutxa Fundazioko zuzendari Ander Aizpurua eta Mondragon Korporazioko lehendakari Iñigo Uzin.

Laborategiko Aholku Batzordean arituko diren eragileetako ordezkariak zabala izan zen bertan. Horien artean, EHUren Gipuzkoako Campuseko errektoreorde Agustin Erkizia, Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateko dekan Nagore Ipiña eta Deustuko Unibertsitateko Estrategia errektoreorde Eduardo Ruiz.

Eta bestelako aurpegi ezagun batzuk ere izan ziren ekitaldian, hala nola Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohia –Agirre Lehendakaria Center ordezkatzeko– eta Miriam Urkia euskaltzaina.

Aulki solte ez osaturiko borobil formako ilaretan jarrita eta dagokion segurtasun distantziarekin jarraitu zuten ekitaldia gonbidatuek.

Arantzazuri "erantzun integrala"

Oñatiko alkate Izaro Elorzak hasi zuen aurkezpena, eta laborategiaren sorrerak Arantzazun "aldaketa sakona" ekarriko duela azpimarratu zuen: "Egia esan, hemen aldaketa sakon bat egin da; transformazio bat. Gizarte berrikuntzarako laborategia sortzeaz gain, Arantzazu bera eta bertan dauden azpiegitura baliabideak modu integralean ulertzea, kudeatzea eta erantzutea ekarriko du. Finean, Aran-



Markel Olano eta Juan Jose Ibarretxe.



Australiako Matt Ryan ikerlariarekin zuzeneko konexioa egiten aurkezpenean.

tzazuk dituen baliabide eta aukera zabal horiek sinergiak baliatu ahalko dituzte, eta hori herriari bueltan etorriko zaio. Alegia, balio erantsia ekarriko duen esperientzia bateratzailea izango da".

"Arantzazu, amets kabi"

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano "pozik" azaldu zen, Arantzazuren maitale dela onartu eta gero. Salbatore Mitxelena santutegiari egindako kantu bati erreferentzia eginez hasi zuen hitz hartzea –*Zuk zer duzu, Arantzazu? Ameskabi, otoizleku*–, eta "bereziki pozik" azaldu zen Arantzazuk amesleku izaten jarraituko duelako, eta laborategiak "Arantzazu biziberritzeko" oinarria jarriko duelako.

Arantzazuk Gipuzkoako gizartean eta, oro har, euskal gizartean izan duen garrantzia azpimarratu zuen. "Pandemiak azaleratu duen moduan, arazo eta desafio konplexuei komunitate gisa aurre egitea eskatzen du egungo munduak. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte eta ekonomia ehun sendoa, erakunde eta eragile sare indartsu eta dinamiko batekin, eta, batez ere, herritar ahaldu eta parte-hartzaile osatutako gizarte batekin".

Alde horretatik, laborategi berriak "bereziko ekarpena" egingo duela adierazi zuen: "Herri gisa dugun ezaugarrietako bat, gizarte aktibatu eta berdinzale hori, berritzen eta

saretzen jarraitzeko tresna izango da. Arantzazuk betitik oinarri izan duen humanismo horretatik, izaera herrikoi horretatik egin ere".

Laborategia gizarte berrikuntzara dedikatuko denez gero, Euskal Herriak eta, nagusiki Gipuzkoak, duten "nortasun konprometitua" helburu hori lortzen lagunduko dutela azpimarratu zuen, hainbat adibide jarritz: "Soilik Gipuzkoako hirugarren sektorean 20.000 lagun ari dira boluntario gisa gizarte politiketako elkarrekin; euskal mugimendu kooperatiboa hor dago, euskalgintza, ikastolen mugimendua... Hor badaukagu aktibo bat funtsezkoa dena".

Erronka konplexuei erantzuna

Olanoren ondoren, laborategiko zuzendari Naiara Goiak hartu zuen hitza, eta, pausoz pauso, laborategiaren helburuak, bisioa, lan egiteko moduak eta sinergiak

NAZIOARTEKO ZUZENKO KONEXIOAK ETA HAINBAT BIDEO ERABILI ZITUZTEN AURKEZPENAN

LANA, TRANTSIZIO EKOLOGIKOA, ONGIZATEA ETA ELKARBIZITZA AZTERTUKO DITUZTE



Naiara Goia, aurkezpenaren une baten.



Izaro Elorza Oñatiko alkatea.



Gonbidatuak Markel Olanoren hitz hartzea jarraitzen.

azaldu zituen. "Arantzazuren izaera berritzailearekin eta eraldatzailearekin bat eginik, eta Arantzazuko tradizio humanista zein balioak aintzat hartuta, euskal gizarteari baliozko ekarpena egiten jarraitzeko erantzukizuna du Arantzazulabek", adierazi zuen.

"Erronka konplexuek erantzun konplexuak eskatzen dituztenez, etengabeko ikasketa aktiboa sustatuko dugu. Entzunez eta ideiak sortuz, ezagutza bereganatuz, esperimentatuz, sareak sortuz, nazioartera irekia izanik, eta ezagutza hori guztia sozializatuz", gehitu zuen, eta hori guztia lortzeko lau ardatz estrategiko izango dituztela azaldu zuen: Garapen komunitarioa; Saretzea eta elkarlana; Ikerketa, formakuntza eta sozializazioa; Irekiera eta Nazioartekotzea.

Laborategia 2020ko uztailean hasi zen lanean, eta ordutik egindako lehen urratsen artean inguruko udalekin egindako bilerak aipatu zituen. Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernanzarako eta gizarte berrikuntzarako erreferentziazko gune izendatu du Arantzazulab, eta zera esan zuen Goiak horri buruz: "Berme bat da guretzat, eta hauspoa ematen digu lanean hasteko eta lanean sakontzeko".

Hiru unibertsitateen "mugarria" Ikerketa arloan pisu handia izango dute laborategiko Aholku Batzordeko kide diren erakundeek, eta Goiak mugarriztat jo zuen Euskal Herriko hiru

unibertsitateak elkarlanean ari-tuko direla bertan. "Ez dugu elkarren arteko lehian oinarritutako ikerketa bat nahi, elkarlanean egindakoa baizik". Ikerketa arloan egin nahi dutena azaltzeko, hiru unibertsitate horietako arduradunen bideo-hitzaldiak erabili zituzten aurkezpenean.

Ildo beretik mintzatu zen Agustín Erkizia, EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea. "Arantzazu euskal unibertsitateen arteko elkarlana sustatzeko aparteko tokia da, bere baitan barneratzen dituelako funtsezkoak eta oinarritzekoak diren baldintzak: euskara eta euskal kulturarekin lotzen dugun indar sinbolikoa da, pentsamendu ireki eta eraikitzaile baten erreferentzia da, eta betidanik gizarteak gizarte bezala dituen erro-kei aurre egiteko aparteko begirada argia eta garbia eskaini izan du".

LABORATEGIA OSATZEN DUTEN ERAGILEEN 50 LAGUN INGURU EGON ZIREN GONBIDATU GISA

PILATUTAKO JAKINTZA HERRITARREKIN PARTEKATZEA IZANGO DU HELBURU LABORATEGIAK

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekan Nagore Ipiñak laborategiaren ikerketaren balio erantsia aipatu zuen. "Arantzazulabek egingo den ikerketak balio erantsia du: sortzen den ezagutza hori gizarteari helaraztea. Egingo dena herrira bueltatzea eta herrian txertatzea".

Deustuko Unibertsitateko errektoreorde Xabier Riezu-ek zera adierazi zuen: "Ondo pentsatuta, transferentzia proiektu ideala da herrian txertatuak gauden erakundeontzat ezagutza hain baliagarri dena berriz ere gizartearen esku uzten duelako, eta, gainera, eraldaketarako gaitasun berrituarekin".

Nazioarteko konexioak

Mundu mailan antzerako zereginetan dabiltzan erakundeekin saretzeko bokazioa dutela azaldu zuen Goiak, eta hori ondo islatuta geratu zen aurkezpen zehar.

Modu ikusgarri eta berritzailean zuzeneko bi konexio egin zituzten: Australiara bata eta Parisera bestea. Lehenean, Matt Ryanek hitz egin zuen, New Yorkeko Unibertsitateko The Governance Lab-eko ikerlari seniorrak. Bigarren, aldiz, Claudia Chwalisz-ek, OCDE erakundeak herritarren parte-hartze prozesu berritzaileei buruz egiten duen lanaren buru dena. Biek ala biek Arantzazulabekin kooperatzeko gogoz daudela azaldu zuten.

NAGORE IPIÑA

MU-KO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO DEKANOA

"Lehen aldiz aritu gara hiru unibertsitateak proiektu bati hastapenetik heltzen"

"Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateok elkarlanean jardungo dugu, eta lehen aldia da hirurok batera aritu garela proiektu baten hasiera-hasieratik elkarrekin lanean. Alde horretatik, balio erantsi handia du Arantzazulabek. Bereziki, ikerketa arloan jokatu dugu rol nagusia unibertsitateok; ikerketa identifikatzen eta begirada ezberdinak gurutzatzen. Hala, orain arte egin ez den ikerketa mota bat egingo dugu. Arantzazun kokatuta egon arren, Euskal Herrira begira dagoen topagune izateko bokazioa izango du. Gipuzkoan jaio den zerbait izan arren, hemen ikertuko denak Euskal Herrirako balioko du, gizartegintzan eta herrigintzan pauso bat eman nahi dugulako".

JOXE MARI ARREGI
FRANTZISKOTARRA

"Laborategia tresna ederra da gure ikuspegi humanista hedatzen jarraitzeko"

"Gure asmoa da Arantzazuk betidanik izan duen izaera humanista horri jarraipena ematea, eta laborategia tresna eder eta dotorea izango da gizarte gizatiarrago eta justuagoa lortzen jarraitzeko. Gu, frantziskotarrok, gutxituta eta zahartuta gaude, baina laborategiak izango du gaitasuna gizartearen erro-kei erantzuteko modu humanista horrekin. Itxaropen handiarekin hasi gara, eta ikusteko gogoz gaude ze ibilbide izan dezakeen. Elkarbizitzan sakontzeko ere balioko duela uste dugu. Guk beti egin dugu horren alde; bestea anaia gisa ikustearen alde egin dugu, ez etsai gisa. Arantzazukoa izatea eskatzen diogu laborategiari, eta ziur gaude hemengo balioei jarraipena emango diola".

ELENA
ERRARTE
D2030EKO
KOORDINATZAILEA

"Garai oparo batetik gatoz, baina erronka konplexuei egin beharko diegu aurre"

"Kontziente izan behar dugu une historiko batean gaudela, batez ere, aldaketa handiak etorriko direlako. Eta aldaketa horiei erantzuteko, herritarrek, erakundeak eta erdian dauden eragileak dira gizarte baten potentzialtasunik handiena. Hala, beharrezkoa da konexio horiek zaintzea eta horiek hobetzeko proposamen berriak eraikitzea. Azkenaldian, komunitate pertzepzio hori ahuldu egin da, eta, gauzak aldatzea nahi badugu, beharrezkoa da hori sendotzea. Garai oparo batetik gatoz, eta erronka oso konplexuei egin beharko diegu aurre; beraz, alde horretatik, elkarguneak aktibatzea funtsezkoa da erronka horiei komunitate gisa eta askotariko begiradekin erantzuteko".

IZARO ELORZA
OÑATIKO ALKATEA

"Euskal Herri osoarentzat balioko dute hemen egingo diren esperimentazioek"

"Arantzazu Gaur fundazioa sortu zenean, Arantzazuko ondarea zaintzea eta balioan jartzea izan ziren helburu nagusiak. Edozelan ere, garai berriak datoz orain, eta, hala, hori guztia egokitu beharrean gaude; horren harira, ziur nago laborategi berri honekin erronka horiek guztiak aurrera aterako ditugula. Gizarte justuagoa, kohesionatuagoa, iraunkorrago eta gizatiarragoa edukitzea du helburu laborategiak, eta hori guztia, hain zuzen, herritarrekin lankidetzan egitea lortu nahi du. Euskal gizartearentzat gune erreferentziala izateko asmoz sortu da, baina ez soilik Gipuzkoarentzako; bertako esperimentazioak Gipuzkoako mugetatik haratago ere aprobetxatzekoak izango dira".



Gandiaga Topagunea, Arantzazulaben egoitza, kanpoaldetik ikusita. ANDER GILLENEA



Arantzazulabeko lantaldeko kide bi, bulegoan. IBAI ZABALA

Arantzazuk jakintzaren erreferentziazko topagune izaten jarrai dezan

Euskal Herriaren etorkizuneko "erronka konplexuei modu komunitarioan eta gizatiarrean erantzuteko" bokazioz sortu da Arantzazulab. Hori lortzeko, herritarren parte-hartzea, ikerketa eta esperimentazioa izango dira laborategiaren lanabesak

Xabi Gorostidi OÑATI

"Gizarte justuagoa, kohesiona- tuagoa, lehiakorragoa eta giza- tiarragoa lortzeko Arantzazu erreferentziazko berrikuntza topagune bihurtzea" da Arantzazulab-en xedea; betiere, herritarren ahaldunduz eta inplikaturik. Gizartearekin lotutako behar horiek gori-gorian dauden unean dator laborategiaren sorrera. Alde batetik, egoera sozioekonomiko berezia. Etengabe eta ziztu bizian aldatzen ari den gizarte batean era honetako laborategi baten beharra nabaria izan daiteke, eta horri mundu mailako pandemia batek utzitako egoera zaila gehituz gero, are nabariagoa. Bestalde, Arantzazulab-aren egoera ere hor dago. Hainbat mendetan Arantzazulab-aren zaindari izan eta gero, frantziarrek ez daude unerik goxoenean. Hogei kide inguru daude orain, adindunak gehienak, eta belaunaldi berriek lekukoa hartzeko zailtasun handiak dituzte. Hala, osagai horiekin guztiekin, une estrategikoan dator Arantzazulab-aren eraketa.

Partaideak eta sorrera

Arantzazulab-aren geroari buruzko gogoeta partekatua egin ondoren, pisu handiko honako partaide hauek erabaki zuten Arantzazulab sortzea: Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko Udala, Mondragon Korporazioa, Kutxa Fundazioa eta Arantzazuko Frantziar Probintzia: "Egitasmoak bat egiten du historian zehar Arantzazulab izan duen izaera herrikoi eta berritzailearekin. Euskal Herri mailako artearen, musikaren, literaturaren, arkitekturaren, euskararen, tradizio humanistaren, erlijioaren eta espiritualtasunaren gune eraldatzaile eta berritzaile izan da Arantzazulab. Beti izan da abangoardia, eta hala izaten jarraitzea nahi dugu", diote sortzaileek.

Unibertsitateen elkarlana

Baina aipatutako partaideez gain, besteak beste, Euskal Herriko hiru unibertsitateek parte hartuko dute laborategiaren Aholku Batzordean, eta "orain arte sekula izan ez den mugarri bat" dela dio Naiara Goiak, la-

borategiaren zuzendariak. "Ikerketarako topagune bat izan nahi dugu, eta, horretarako, elkarlanean oinarritutako ikerketa baten aldeko apustua da gurea. Gure lurraldeko hiru unibertsitateek elkarlanean parte hartu dute laborategiaren diseinuan: Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. Mugarriz har daitekeen gertaera da, eta egun, laborategiaren

Aholku Batzordean ez ezik, Arantzazulabek sustaturiko ikerketarako kooperazio espazioan ere eragile aktibo dira. Ezagutza sortzeko elkargune izan nahi dugu, ikerketan lehiatuz baino gehiago, indarrak batuz eta kolaborazio espazioak sortuz", azpimarratu du Goiak.

Hiru unibertsitate horiez gain, Eusko Ikaskuntza, Telesforo Monzon eLab, Agirre Lehendakaria Center eta Arantzazuko Adiskideak erakundeak ere izango dira Aholku Batzordeko partaideak.

Molde berrien beharra

Etorkizunean euskal gizarteak izango dituen erronka nagusiei erantzuteko molde berriak behar direla argi ikusi dute hasieratik laborategiko partaideek. "Bizi dugun eraldaketa sakoneko garaian, herri bezala ditugun gizarte erronkei aurre egin behar diegu. Eta erronka horiei modu berritzailean eta ikuspegi berriarekin erantzuna emateko sortu da Arantzazulab: herritarrek eta erakundeak ahaldunduz

eta eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatuz".

Argi dute etorkizuneko erronkei erantzuteko orduan "gutxi" erreparatzen zaiola "giza faktoreari", eta hor eragitea izango da zereginetako bat: "Gizartea eraldatzeko beharra entzuten dugu sarri, baina hori lortzeko, lehenik eta behin, gizakiok eta norbanakook aldatu behar dugu. Erronka berri horiei aurre egiteko, ezagutza berriak barnerratu behar ditugu, balio berriak ere bai, eta baita gure artean harremanetarako modu berriak ere. Norbanakoen trebakuntza hori funtsezkoa izango da, eta Arantzazulab horretarako espazio bat izango da", dio Goiak.

Lau ardatz estrategiko

Elkarbizitzan, ongizatean, lan arloan, klima aldaketan eta halako gaietan gizarte lehiakorrago eta justuagoa lortzeko egingo dute lan, eta horretarako lau ardatz estrategiko definitu ditu laborategiak. Garapen komunitarioa da horietan lehen: "Euskal gizartearen beharrezan ulertuz, herritarren inplikaziotik heldu nahi diegu gizarte erronkei, eragile ezberdinen arteko elkarlanetik abiatuta. Eta horretarako, herritarrei entzuteko, deliberaziorako, partaidetza prozesuetarako eta, oro har, komunitatea ahaldunduzko, joera eta tresna berrien inguruko ikerketa, esplorazioa eta esperimentazioa egingo dugu".

Sareatzea eta elkarlana da bigarrena. "Gure herriko erakundeekin, elkarrekin, gizarte eragileekin, politika eta herri-ekimenekin lan egingo dugu, testuinguru berrietara egokitzen laguntzeko eta lan egiteko modu

Arantzazutik nazioartera

"Arantzazutik mundura, eta mundutik Arantzazura". Filosofia horrekin jaio da Arantzazulab, eta jada hasi dituzte harremanak mundu mailako beste erakunde batzuekin. Gobernantzaren esparruan, adibidez, eragile hauekin hasi dituzte hasierako harremanak: The Governance Lab; Advanced Consortium on Cooperation, Conflict and Complexity – Earth Institute, Columbia University; eta Observatory of Public Sector Innovation, OCDE. Herrigintzan eta parte hartzearen esparruan, besteak beste, Australiako hiru erakunde hauekin: CQ University Australia; The Australian Centre for Social Innovation (TACSI); eta The Yunus Centre, Griffith University. Beste esparru batzuetarako, Heilderberg University, Trier University eta VID Oslo University erakundeekin.



Naiara Goia, aurkezpenak egiteko pantaila baten aurrean.

berrietara eramateko. Elkarren arteko osagarritasunetik abiatuta, egiten dugun horrek eragin handiagoa izan dezan".

Hirugarrena irekiera eta nazioartekotzea da: "Arantzazutik, mundura begira, gizarte erronkei aurre egiteko lan egiten dugu. Eta, horretarako, ezinbestekoa da nazioarteko eragile erreferenteekin lankidetzaren sareak jostea, esperientzia aurreratuetatik ezagutza hartzea eta eragin ahalmenak batzea. Eta aitzindariak garen horretan gure herria posizionatzea ere nahi dugu".

Laugarren ardatza, aldiz, ikerketa, formakuntza eta sozializazioa izango dira: "Ikerketa eta ezagutza dira Arantzazulaben oinarrietako bat. Etorkizuneko erronkei aurre hartzeko eta eraldaketa sustatzeko, ezinbestekoa da ikerketa berritzaileak, ausartak eta sendoak garatzea, eta, horretarako, hain zuzen, kooperazio espazio berritzaileak sortuko dugu".

Jarduera zehatzak

2020ko uztailean hasi zen laborategia lehen urratsak egiten,

"GOBERNANTZA KOLABORATIBOA SUSTATUKO DUGU"

"ERREFERENTZIAZKO BERRIKUNTZA NODO IZAN NAHI DUGU"

"MOLDE BERRIAK BEHAR DIRA ERRONKA BERRIENTZAKO"

NAIARA GOIA, ZUZENDARIA

eta une honetan zazpi lagun ari dira bertan lanean. "Era honetako esparru abstraktu eta ezukigarri bati buruz ari garenean, kostatzen da irudikatzea zein izango den bertatik irtengo den emaitza edo produktua. Deliberazio eta partaidetza prozesuak garatuko ditugu, eta horietan, bereizgarri gisa, ikuspegi eta tresna berriak txertatu eta haiekin esperimentatuko dugu. Formakuntza programak eta heziketa-guneak jarriko ditugu abian, baita esperimentazioan oinarritutako proiektuak ere. Bertan batutako jakintza gizar-teari helarazteko, hitzaldiak, ikastaroak eta jardunaldiak antolatuko ditugu. Herritarrek, gazteak, adinekoak, iritzi liderrak, ekintzaileak, ikerlariak, erakundeak, gizarte eragileak, frantziskotarrak aktibatuko ditu Arantzazulabek.

Gandiaga eraberritua

Arantzazuk biziko duen "aro berriak espazio berri bat behar" zuela ulertu zuten hasieratik, eta Gandiaga Topagunean hainbat aldaketa egin dituzte.

Aldaketa horren adibiderik garbiena Oteiza auditoriumean ikus daiteke: "Erabateko aldaketa egin dugu gune horretan. Espazioa handitu dugu, eta espazio zuri eta neutro bat egin dugu bertan. Arantzazulabek gain, bestelako bezero batzuek erabiltzeko gune bat da: jardunaldiak egiteko, formakuntzetarako... bakoitzaren beharretara moldatzeko gaitasuna izango du aurrerantzean. Espazio multifuntzionala izango da, eta munduarekin konektatzeko punta-puntako baliabide teknologikoak izango dituena".

"Ezin da ulertu euskal izaera Arantzazurik gabe"

MARKEL OLANO GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Gipuzkoako Foru Aldundia Arantzazulab-eko zuzendaritza batzordean arituko da, eta argi du laborategiak lagunduko duela Gipuzkoaren "izaera komunitarioa indartzen"

Xabi Gorostidi OÑATI

Laborategia lehen urratsak egiten hasi da, eta Olano konbentzituratuta dago horren beharraz. **Gero eta gizarte individualistagoan bizi garela kontuan hartuta, ez da erronka makala Arantzazulab-ek aurretik duena...**

Pandemiak berak horixe azaleratu du. Batetik, komunitate bezala zume sendoak ditugula Gipuzkoan, erakundeekin elkarlanean diharduen gizarte sare dinamikoarekin aurre egiten ari gara krisialdiari. Baina, bestetik, jarrera individualistek ere gero eta indar handiagoa dute gurean ere. Horregatik da hain garrantzitsua, berrikuntza sozialaren bidetik, komunitate izaera hori garatu eta berritzea. Arantzazulab-ek ekarpen garrantzitsua egingo du helburu hori lortze aldera.

Askotan aipatzen da gehiengo isila, eta Arantzazulab-ek horiengan du fokua jarrita. Zer izango da funtsezko horiek aktibatze eta parte hartzerak erakartzeko orduan?

Arantzazuk betidanik izan du halako erakarpen indar bat jende anitzendako. Frantziskotarren izaera herrikoiak eta humanistak horretan zerikusirik handia izan du. Nire ustez, balio horiek, benetakotasun horrek, oinarri sendoa eskaintzen diote Arantzazulab-i askotariko herritarren partaidetza aktiboak lortzeko. **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etor-kizuna eraikiz programaren baitan sortu da Arantzazulab. Zein funtzio beteko du Aldundiak laborategi barruan?**

Etor-kizuna eraikiz-en bitartez ahalegin sendoa egiten ari gara, 2016tik hona, gure lana herritarrengana gerturatzeko eta gizar-tearen parte-hartze aktiboak sustatzeko. Askotariko eragilean lankidetzaren gauzatzeko erreferentzia-guneak sortu ditugu, hainbat alorretan. Berrikuntza sozialean Arantzazulab izango da erreferentzia-gunea; ez baka-



Markel Olano, Arantzazulab-en aurkezpeneara, atzo. ANDER GILLENENA

"POLITIKARIEN ETA HERRITARREN ARTEKO DISTANTZIA LABURTZEN LAGUNDUKO DU LABORATEGIAK"

rrik Gipuzkoarako, Euskal Herri osorako baizik.

Politikarien eta herritarren arteko distantzia handitzen doan honetan, Arantzazulab-ek zelan lagundu dezake?

Hemen abian jartzen diren ikerketa eta dinamiketan erakundeok, euskal unibertsitateek eta ekonomia zein gizarte eragile anitzek hartuko dugu parte. Lankidetzarako jarrera zintzoa eta benetakoa izateak, behetik gorakoa izateak, lagundu dezake, zalantzarik gabe, distantzia hori laburtzeko.

Elkarbizitza, ongizatea, lan arloa eta klima aldaketa dira Arantzazulab-ek jorratu nahi dituen lan-ildoetako batzuk. Zein erronka nagusi ditu Gipuzkoak hor?

Herri gisa ditugun desafio nagusietako lau dira horiek, du darik gabe. Elkarbizitzan, kultura demokratiko sendoa sus-

traitzeak behar du izan helburua, hainbat hamarkadatan bizi izan dugun biolentzia egoeraren ondoren. Ongizateari dagokionez, gizarte kohesioari eutsi behar diogu, Gipuzkoa izan dadin Europar gizarte desberdintasun gutxien duen lurraldeetako bat. Lan arloan, gaurko eta etorkizuneko belaunaldiak lanpostu duinak, eta kalitatezko enplegua, bermatu behar dizkiegu. Amaitzeko, klima aldaketaren alorrean, ekonomia deskarbonizaturantzko jauzia egin behar dugu; betiere, gure ahalmen industriari eutsiz eta ekonomia zirkularrak zabaltzen dituen aukerak baliatuz.

Arantzazuk beti izan da jakintzaren gotorleku. Apustu honekin hala izaten jarraitzea duzue helburu?

Gotorleku baino gehiago, bilgune eta faro izan dela esango nuke. Arantzazuk, beti herriari zabalik, beti abangoardian, beti justizia sozialean oinarrituz, asko eman dio Euskal Herriari gai askotan. Ezin da ulertu egungo euskal izaera, gizarte, kultura, hizkuntza, Arantzazurik gabe. Hori horrela izaten jarraitu nahi genuke, etenik gabeko berrikuntzetatik abiatuz.

Omenaldia egingo diete 36ko gerrako 50 umeri

Intxorta 1937 Kultur Elkartek eta Debagoieneko zenbait udalek antolatuta, apirilaren 23an eta 24an, iaz jaso ezin izan zuten aitortza ofiziala jasoko dute, herriz herri, 1936an erbestera ihes egin behar izan zuten 84 eta 97 urte arteko debagoiendarrek

Hasier Larrea DEBAGOIENA

1936ko irailean, Espainian gerra piztu eta bi hilabetera, 4.500 debagoiendarrek baino gehiagok egin zuten alde Euskal Herriatik; horietatik, gutxienez 473 erbesteratu adin txikikoak, hau da, 0 eta 16 urte artekoak zirela ondorioztatu du Intxorta 1937 Kultur Elkartek, azken urteetan eginiko ikerketak medio. Herriz herriko zenbaketa ere egin dute historialariek, eta Arrasatekoak 282, Bergarakoak 104, Aretxabaletakoak 33, Oñatikoak 28, Elgetakoak 2, Eskoriatzakoak 16 eta Antzuolakoak 8 zirela ondorioztatu dute.

Horietako 50 lagun bizirik daude eta bailaran bizi dira, gazteenek 84 urte eta zaharrenek 97 urte dituzte. "Guztiak jasan zuten erbeste tragiko hau haurrak zirela, eta horregatik merezi dute omenaldi duina", adierazi du Nerea Villak, Intxorta 1937ko kideak, asteon Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egindako prentsaurrekoan.

Iazkoa, bertan behera

Urteak daramatza memoria historikoa lantzen duen kultur elkarteak gerrako oinazeak jasan dituzten pertsonak omentzen, eta aurtengoa egiteko gogotsu daude, programaturako ekitaldi



Intxorta 1937koak, Iraitz Lazkano Elgetako alkatea eta Ane Bilbao zinegotzia. H.L.

guztiak atzeratzea eragin zuen eta pandemiak iaz. Gainera, urtebetean zazpi gerrako ume hil dira Debagoiengan.


Testuinguru horretan, ekitaldiak herriz herri eta hasieran pentsatu baino formatu txikiagoan egingo dituzte: "Asmoa bailaran bizi diren gerrako ume guztiei omenaldi bateratua egitea zen, baina COVID-19agatik zatikatu egin behar izan ditugu hitzorduak; modu horretan, segurtasun neurriak bermatuko ditugu", adierazi du Iraitz Lazkanok, Elgetako alkateak.

Hala, bergararrek jasoko dute aitortza ofiziala lehenbizi. Seminarixoan izango da hori, apirilaren 23an, 12:00etan. Egun berean, baina arratsaldeko seietan, egingo diete omenaldia arrasatearrei, Kulturateko klaustroan. Hurrengo eguneko 12:00etan hasiko dira Aretxabaletako Zariaia aretoko, Oñatiko osoko bilkuren aretoko eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko ekitaldiak. Salbuespen modura, Antzuolako gerrako umeek Elgetan egingo zaie aitortza, bi herrietan "gerrako ume gutxi" daudelako.

Juan Ramon Garai, aztarnen atzetik

Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan zen Intxorta 1937ko historialari Juan Ramon Garai asteartean. Gerrako umeen ikerketak nola hasi zituzten gogoratu zuen: "Gudarien omenaldi batean hurbildu zitzaizkigun Jose Lopez eta Eulogio Diez, ea eurei aitortza noiz egingo genien galdezka". Arrasatearrak gerrako umeen joan-etorriak ere izan zituen hizpide: "Bitxia da Errusiara joan zirenen kasua; hasieran, heroizat hartu zituzten, baina, bi urteren buruan, II. Mundu Gerra iritsi, eta 17 urte zituztenak gerran borrokatzaera joan ziren".

Salamanca artxibategietan arakatuko dutela aurreratu zuen Garaik, baita Gipuzkoako Foru Aldundiarekin tratua egin dutela ere: "Debagoiengan egiten ari garena Gipuzkoa mailan ere egingo dugu, gerrako umeen ikerketa egin gabe baitago probintzian".



Juan Ramon Garai. GOIENA

Pertsona bakoitzak istorio bat

Gerrako ume gehienak Kataluniara, Frantziara, Txilera, Belgikara, Ingalaterrara, Argentinara eta Errusiara bidali zituzten gurasoek; batzuk sorterrira itzuli ziren gerora eta beste batzuk, ez. Itzuli zirenen artean, bat baino gehiago sentitu zen tokiz kanpo, gizartean jazotako aldaketak tarteko. Ondorioz, Euskal Herriatik alde egin zuten berriro, eta ez ziren itzuli.

Historialariek badakite zenbait izen ez direla datu-baseetan ageri, eta horregatik egin diote eskaera gizarteari. "Ziurrenik, identifikatuta ez dauzkagun gerrako ume gehiago egongo dira oraindik bizirik, eta izena eta aurpegia jarri nahi diegu", aipatu du Nerea Villak. Halakorik ezagutuz gero, intxorta1937@gmail.com posta elektronikora idaztea eskatu dute.

Egia eta justizia eske

Elgetako alkateak Intxorta 1937 Kultur Elkartearrekin urtez urte memoria historikoaren lanketan eta hainbat ekitaldiren antolaketan egindako elkarlanari balioa eman nahi izan dio, bi lerro desberdinez: "Batetik, egia azaleratzen gabiltza lanean, eta, bestetik, justizia eskatzen; egia esan, urte asko daramatzagu justizia erdietsi gabe". Omenaldietako protagonistek ere aitortu dute "ordua dela" merezi duten aitortza jasotzeko. Pandemiak ez du, oraingoan, gerrako umeen aitortza galaraziko.

GERRAKO UMEEK AITORTZA JASOTZEKO "ORDUA DELA" DIOTE, IAZKO OMENALDIK ATZERATU ZIRELA ETA

Aberri Egunean "denok batera kantuan egitera" deitu dute

Euskal Herria Batera herri ekimenak apirilaren 4an, 12:30ean, hiru euskal kanta abestea proposatu du

H.L. DEBAGOIENA

2020ko Aberri Eguna balkoietan irudikatu zen, eta aurten, Euskal Herria Batera ekimeneko kideek plazetan elkartza gonbidatu dituzte herritarrek, *Keinu bat batera* lelopean eta "se-

gurtasun neurriak zorrotz betez". 12:30ean, irratiaren, tokiko telebisten eta sare sozialen bitartez ikus-entzunezko seinale bat emitituko dela aurreratu dute: "Musika protagonista izanik, kantuz elkartu gaitezen".

Momentu horretan plazetan *Gernikako arbola*, *Txoria txori* eta *Ikusi mendizaleak* kanta abestea da aurtengo proposamena, nahiz eta "Euskal Herria batzen duen edozein kanta" balio duen.

Gainera, Euskal Herriko 44 lagunek sinatutako adierazpena eta aurkezpen bideo bat argitaratu dute. Apirilaren 4an leiho eta balkoiak ikurrinaz eta nafar ikurrez apaintzeko dei ere egin dute; www.aberrieguna2021.eus en erosi daitezke.



Iazko Aberri Eguneko argazki bat. GOIENA

Manifestazioa egin zuen atzo IKAS Ikasle Autodefentsa Sareak

Ikasle langileon batasunaz, autoritarismoari kaña lelopean, Bergarako Espaloia kalean hasita egin zuten kale agerraldia, eguen goizean, bailarako zenbait ikaslek. "Ikasketa prozesua kudeatzeko autonomia, ikasleria subjektu politiko gisa aitortua izatea eta kontrol sozialerako baliabide errepresibo oro bertan behera uztea" eskatu zuten.

SPRI taldeak ETEentzako laguntzak aurkeztu ditu

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko arduradunek prentsaurrekoa egin dute Garaia Parke Teknologikoan, 2021ean Enpresa Txiki eta Ertainek eskatu ahalko dituzten dirulaguntzen xehetasunen berri emateko

Hasier Larrea DEBAGOIENA

"Pandemia ahalik eta egoera onenean kudeatzeko eta etorkizunari begira posizio onean egoteko" asmoz, ETEei zuzendutako 2021eko dirulaguntzak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzako SPRI taldeak. Momentuz 433 milioi euro bideratuko dituzten arren, beste 10 milioi gehitzeko asmoa dutela iragarri dute. Aitor Urzelai SPRIko zuzendari orokorra azaldu du "aurten enpresa eta langileei zerbitzua emateko baliabide eta esfortzuetan buru-belarri" jardun dutela, eta, "zailtasunak zailtasun, denon esfortzuarri esker poliki-poliki euskal gizartea aurrera" doala gaineratu.



Aitor Urzelai, SPRIko zuzendari orokorra, Garaia Parke Teknologikoan. GARAIA PT

Laguntzak, atalez atal

Berrikuntza arloan, industria garapenean, eraldaketa digitalean, nazioartekotzean, ekonomia zirkularrean eta ingurumenean eta trantsizio energetikoan diharduten enpresek eskatu ahalko dituzte laguntza horiek.

Josu Ocariz berrikuntza arloko arduradunak bi adarretan bereizi du bere eskumeneko saila: "Alde batetik, *Innobideak* izenekoa dago; eta, bestetik, *Hazinnova*". Lehen horretara 3,3 milioi euro bideratu dituzte, eta hiru ataletan banatuta dago: *Lehiabide*, *Pertsonak* eta *Kudeabide*. Produktuan, prozesuan, merkatuan eta antolakuntzan berritzeko eta negozio-eredu berriak garatzeko proiektuak aurkez daitezke *Innobideak Lehiabide*-ra, eta euskal enpresak tamainaz handitzea du helburu. *Innobideak Pertsonak* bilatzen duena, aldiz, langileen enpresa-ko parte hartzea bultzatzea da. Kudeaketa aurreratuko metodologia, tresna eta printzipioak ezartzera dator, azkenik, *Innobideak Kudeabide* programa. *Hazinnova*-ri dagokionez, 2,4 milioi euro banatuko dituzte bertan, eta produktu, prozesu,

ENPRESEK SPRI TALDEAREN WEBGUNEAN EGIN DEZAKETE ESKAERA DAGOENEKO

marketin eta antolakuntza arloetan berrikuntzak dakartzaten mikroproiektuak dituzten ETEentzat dago pentsatuta.

Industria garapenari helduz, Mikel Amundarainek aipatu du partidarik handiena eskainiko duena *Gauzatu* programa izango dela, 28 milioi euroekin. *Bilakatu* egitasmoan 11 milioi euro inbertituko dituzte, *Renove industria 4.0-n* eta *Bideratu*-n 5 milioi, *Bateratu*-n 3 milioi eta *Lortu*-n milioi bat.

Eraldaketa digitalean ere sei arlotan ezarriko dituzte laguntzak: Inteligentzia Artifizial Aplikatu, Enpresentzako Banda Zabal Ultra-azkarrean, *Basque Industri 4.0-n*, Industria Digitalean eta Zibersegurtasun Industrialean. Orotara, 10,5 milioi euro banatuko dituzte sail horretan, Javi Mujika arduradunak zehaztu duenez.

Euskal enpresen nazioartekotzea sustatzeko baliabideak "deialdi guztietan" areagotuko dituztela ziurtatu du Iñaki Ezkurrak. Hala, *Gauzatu Internazionala* programara 5 milioi euro joango dira, *Zabaldura*-ra 3 milioi, *Sakondura*-ra 800.000, *Elkartura*-ra 900.000, *Pilotura*-ra 400.000, *BEINT* beketara 5 milioi eta *Global Training* mugikortasun beketara 6,2 milioi.

Trantsizio energetikoaren adarra, bestalde, zazpi programatan ardatzuko da: itsas energiak, eraikinen energia berregokitzea, *MOVES II* plana, mugikortasun eta garraio efizientea, biomasaren probetxu energetikorako instalakuntza, probetxu geotermikorako instalakuntza eta autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien instalakuntza. Beste bi linea irekitzeko asmoa ere azaldu dute.

Ander Elgorriaga ekonomia zirkular eta ingurumeneko arduradunak, azkenik, sei milioi euroko laguntzak iragarri ditu arlo horietan.

Deialdi gehienak irailean eta urrian amaituko diren arren, lehenbailehen izena ematea gomendatu dute agerraldian.



Bittor Oroz, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan. GOIENA

Gomiztegiko eskolaren eta bonuen berri eman du Orozek

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea 'Harira' saioan izan da asteon

H.L. DEBAGOIENA

Azken urteetan artzaintzaren sektoreak izan duen bilakaera goraiatu du Bittor Orozek: "Idiazabalgo gaztak, nagusiki, eman dio prestigioa lanbide honi, eta, zorionez, dozena bat gazte inguru espezializatzen dira urtero, eskoletatik pasa ostean". Gomiztegiko Artzain Eskola kanpotarrentzat "deigarria" dela ere nabarmendu du sailburuordeak, eta Espainian halakorik ez dagoela gehitu du: "Horregatik etortzen da kanpoko jende asko Arantzazura ikastera, nahiz eta gehienak euskaldunak izan".

Artzain izan nahi dutenen artean bi motibazio bereizi ditu Orozek: "Gehienei, familiatik datorkie ohitura, baserri giroan hazitakoak dira eta formakuntza berezia jaso dute txikitatik; beste batzuk, berriz, lurrari eta naturari lotuta bizi nahi duten pertsonak dira, gizarte eragile-

kin lotura estua daukatenak". EAEn 200 ardi baino gehiagoko 250 artalde inguru daudela esan du, gainera.

Bonu kanpaina

Aste honetan Lakuako Gobernuak aurkeztutako *On egin* kanpaina ere izan du hizpide Orozek. Saltzaile eta saltoki txikiengan pentsatutako 30.000 bonu kale-ratuko dituzte: "Gureari lehen-tasuna emateko". Merkatariek eska ditzakete jadanik, eta apirilaren 19tik aurrera jarriko dituzte dendetan eskuragai. Tokiko produktuen 100 euroko erosketa bakoitzeko ekainetik aurrera EAEko hotel eta landetxe sarean gastatzeko 50 euro oparitzean datza kanpaina.



Bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Aita Menniko greba "arrakastatsua" izan dela adierazi du ELAK

Osasun zentroko langileek egun bateko greba egin zuten atzo, eta kalera atera ziren Arrasaten, "enpresaren planteamendu atzerakoiei erantzun kolektibo irmoa emateko". Hala ere, ELAK salatu du Aita Mennik Gipuzkoan dituen zentro askotan %100eko zerbitzu minimoak ezarri zirela egunean zehar, "langile askoren greba eskubidea urratu" zela.

Zuzendaritzak iaz norbere babeserako ekipamenduan izandako gainkostua langileei leporatu nahi izana salatu zuten langileek. Horren harira, atzokoa "erantzun eredugarria" izan zela esan du ELAK. Urtebetean Aita Menniren diru sarrerak %7 igo direla eta 2016a ezkerro enpresak 10 milioi euroko inbertsioak egin dituela-eta sindikatuak ez du ulertzen langileen baldintzetan "oraindik" hobekuntzak egin ez izana, eta inbertsio hori egitea "ezinbestekotzat" jo dute.



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

'Ixixa pun'

Etxeko diktadore txikietan *handienak* horrela esaten du zerbait edo norbait erortzeaz egon denean: *ixixa pun*. Aitortu beharra dut iturri desberdinetan murgildu ondoren, eta nire sorpresarako, ondo esanda omen dagoen esaldia dela; ez dago gaizki 2 urteko *kaka-ume* batentzat!

Kontua da jendarteari buruz erreflexio bat egitera bultzatzen nauela aldiro. Zenbat aldiz izan gara *ixixa pun* horretan? Bukaezina da zerrenda: gatazka armatu, krisi ekonomiko, larrialdi klimatiko, hilobiz betetako hondartza, *tontostero*na biktima... Ez al gaude beti *ixixa pun*?

Kontua da ideia kate horretan ondorio batera ere heltzen naizela, eta ez dakit nola esan, baina esango nuke ez naizela puntu horretara heldu den lehena, ezta azkena ere. Ea ondo azaltzen dudan.

Euskaltzaindiaren arabera, *pun* eztanda baten edo kolpe baten hotsaren onomatopeia omen da. Hala, *pun* egiten du deseraikitze prozesuan dagoen zerbaitek kolpe desberdinak jasotzean. Erortzen den zati bakoitzak egiten du *pun*.

NOSKI, HEMEN KONTUA DA AMILDEGI HORREN ERTZEAN GAUDEN JAKITUN IZAN BEHAR DUGULA

... eta erortzean berriro jaikiz.

Eta orduan, *ixixa ixixa* ibili beharreen, zergatik ez dugu nahita *pun* egiten? Eta hor azaleratzen zait ondorioz kuriozoena. Bene-benetan uste dudana da *ixixa* horretan kateatuta gaudela, adrenalina horrek egiten digula *pun*, bai eta engantxatu ere. Amildegi ertzetik ibiltzeak, noizean behin *pun*, noizean behin *ixixa*. Noski, hemen kontua da amildegi horren ertzean gauden jakitun izan behar dugula, *pun* horren beldurrak sortutako zirrara sentitzeko. Eta aipatu bezala, ez dago amildegi bakar bat.

Aspaldian ikusi ez dudan umorista baten txiste bat izango balitz bezala hartzen dut kontua: ...*esto es pa'l@s niñ@s*. Jendarteak burutzen dituen ekintzen oinordeko izango baitira gaur egungo umeak. Txiste txar baten umorez ere bai: negar egin aurretik, nork ez du barre egiten erori ostean *pun* egiterakoan?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Aldaerak

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/YI6AP
'BERRIA'-EN ARGITARATUA

Astindu handia hartu dugu joandako hilabeteotan.

Pentsatzekoa da etorkizunean eragina izango duela pandemiak.

Gure bizikeran, pentsaeran, jokamoldeetan... eta baita hizkuntzan ere.

Hizkuntzan, gehien irauten dutenak, definizioz, esaera zaharrak dira.

Beti berdin eusten diote denboraren joanari.

Esaera zaharrak ere kolokan jartzen badira,

astindua guk uste baino handiagoa izan den seinale izango da.

Esaera zahar batzuk ongi baino hobeto egokitzen dira pandemia garaietara ere.

Amen. Zu hor eta ni hemen elkarren arteko distantziari eutsi beharra azaltzeko;

Osasuna: munduko ondasuna krisi global hau deskribatzeko;

Dagoenean bon bon eta ez dagoenean egon txertoaren zain dagoenaren egoera islatzeko...

Beste esaera zahar batzuk aldatu egin beharko dira aurrerantzean.

Non gogoa, han zangoa ez dela beti hala izaten ikasi dugu;

Kalean uso, etxean otso-ren bigarren zatia baino ez da salbatzen;

Telelanean ari denak *Etxetik babak ateratzen* ari dela esan beharko du, eltzeak eltze;

Ahuntzaren gauerdiko eztula esatea gaizki ikusia egongo da eta puzkerrak-edo ordezkatu beharko du eztula;

Eta, mugikortasun murrizketak direla eta, *Gezurra esan nuen atzo Getarian, ni baino lehenago zen isuna atarian* esango da akaso mende batzuk barru.

Auskalo!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Etorkizuneko euskaldunak etorkinen umeak izango dira"

GORKA MORENO SOZIOLOGIAN DOKTOREA ETA IKERTZAILEA

Maialen Santos ARRASATE

Gorka Moreno Soziologian doktorea (EHU) eta Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikertzaileak hitzaldia egin zuen eguaztenean Arrasaten. Euskarari eta immigrazioari buruz aritu zen, batik bat.

Zer izan zenuen berbagai?

Euskal gizarteak euskarari eta immigrazioari buruz duen iritzia mahai gainean jarri nuen; alegia, euskaldunak ez dituzte etorkinak euskararen arerio gisa ikusten. Jarrera nahiko baikorra dute.

Zein da errealitatea?

Euskararen eta immigrazioaren mundua geografikoki eta sozialki elkarren artean oso urruti daude. Etorkin gehien dauden tokietan, oro har, euskara gutxi erabiltzen da, eta alderantziz. Lehenengo ideia hori da; gure egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar da ulertzeko zein izan daitekeen euskararen garapena etorkinen inguruan.



Gorka Moreno, Soziologian doktorea. G.M.

Euskararen aldean gaztelera nabarmentzen da, hortaz...

Argi dago egoera diglosikoa gaudela. Etorkin batek hizkuntza bat ikasi behar badu, argi dago herri gehienetan gaztelera joko

duela. Gainera, aipatzekoa da EAEko etorkinetako asko latinoamerikarrak direla, eta, beraz, dagoeneko badakite gaztelania. Hori horrela, euskalduntzeko testuinguru ez da aproposena, hasteko.

Non uztartzen dira euskara eta immigrazioa?

Eskolan, zalantzarik gabe. Eta etorkinen bigarren belaunaldian jarri behar dira indarrak; etorkinen seme-alabengan eragin, alegia. Izan ere, eurak izango dira euskara ikasiko dutenak.

Zergatik bigarren belaunaldian?

Etorkinek eurek ez dutelako euskara ikasten, ahalegin horrek emaitza antzuak ematen ditu. Halere, jakin behar dute zein garrantzitsua izango den euren seme-alabentzat euskara ikastea. Hemengo hizkuntza delako, eta gizarte igogailu bezala ere lagungarri delako. Izan ere, berebiziko garrantzia du mailakatze sozialean gora egiteko: administrazio publikoan lanpostua lortzeko, adibidez. Eta, sarri, euskararen garrantzia ez dute guk bezain argi ikusten.

Zer diote eskola-sistemaren datuek?

Matrikulazioetan baikorra naiz. Datuek diote etorkinen ume gehienak D eskola eredura joaten direla; izan ere, A eredu desagertzeaz dago Gipuzkoan, eta bide beretik doaz Bizkaian eta Araban ere. Baina errealitatea da kalean eta etxean ez dutela euskaraz egiten, eta hori landu egin behar da.

Haien seme-alabek ondo egiten dute euskaraz?

Guraso euskaldunak dituztenek bezain ondo ez, ziur aski. Baina kontua da ikasi egiten dutela. Datu bat ematearren: azken urteetan jaio diren umeen %25en guraso bat edo biak etorkinak dira. Horrek esan gura du etorkizuneko euskaldunak euren seme-alabak izango direla, ezinbestean; euskaldun kopurua handitu gura badugu, etorkinen umeak aintzat hartu behar ditugu. **Datuek diote etorkinek ez dutela euskararen garapena geldiaraziko...**

Hala da. Immigrazioaren Euskal Behatokian inkestak egiten ditugu, eta galdetgia erantzun dutenen %20k soilik uste dute garapena geldiaraziko dela. Egun euskara nagusi den eremuetan euskara gutxiago hitz egingo den galdetuta, bestetik, %16k erantzun dute baietz. Oro har, euskararen gaia etorkinei lotuta jendeak lasaitasunarekin ikusten du. Euskalduntze prozesuan atzerapausoak ematen ari garela pentsa daiteke; baina, nire ustez, euskararen errealitate soziolinguistikoa da hori. Eskolan dago partida, eta kalea da etorkizuneko erronka.

ITURRI ONETIK

Iñigo Urkullu Beratu jaialdian izan da, Oñatin

Iñigo Urkullu lehendakaria Oñatiko Beratu jaialdian izan zen joan den egubakoitzean. Gernikaren bonbardaketari buruzko *Markak* dokumentala eta beronen soinua banda, zuzenean, agertokian, ikusi eta entzutea etorri zen. Ez zen lehendakari bezala etorri. Emaztearekin eta alabarekin batera etorri zen, dokumentalaren egileak gertuko dituelako. Harridura sortu zuen Santa Ana kultura etxera hurbildutakoan artean; izan ere, inork ez zekien, ezta antolatzaileek ere, Urkullu han izango zenik.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-03-29

Mikel Landa garaile Gorkako Igoeran

Naturgas taldeko Mikel Landak irabazi zuen Gorkako Txirrindulari Igoera. Azken urteetan gehien nabarmendu den euskal txirrindulariak Caja Ruraleko bi aurkari gaitzitu zituen helmugarako kilometro bat falta zela, eta horietako bati, Garikoitz Bravori, gailendu zitzaion azken esprintean. Bergarako San Martin plazatik 129 txirrindulari abiatu ziren, 14 talde ordezkaturik. Gorkako helmugara 64 lagun ailegatu ziren ibilbidea osoa eginda.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Errege Kopako finala, sarean berbagai

@ibonleibar: "Gaur apreziatzen ditzuten bi pertsona irakurri ditzut kopako finalan kontra. Beste batzuk probintzialismoa sustatzen dabe, forofismoa sutsu batekin. Uste dot euskalduntasuna, herri bat, naziogintza, euskal selekzioak... aldarrikatzeko kriston aukeria dala finala."

@a3losada: "Joko bat besterik ez da. Baina gizartea mugitu eta erakartzeko dagoen erreminta nagusietakoa da futbola. Eta EITB taldeak hitzordu historiko honen tamainako ahalegina egingo du finalaz euskaraz gozatu dezagun".

D2030: ELKARRIZKETA



Olatz Olaso Emuneko bulegoetan. GOIENA

"Herritarrok zein erronka eta zein kezka ditugun ezagutzea beharrezkoa da"

OLATZ OLASO GARITANO EMUN-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gai sozialak kudeatzen laguntzen duen aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Emunek. Debagoiena 2030 ekimena sortu zenetik, bertako kide ere bada

Miren Arregi ARRASATE

D2030 ekimeneko batzorde teknikoko kide da Emun. Besteak beste, ekimenak eskualdeko herritarren kezkak, ikuspegiak, bizipenak ezagutzeko martxan jarritako esplorazio prozesuan protagonista izan da.

D2030 ekimenak eta Emunek zer dute amankomunean?

D2030 ekimenak, bere abizenak dioskun moduan –Garapen Iraunkorreko Sarea–, sarearen formularen bidez, hau da, lankidetzaren bidez, eskualdearen garapen iraunkorra du helburu. Batetik, lankidetzak da bi proiektuak batzen gaituen soka, eragile ezberdinen

arteko lankidetzak. Emunek ere bere sorreratik argi izan du erronka konplexuen kudeaketarako, lan mundua euskalduntzeko, adibidez, beste eragile batzuekin hartu-eman ezinbestekoa izango zuela. Horretaz gain, D2030en xedea garapen iraunkorra izanik, eskualdeko erronkei modu iraunkorrean erantzutea du helburutzat, eta horixe da, gai sozialen kudeaketari lotuta, Emunen ere partekatzen dugun helburua. Gure eskualdea iraunkorra izatea nahi dugu. Horregatik lan egiten dugu euskara, genero berdintasuna edota parte hartzea erdigunean jarrita.

Zer eskaini diezaioke Emunek D2030i eta zer alderantziz?

Emun egitasmo honetan ikasteko gogoz sartu zen. Berrikuntza soziala da gure oinarrietako bat, eta uste dut berritzeko eta ikasteko gogo hori eskaintzen diogula D2030i. Bestetik, euskara planak direla eta, eskualdeko enpresetan dihardugu urte luzez landa lanean, eta hor badaukagu terrenoko ezagutza metatu bat. D2030ek guri, aldiz, esperimentaziorako gune bat eskaintzen digu, baita, arlo berri batzuetan, esaterako energiaren edo inklusioaren arloan, ikasketarako lekua ere. **Debagoieneko herritarren iritzia jasotzen aritu zarete. Zergatik da**

garrantzitsua erronkei erantzun indartsua emateko herritarrek entzutek egitea?

Gaur egun, gizarte hiperkomunikatu batean bizi gara. Pandemiarekin ere ikusi ahal izan dugu, bideo-dei, eta abarren bidez, momentu oro konektatuta egon garela. Baina, aldi berean, entzuteko joera gutxi daukagu, errora joateko joera urria. Hau horrela, garrantzitsutzat jo zen, hasiera batetik, entzute sakon baten bidez herritarrek entzutea. Eskualdean dauden kezka eta behar nagusiak jasotzea, modu orokorrean. Adituek markatzen dituzten tendentziak jasotzea ez da nahikoa, herritarrok ze erronka eta kezka ditugun ezagutzea beharrezkoa da. Horretarako, 175 elkarrizketa egin dira, eta 10 talde elkarrizketa.

Entzute horretan ikusi da herritarren kezken artean badaudela D2030ek bere egiten dituenak? Alegia, inklusioa, digitalizazioa eta klima larrialdia?

Entzute horretan ikusi ahal izan dugu etorkizuneko erronka potoloenetakoak inklusioa, hezkuntza eta lan munduak bizi izango duen digitalizazio prozesua, eta krisi klimatikoa direla. Herritarren artean, denetariko kezka daude. Herrietan edota egunerokotasunean zentratutako kezka, baina baita kezka globalagoak ere: pertsona ezberdinen arteko elkarbizitza, digitalizazioa eta honek ekarriko duen aldaketa, edota lehenbailehen erantzun beharreko larrialdi klimatikoa, kasu.

Euskara, berrikuntza soziala, parte hartzea... Zer-nolako lanak egiten dituzue?

Emunek gai sozialak kudeatzeko aholkularitza eta lankidetzak eskaintzen du euskararen eta berrikuntza sozialaren arloan. Eraldaketa sozialaren bidean emunkidea eta bezeroa erdigunean jarri eta gainerako eragileekin elkarlanean hainbat arlotako zerbitzuak eskaintzen ditugu, hala nola euskara planak, itzulpenak, euskara formakuntza, hausnarketa saioak, gobernantza, aniztasuna, genero

berdintasuna, berrikuntza plataformak eta gizarte erantzukizunaren arloetan garatzen ditugu proiektuak, kultura parte hartzailea eta parekidea oinarri hartuta. **Berrikuntza sozialeko proiektuek zein eginkizun izango dute datozen urteetan gizartearen eraldaketan?**

Azken urteetan gizarteak eta bizi garen inguruak aldaketa nabarmenak izan dituzte. Mundua aldatu egin da, eta bertako arazo eta erronkek ere forma berriak hartu dituzte. Erronka konplexuei erantzuteko, badira aspalditik datozen formulak, eta formula horietatik askok oraindik ere funtzionatzen dute.

Berrikuntza sozialaren helburua ez da funtzionatzen duena aldatzea, baizik eta forma berria hartu duten erronka horiei beste modu eta begirada batetik erantzuna bilatzeko tresnak eskaintzea. Funtzionatzen ez duten egiteko moduei alternatiba berriak aurkitzea izango litzateke berrikuntza sozialak eskaintzen digun gako.

Zelan joan da egokitzen Emun bera egoera eta garai berrietara?

Gure bezeroei euren erronka sozialak erantzuten laguntzeko gertutasuna izan da beti gure indargune garrantzitsu bat. Eta pandemia eta etxeratze egoera batean nola egon gertu? Dena birpentsatu dugu. Ahalegin handia egin dugu gure bezeroek erantzukizun sozialaren lotutako proiektuak alde batera ez uzteko eta beraiei laguntzeko gertu egoteko, testuinguru berri honek jarri dizkigun muga guztiei aurre eginez.

"INKLUSIOA, HEZKUNTZA ETA LAN MUNDUA, KLIMA ETA DIGITALIZAZIOA DIRA KEZKA NAGUSIAK"

"BERRIKUNTZA SOZIALAK BESTE BEGIRADA BATETIK ERANTZUNAK EMATEA AHALBIDETZEN DU"

Antzuola eta Bergara mugakide izateko 400 metro falta!

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA
ANTZUOLA

2019ko martxoaren 26an, bailaran autobide berria inauguratu zen, eta, horrekin batera, Antzuola-Bergara edo Bergara-Antzuola lotuko dituen oinezkoentzako bidea. Egia esan, amaitu gabe geratu zen eta berdin jarraitzen du.

Erakunde publikoek mugikortasun jasangarria bultzatzen diharduten garai honetan, zeinen ederra litzatekeen senitartekoak bisitatzea, erosketak egitera, bazkaltzera edo, besterik gabe, paseora joatea horren gertu dauden bi herrien artean.

Urteaga kaleko espaloia amaitzen denetik Aseginolaza tailerrera 400 metro dira, benetan puntu beltza eta oso arriskutsua bizikletan edo oinez igarotzeko. Sinestea

kosta egiten bada ere, momentuz, ez da istripu larririk izan.

Behin betiko oinezko bidea egingo da, ez dut zalantzarik. Baina bitartean? Behin-behineko irtenbideak gauzatzea beharrezkoa da. Horrexegatik, Aitor (Bergarako alkatea), Beñardo (Antzuolako alkatea) eta Aintzane (Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura diputatua), elkarrekin 400 metro horiek paseoan egitera gonbidatu nahi zaituztet. Animatzen bazarete, Lapurzubira luzatu paseoa. Erraz, eta merke, aurkituko dituzue egin daitezkeen hobekuntzak erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

Agian, erakunde gehiegi daude eskumenak eta ardurak elkarri leporatzeko. Baina eskuzabaltasun apur batekin bi herrien arteko oinezko bidea bultzatzeko aukera duzue. Herritarrok eskertuko dizuegu. Animo!

Josebari eskutitza

ELIAS ZUMALDE
OÑATIKO SAREREN IZENEAN
OÑATI

Aupa, Joseba.

Zer moduz? Herriko, Arantzazuko haizeak faltan igarriko dituzu, ezta? Eutsi horri!

Gu joan den larunbatean Donostiara joan ginen, Martuteneko espetxe horren aurrera, beste behin, zure askatasuna eskatzeko, justua dena betetzeko eskatzeko. Orain arte, kasu gutxi egin digute, baina hortxe jarraitzen dugu, jarraituko dugu, zu herrira, etxera, etorri arte.

Gaur hain gertu gaude, baina, aldi berean, hain urruti. Kartzelako hormatzar honek ez digu uzten oso aspalditik desio dugun besarkada hori ematen. Paradoxikoa bada ere, urte askotan oso urruti izan zaitugu, milaka

kilometrotara, baina, aldi berean, oso gertu.

Distantziak, denborak, ez gaitu urrundu. Ez horixe!

Akaso, jakinaren gainean egongo zara, baina Oñati aldean azkenaldian *xaukena xauk* esamoldea jarri da modan. Garai bateko *zer xabillau*-tik egungo *xaukena xauk*-era pasatu gara. Esamolde moduan polita da, baina esanahiarekin ez gatoz bat; ez, behintzat, egoera honetan. Guk nahiago dugu Ez Dok Amairuren garaian esaten zen *gazte gara gazte... eta ez gaude konforme!*

Zure askatasuna eskatzen ari garen guztiok ez gara gazte, denetik dago gure artean: gazteak, helduak, nagusiak, emakumeak, gizonezkoak... Hori bai, gutako inor ez dago konforme egoera honekin; etxean, Arantzazun, nahi zaitugu.

Oñati, Arantzazu, asko aldatu da urte hauetan,

ikaragarri: baserri asko hustu egin dira, zaharrak joan eta berriak etorri ez; abereak gutxitu dira eta sasiak nagusitu; Arabako mendi gainean haize errotak ditugu etengabeko mugimenduan; Gandiaga poeta fraidea hil zen eta bere omenez Gandiaga topagunea eraiki da... Zuk alde egin zenuenetik gauza asko aldatu dira, urte asko pasatu diren seinale! Joseba, bada zu bueltatzeko garaia. Arantzazuko, Azpilletako, haizeaz gozatzeko garaia; mendi buelta batzuk eman eta hainbeste ugaritu den sasi artean perretxiko bila bernak urratzeko garaia; familia artean, lagun artean, hitz-aspertuetan, lehengo eta gaurko kontuez aritzeko garaia... Bai, bada garaia! Guk ez dugu etsiko!

Bueno, Joseba, Oñatin izango gaituzu zure zain. A, eta biharko partez, zorionak eta urte askotarako!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Martitzenean egin zuten prentsa agerraldia, sortu berri duten dinamika eta manifestazioaren berri emateko. XABI GOROSTIDI

Unai Paroten etxeratzea eskatuko dute domekan

'Unai Etxeratzeko Bidea Gara' dinamika sortu berri dute, 1990eko apirilaren 2az geroztik kartzelan dagoen Unai Parot euskal presoaren etxeratzea eskatzeko asmoz; helburu horrekin, manifestazioa egingo dute etzi, 12:30ean Herriko Plazatik abiatuta

X.G./E.A ARRASATE

1990eko apirilaren 2an espetxeratu zuten Unai Parot arrasatearra, eta urte hartan jaiotako hainbat lagunek ekitaldia egin zuten martitzenean, Arrasateko Sarek sortu berri duen dinamika berri emateko. Dinamika bitartez, hain zuzen, Parot etxeratzea lortu gura dute, eta prestatu dituzten ekintzetako lehena domekan egingo duten manifestazioa izango da.

Aurkezpenean, Paroten egoerari buruzko hainbat hausnarketa plazaratu zituzten, eta azken 31 urte hauek kartzelan pasatu izana "injustuzat" eta "krudelkeriatzat" jo. "Euskaraz, *hamai-ka* esaten dugu zerbait asko dela esateko, ezin konta direnei neurria jartzeko. Hamaika asko badira, hogeita hamaika dira orain ezin konta ari garenak. Ezin sinetsi. 2005ean kalean behar lukeela uste izatetik hamazazpi urte geroago oraindik kartzelan jarraitzen duela ezin sinesteraikoak. Noiz arte?".

Nelson Mandela apartheidaren aurkako ekintzaile hegoafrikarra urte berean geratu zen aske, eta horrekin ere alderatu zuten Paroten egoera. "1990eko otsailaren 11n geratu zen aske Mandela, Unai atxilotu baino bi hilabete lehenago. 31 urte igaro dira ordutik hona, eta munduaren bazter batean injustizian oinarritutako kondena baten amaierak lekukoa eman zion munduaren beste aldean injustizian oinarritutako kondena berri bati. Krudelkeriak krudelkeriari pasa zion lekukoa, eta, 31 urte geroago zigorrak, kondenak eta mendeku goseak bere horretan dirau. Sinesten zailak diren neurriak dira, norbere azaletik sentitzeko ia ezinezkoak".

SARE: "BIDEA GARA" DIOGUNEAN, HERRI EDO KOMUNITATE OSO BATEN INDARRARI DEI EGITEN DIOGU"

Herritar guztiei egindako deia

Adierazi dute Euskal Herriratzea edo askatzea "ezinbesteko gizatasun eta justizia keinu" liratekeela, kontuan izanda "legeak ezarritako 30 urteko gehieneko espetxealdia" gainditu duela Parotek, eta "espetxe onurak ukatu" eta hamaika urteko kondena "erantsi" ziotela.

Dinamika horren baitan, herriko instituzio, alderdi politiko eta herri eragileak interpelatu nahi dituzte, baina, bereziki, herritarrek. "*Bidea gara* diogunean, herri edo komunitate oso baten indarrari dei egiten diogu. Denon beharra dugu Unai etxeratzeko. Elkarbizitza, bakea zein konponbidea erdiesteko. Jende askok sufritu ditu askotariko biolentziak herri honetan eta guztien minak aitortza, erreparazioa eta erreparatuko ez diren bermeak behar ditu, baina ezin da elkarbizitzarik, bakerik edota konponbiderik sustatu egoera anker eta krudel hauek betikotuz", azpimarratu dute.

Inkesta bat, herriko azokaren etorkizuna bermatu ahal izateko

Gipuzkoako Azoken Sarea herritarrei galdetzen hasi da Gipuzkoako 16 udalerritan; horietako bat Arrasate da

E.A. ARRASATE

Urtarril hasieran aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Azoken Sarea, Eusko Jaurlaritzarekin, landa garapen elkarteekin eta Erika Fundazioarekin elkarlanean. Ekimen horren baitan, inkesta bat abiatu dute 16 udalerritan, tartean, Arrasaten, azoken egoera zein den jakiteko, kontsumo ohiturak aztertzeke eta azokak biziberritzen saiatzeko.

Ekimenaren lehenengo fasea izango da inkesta, eta bigarren fasean, herritarrekin eta eragi-

leekin elkarlana sustatu gura dute. Hala, talde dinamikan parte hartzeko interesa duen herritar orori *merkatuplaza@eurogap.es* helbidera mezu bat idazteko dei egin diote, "eta bertan, dinamiketan parte hartzeko informazioa emango zaio".

Arrasate.eus-en bete ahal izango dute herritarrek inkesta, eta baita Azoka plazan bertan ere. Eguaztenetan eta egubakoitzetan, gainera, udal langileak egongo dira informazioa emateko. Apirilaren 5ean bukatzen da erantzun ahal izateko epea.

725.424 euro herriko talde eta eragileak laguntzeko 2021ean

Arrasateko Udalak 2021eko laguntza programen deialdi orokorra onartu du eta apirilean eskatu ahal izango dira

E.A. ARRASATE

"Publizitateari, gardentasunari, objektibotasunari, berdintasunari, diskriminaziorik ezari, baliabide publikoen eraginkortasunari eta eraginkortasunaren printzipioei jarraiki" onartu du Udalak deialdi orokorra. Izan ere, nabarmendu du "oso garrantzitsua" dela herriko eragileek egiten duten lana, eta "ezinbestekoa" dela administrazioak babestu eta haien lana sustatzea.

Modu horretan, 22 programa dira onartutakoak, hamar sailetan banatuta: kultura, euska-

ra, hezkuntza, gizarte ongizatea, berdintasuna, gazteria, ingurumena, kirola, hirigintza eta enplegua (*Goiena.eus*-en ikusgai).

2020an, 284 egitasmo lagundu zituen Udalak, 186 norbanako eta 98 elkarte, eta euskara eta gizarte zerbitzu alorretako elkarte edota proiektuak izan ziren gehien lagundu zituenak.

Eskaerak, apirilean

Laguntza horiek eskuratu ahal izateko eskaerak apirilean aurkeztu ahal izango dira, udal webgunean edo BAZen.

Kaleko 590 banku berregokitu egingo ditu Udalak, udarako

Udal brigadako langileak eta Lanbideren lan eskaintzaren bidez kontratatutako pintoreak hasiak dira lanok egiten. Udara begira, Arrasate "ederragoa" aurkezteko asmoz, herriko banku eta eserleku publikoak egoera "ezin hobean" jarri gura ditu Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen sailak, Victoriano Fuentes zinegotziaren esanetan.

Ondare historikoaren "suntsipena" kezka bizi du Ezker Anitzak

Instituzio publikoek ondare historikoa mantentzeko daukaten interes falta eta pasibotasuna salatu du formazioak. "Penaz hartu dugu Uribe baserriaren eta ondoko zubiaren desagertzea. Aramaio errekeren gainean XVI. mendean eraikitako zubia zen, zonako baserrien arteko pasabidea errazten zuena", azpimarratu du taldeak.

Droga-mendekotasuna lantzeko programak jarraipena izango du

Helburua da 13 eta 16 urte arteko ikasleengan drogen kontsumoaren eragin eta ondorioak ezagutzera ematea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Drogen kontsumoaren prebentzioa ardatz hartuta, 2018an, herriko gazteentzako programa psikopedagogiko bat martxan jartzeko lau urteko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak

eta San Juan de Dios ospitaleak. Udalak adierazi du 2021ean ere jarraipena emango diotela hitzarmen horri, lanketara 7.000 euroko aurrekontua bideratuz, eta aurten ere Arizmendi Ikastolako eta Institutuko DBHko

ikasle guztiek hartuko dute parte programan.

Helburu nagusia da "ikasleei drogen eta, oro har, horien kontsumoaren eragin eta ondorioen inguruko informazioa eskaini eta ezagutzera ematea".

Ikasleek substantzien kontsumoaren inguruan duten jarrera jasotzeko, urtero DBHko zikloa hasten duten ikasle berriek, DBHko lehen mailakoek, inkesta bat erantzuten dute: "Autoestimua, asertibitatearen, erabakiak hartzearen, talde zein

gizarte presioaren eta autokontsumoaren gaineko galderak egiten zaizkie; ondoren, ikasle horiekin eta DBHko bigarren mailakoekin, inkestan landutako gai horiek sakontasunean tratatzeko saioak eramaten dira aurrera ikastetxean bertan", azaldu dute Udaleko ordezkariak.

Hirugarren eta laugarren mailakoek, aldiz, ezingo dute San Juan de Dios ospitalera irteera egin, osasun egoeragatik, eta saioak ikastetxean bertan landuko dituzte aurten.

Herriko busak 80.313 bidaiari gutxiago izan zituen 2020an


2019an, 183.413 lagunek erabili zuten herriko autobus zerbitzua eta 2020an, "pandemiaren eraginez", kopuru hori 103.100era jaitsi zen; hau da, 80.313 bidaiari gutxiago. Dena den, Arrasateko Udalak autobus zerbitzua bermatzen jarraitu du, "nahiz eta bidaiari kopurua ia erdira jaitsi den eta 116.515 euroko defizita bere gain hartu".



E.A.

Euskararen Plazan, hesia

Parkinga hesitu egin du Udalak, Zalduspeko lanen ondorioz, Udaltzainak atxikitako ibilgailuak uzteko. Halere, "behin-behineko" kontua dela azaldu du. Txatxilipurdiren bulegoko sarrera hesien barruan geratu den arren, elkarrean herritarrei adierazi die ate guztiak zabalik dituztela. "Gugana jotzeko beharra izanez gero, edozein gauzagatik, etorri lasai", azaldu dute.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Hitz egin

Kosta egin zitzaizkidan erre gogorrek, baina azkar ikasi nuen hizketan. Abizen luzeegia zuen 3 urtera iritsi gabeko neskatilak, baina bokal guztiei forma eman niezaizen enpeinatu zen aitaita. Kasetean daude -mp3 bakarrean orain- mende berriko lehen Gabonak, nire erdizkako erreka eta bere zeta eta ese zuzenak. Zerbait gelditu zaigu orduetik. Hizketan ikasi, eta isiltzen jakin ez. Gerora etorri zen hori. "Ez duzu askorik hitz egingo eztabaida batean, baina zorrotza zer zaren". Sinpatian egiten ditut ahaleginak, baina gela beteetan, azken sententzia labur eta gordin botatzearekin konforme. Ez da estilo kontua. 3 urtera iritsi gabeko neskatilak neskatila moduan ikasi zuen noiz zegokion hitza, noiz entzuten zuten, noiz egiten zioten kasu, eta noiz kasurik ez. Aste berean aurkitu ditut 2001eko Gabonetako grabazioak eta Marc Giroren esaldi presazko eta zorrotza: "Aberats eta gizonek hitz egiten duzue astiro. Tarte duzelako, entzun zaitzaten ohituta zaudetelako. Baina guk, pobreek, emakumeek, marikek... guk azkar hitz egin behar dugu, badaezpada". Hitz gutxiko sententzia zorrotzekin, badaezpada.

Arrasateko Hipermerkatuko aparkalekuan dauden hoztutako kutxatila adimendunetan.

DOAN
4 orduan
Itxaron gabe

supermercado.eroski.es

EROSKI online
zurekin



Ramon Hidalgo, Enrique Reyes, Bernardo Rodriguez, Martin Garcia, Vicente Fernandez, Elvita Renda eta Marijo Diez. E.A.

Zailtasunak gaindituta, etorkizuna bermatuta du

"Desagertzeko zorian" zegoen Toki Argi erretiratuen elkarteak, zuzendaritza batzordean erreleboa falta zutelako; zorionez, baina, kide berriak lortu dituzte eta elkarteak bizirik jarraituko du; martxoaren 18ko batzar orokorrean gauzatu zuten errelebo hori ofizialki

Eneko Azurmendi ARRASATE

Zuzendaritza batzorde berria dauka Toki Argi erretiratuen elkarteak, martxoaren 18az geroztik. Zortzi kidek osatzen dute batzordea: Ramon Hidalgo, presidentea; Marijo Diez, presidenteordea; Enrique Reyes, idazkaria; Vicente Fernandez, diruzaina eta Bernardo Rodriguez, Gregorio Fuentes, Demetrio Gil eta Martin Garcia, bokalak.

Horieta hiru lehendik ere batzordeko kide ziren: Fernandez, Gil eta Garcia, hain zuzen. Gainontzekoak berriak dira.

Bestalde, orain arte idazkari kargua eduki duen Elvita Renda izan da elkarteak erreleboa izan dezan indar gehien jarri duenetako bat, Fernandezekin eta Garciarekin batera. "Elvitak adierazi zigun batzorde bat osatzen ez bazen elkartearen etorkizunak ez zuela batere itxura onik", azaldu du orain idazkari den Enrique Reyesek.

Hori dela eta, pausoa ematea erabaki zuten. "Ez genuen hau

ixterik nahi. Azken batean, azoko jende nagusiarentzat leku ezin hobea da denbora pasatzeko, lasai egoteko, sozializatzeko eta, noizean behin, bidaiak batzuk egiteko. Hori hala izanik, pena ematen zigun itxi behar izateak, eta, pixkanaka, taldea osatzea lortu genuen. Bazkideak asko poztu dira gu zuzendaritza batzordera sartu garelako, batzurrean txalo zaparrada jaso genuen, eta horrek poz handia ematen digu guri ere", gaineratu du.

Egun, 390 bazkide inguru ditu

Elkarteak, tabernaz gain, bulegoak eta bi areto ditu goiko solairuan, eta behekoan, ludotekarekin batera, eskulanak egiteko beste gela bat ere bai.

LEHENGO EKINTZAK BERRESKURATZEN HASI GURA DUTE, APURKA, PANDEMIAK BALDINTZATU ARREN

Gaur egun, 390 bazkide inguru ditu. "Kuota batzuk ordaintzen dituzte, eta diru hori, besteak beste, bidaiak eta ekintzak antolatzeko erabili izan dute; dantza saioak, karta jokoak edota bingoa, esaterako. Orain, pandemia dela eta, bingoa berreskuratzeko baimenak eskatuta ditugu Udalean. Bestalde, zine emanaldiak ere egin gura ditugu. Edukiera kontrolatu egin beharko dugu, eta oraindik ez dakigu zenbatekoa izango den".

Erreleboa hartu ostean, martxan

Behin erreleboa hartu ostean, martxa hartzen ari da batzorde berria. Espazioa berritzen eta egokitzen ere ari dira, eta horren erakusle da, esaterako, kanpoko paretan egingo duten murala.

Garai batean *Distrito 33* izenez ezaguna zen eremuko herritarrek dira elkarteak erabiltzaileak; hau da, Santa Teresa, Santa Marina, Agerre, Galizia, Doneztebe Portuko, Obenerreka eta Makatzena kaleetakoak.

Apirilaren 1etik 11ra, "herriko turismoa sustatzeko" egitaraua

'Arrasate, gertuko turismoa' lelopean, bisita gidatuz eta mendi ibilaldiz osaturiko eskaintza antolatu du Udalak

E.A. ARRASATE

Arrasatek "ondare historiko zein natural handi eta aberatsa" duela eta, ondare hori ezagutzera eman eta indartzeko eskaintza turistikoa aurkeztu du asteon Arrasateko Udalak.

Bisita historikoei dagokienez, apirilaren 1ean, historiaurretik aro berrira arteko Arrasateko historiaren pasarte garrantzitsuenak azalduko dituzte; hilaren 2an, industrializazioak Arrasaten izandako eragina; eta hilaren 3an eta 10ean, udaletxea ezagutzeko aukera egongo da.

Mendi ibilaldiei erreparatuta, hilaren 4an, Galarrako kobara joango dira –ezinbestekoa izango da kaskoa, eskuko linterna eta linterna frontala eramatea–; hilaren 5ean, martxa nordikoa egingo dute Udala eta Besaide artean; eta hilaren 11n, Gongetako meatzetara joango dira.

Izen-emateak zabalik daude dagoeneko eta hiru bide daude horretarako: BAZen, 943 25 20 00 telefonora deituz edota *Arrasate.eus* webgunearen bitartez. Orduetegiaren informazio zehatzagoa, *Goiena.eus* webgunean.

Bilgune feministak antolatutako tailerra gaur gaztetxean

Gure iraganarekin solasean: paktu patriarkalak eta kolonialak solasaldia egingo dute gaztetxean, 18:00etan, Amaia Nausiak eta Onintza Odriozolak gidatuta. Azaldu dutenez, modernitatearen ezarkuntzak Euskal Herrian hartu dituen formak aztertuko dituzte, eta emakumeengan izan dituen ondorioei begirada historikoa egingo diete.

Mondra taldeko 125 kamiseta zozkatuko ditu Ibai-artek

Ibai-artek bezeroen eskura jarriko ditu kamisetak eta zozketa apirilaren 17an egingo dute, baserriarren azokan, 09:00etatik 13:00etara. Parte hartzeko, erosketa txartela eta helbide elektronikoa bidali beharko dira 688 73 41 49 zenbakira, Whatsapp bidez. Gainera, Mondrako kideek azokan postu bat jarriko dute, kamiseta gehiagorekin.

OHARRAK

Arrasatetik Donostiara martxa bihar, zapatua

"Intsumituen borroka euskal errepublikaren borrokarekin elkartuko duen mobilizazioa". 10:00etan irtengo dira, Garibaitik.

AEKren Bultza! dinamika babesteko ekitaldia

Domekan, 12:00etan, Herriko Plazan egingo dute. Bi helburu dituzte: euskara biziberritzeko prozesuan euskaltegien funtzio estrategikoa aldarrikatzea eta Korrika atzeratu behar izanak eragindako galera ekonomikoa txikitzeko ekarpenak biltzea.

Besaide herritarren iritzia jasotzen ari da

Domekara arte bete ahal izango da ekintza eta ikastaroak antolatzeko ekarpenak egiteko inkesta (*Goiena.eus*-en).

Igogailuetan desinfekzio lanak egingo dituzte

Igogailuak zerbitzuz kanpo egongo dira egun eta denbora tarte jakinetan. Informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean.

Apirilaren 2ko azoka, martxoaren 31n

Aste Santuko jaiegunak direla eta, Arizmendiarieta plazan egiten duten egubakoitzetako ohiko azoka bi egun aurreratuko dute datorren astean. Edukiera %50ekoa izango da.

"Eguzki-energiarekin aurreztu egiten da argindarraren fakturan"

MIGUEL ANGEL PEREZ SMART SPAIN ENPRESAKO EGUZKI-INGENIARIA

Autokontsumo jasagarria: Smart Spain enpresak eguzki-plaka bat oparitzen die etxean eguzki-energia kontratatzen duten herritarrei

Goiena ARRASATE

Arrasateko Udalak, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) lankidetzan, Arrasateko bizilagunek beren etxeetan eguzki-plaketan egiten duten inbertsioaren %20 finantzatzea adostu du. Miguel Angel Perez, Smart Spaineko eguzki-ingeniarria, etxeetan eguzki-plakak instalatzeko prozesu guztia gainbegiratzear arduratzen da.

Zer onura dute eguzki-plakak beren etxeetarako aukeratzen dituzten pertsonak?

Eguzki-plakak instalazioa izateak abantaila asko dakartza epe labur eta ertainera. Horieta da eguzki-energiarekin argindarraren fakturan aurreztu dela hilaren amaieran. Aurrezkiarekin lotutako beste abantaila bat zure instalazioaren kudeaketa eta kontrola da, Iberdrolaren app-aren bidez kontsumo

moari eta sorkuntzari buruzko datuak edukita. Epe luzera, ingurumen-kutsadura murrizten laguntzen du, eguzki-energia garbia eta agorrezina delako.

Jakin berri dugu Arrasateko Udalak herritarren artean eguzki-energiaren aldeko apustua sustatu nahi duela. Zer neurri jarri dituzte martxan?

Hori da. Arrasateko Udalak ingurumenaren kutsadura murriztu nahi duten beste udalerririk batzuen ildoari jarraitzen dio. Horretarako, laguntza ekonomikoaren forma bat jarriko dute mar-

"EGUZKI-ENERGIARA PASATZEN DIRENEI LAGUNTZAK EMANGO DIZKIE ARRASATEKO UDALAK"

txan etxean eguzki-energiara pasatzen diren herritarrentzat.

Zertan datza laguntza mota hori? Energiaren Euskal Erakundearekin egin duten akordio baten bidez, bizilagun bakoitzak eguzki-plakak kontratatzean egiten duen inbertsioaren %20ra arte finantzatuko dute. Horrez gain, instalazioa egin eta hurrengo hamar urteetan, OHZren eta EIOZren ordainketa erdira murriztuko dute bizilagun horiek. **Zer baldintza bete behar dira Arrasateko Udalak eskaintzen dituen dirulaguntzak jasotzeko?**

Lehenengo baldintza da eguzki-plakak instalazio bat kontratatu duzula frogatzea. Beste baldintzetako bat da etxeak 2005a baino lehen eraikita egon behar duela.

Non eman diezaioke alta instalazioari eguzki-energian interesa duten guztiak?



Miguel Angel Perez, Smart Spain enpresako eguzki-ingeniarria.

Eguzki-energian interesa duten guztiak Iberdrolarekin lankidetzan daukagun bulegora jo dezakete aurrekontu eske. Honako helbide honetan dago: Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 4, 20500, Arrasate,

"EGUZKI-ENERGIA GARBIA DA, AGORREZINA, ETA, GAINERA, ETENGABE BERRITZEN DA"

Gipuzkoa. Aholkularitza emango dizugu eta zure etxebizitzarako aukerarik onena eskainiko dizugu. Gainera, aholkularitza emango dizugu Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako dirulaguntza guztiak izapidetzean egiten duzun prozesuan zehar. Kontuan izan, eguzki-energia garbia dela, agorrezina, eta etengabe berritzen da. Hortaz, alde guztietatik begiratuta, abantailak nabariak dira: merkeagoa da, garbiagoa da eta laguntzak jaso ahal dira.



[f](#)
[@](#)
[@instasmartspain](#) | www.smartspain.es

EGUZKI-ENERGIA ETXEAN

Arrasaten hobariak

%50 EIOZn eta OHZn

%20 instalazioan

Eguzki-panel instalazioa





✓ %70era arteko aurrezpena ✓ Zure argindarra ✓ Finantzatu erosotasunez

KONTRATATU HEMEN →

Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea, 4
 20500 Arrasate, Gipuzkoa

Ekiñe Casadok 'Besterik ez' maketa kaleratu du

Bakarleri arrasatearrak bost abestiz osatutako lehen lan pertsonala grabatu du Shot! estudioan, eta gaurtik aurrera egongo da eskuragai. Bere gitarra eta ahotsa nagusitzen dira pianoz, gitarra elektriko, trikitiz eta baxuz apaindutako doinuetan

Hasier Larrea ARRASATE

Bere adineko gazte asko bezala, unibertsitate ikasketak egiten ari da Ekiñe Casado, eta, bien bitartean, berak sortutako bost kantaz osatutako maketa bat grabatzeko tartea hartu du: "Komentarioren bat entzun behar izan dut, ea zertan nabilen hain gazte izanda maketa bat kalera-tzen; ba, tori maketa!", dio amorrarioz. Halakoak entzuteak "atzera botatzeko gogo" piztu badio ere, "bi aldiz pentsatu ostean" damurik sentitzen ez duela aitortu du Casadok, nahiz eta hasieran non sartzen zen ez zekiela onartu: "Alboan aurkitu ditudan musikariek asko lagundu naute, bai kontzertuetan eta baita grabazio fasean ere".

Estudiora, di-da batean

Ez du urrunera joan beharrik izan estudioko lehen lana argitaratzeko, Arrasateko Shot!-en egin baitio tokia Iñaki Bengoa teknikariak: "Grabatzeko zerbait neukanean abisatzeko esan zidan Iñakik, eta hala egin nuen; otsailko azken asteburuan egon nintzen Shot!-en, eta oso arina egin zait grabaketa".

Bi egunean grabatzen duenak nahiko argi izan behar du zein den atera nahi duen emaitza, eta bakarleriaren kasuan hala izan da. Hala ere, esperimintuei ere ireki dizkie ateak, berarekin batera maketa notaz janzten aritu diren musikariren gomendioei jarraituz: "Abestietan aurreikusitako instrumentuak sartzea ausartu gara, errazagoa baita bukaeran kentzea beste zerbait gehitzea baino".

Zehazki, Uxue Alkortaren, Maialen Oleagaren, Olatz Urkiaren eta Goiatz Salbadorren laguntza izan du gitarra elektrikoak, ahotsak, baxua, kajoia, pianoa eta trikitia grabatzera-koan. "Niretzat etxean egotea moduko esperientzia izan da, lagun artean grabatu dudalako,



Ekiñe Casado bakarleria, Shot! estudioan ahotsa grabatzen. E.C.

TRIKITIXA ESKOLAN HASI ETA GERTUKO MUSIKARIENGANDIK IKASI DU TXIKITATIK CASADOK

eta pare bat aldiz egonda nengoelako Bengoarenen", ziurta-tu du Casadok.

Musikari zaildua

Musikarekiko harremana txikitxikitatik daukala gogoratu du gitarra-jole eta abeslariak: "Etxean jartzen zizkidaten taldeekin ikasi nuen oinez: Gose, Pirritx eta Porrotx, The Clash... Abesteko gai nintzenez, punk kantak ez entzuten saiatzan ziren gurasoak, biraoak ikasi ez nintzan, baina ez zuten lortu". Trikitixa Eskolan apuntatu zen, gero, 7 urterekin hartu baitzuen panderoa eta 9 urterekin trikitia. Testuinguru hartan hasi zen, gainontzeko ikasleekin batera, publikoaren aurreko emanaldiak eskaintzen, "betidanik" maite izan duen gitarra akustikoari arreta jarri baino lehen: "Anari ezagutzeak begiak ireki zizkidan,

sekulako aurkikuntza izan zen niretzat. Horrez gainera, asko jaso dut herriko musika eszenatik, eta halaxe murgildu nintzen bakarleri gisa".

Kantuak, "minetik"

Bertsioak jotzearekin batera, kantu propioak sortzen hasi zen, pixkanaka: "Gehienbat, gizarteak sorrarazten digun minari eta ahultasunari aurre egiteko konposatzen dut; maketa ere hortik doa". Formatu fisikoari, hots, diskoaren diseinu eta ilustrazio lanei, garrantzia eman nahi izan die, eta Internetera "oraindik" igoko ez duela nabarmendu du.

Banaketa faseari helduko dio jarraian, eta, momentuz, Irati topalekuan jarriko du salgai lan berria, nahiz eta herriko eta bailarako beste txoko batzuetara ere eramango dituen. Kontzertuez galdetuta, Ondarroako gaztetxean lotu du bakarra, momentuz, baina joango dela "pixkanaka" gehiago lotzen.

Bere bidea urratzen segitzeko asmo argia dauka Casadok, baina aterik ez du itxi nahi: "Politikazko litzateke etorkizunean talde bat osatzea".



Tartalo gaztagilea eta pertsonaia goxoa da obran zehar. LOGELA MULTIMEDIA

Tartaloren kondaira fantastikoa, "modu berezian" kontatua

Logela Multimediak bidez eta antzezpenez osatutako eszenografia aurkeztuko du bihar Amaia antzokian

H.L. ARRASATE

Tartalo pertsonaia mitologikoa-ren alderdi beldurgarria osagai umoretsuekin ordezkatu du produkzio digitalak ikuskizun bilakatzen dituen Logela Multimedia konpainiak. Elorrioko taldeak *Yoko eta lagunak*, *Gartxot* eta halako marrazki bizidunen gidoiari izandako Edorta Barrietabeñaren laguntza eduki du *Tartalo*, *gaztaren sekretua* izeneko kontaketa organikoa moldatzeko orduan. "Gure obran, Tartalo mundu koloretsu eta dibertigarri bateko gaztagilea da, eta umeei gazta nola egiten

den irakasten die koreografiaren eta antzezpenen bitartez", adierazi du Ander Garaizabalek, Logelako kideak. Beraz, tentsioa baino gehiago, neska-mutilek "poza eta lasaitasuna" sentituko dutela ziurtatu du Garaizabalek.

Lengoaia eszeniko "berezia" daukala ere aipatu du Logelakoak: "Hiru aktore eta bi teknikari elkarrekintza etengabea daude obran, argien, soinuaren, irudiaren eta ekintzaren arteko sinkronia mantentzeko".

Hilaren 27an, 17:00etan hasita, egongo da nahasketaren emaitza Amaian ikusteko aukera.

OHARRAK

Arrasate Musikalen kontzertuak

Musika eskolako ikasleek eta folk taldeak emanaldi bana eskainiko dute, Kulturaten gaur, 18:30ean, eta Musika eskolan bihar, 12:00etan. Sarrera guztiak agortuta daude jada.

Pandero jaialdia Amaia antzokian

Arrasate Trikitixa Eskolak III. pandero jaialdia antolatu du gaurko, 18:30ean hasita. Ikasleen saioaren aurretik solasaldia egingo dute, Maider Osak gidatuta, Neomak taldeko Amets Ormaetxea, Leire Etxezarreta eta Irati Gutierrez kideek.

The Bobby's taldea gaztetxean

Oreretako punk-oi! taldeak 10 urteko ibilbideari agur esateko dokumentala grabatu du, eta ikusgai egongo da bihar, 16:00etan. Ondoren, kontzertua emango dute taldekideek, Arrasateko Goi!&Bego taldearekin batera.

Ostalaritzari buruzko argazki lehiaketa

Artgazkik antolatutako lehiaketaren irabazlea Andoni Iñarra izan da. Ondorioz, berak aukeratu du hurrengo lehiaketarako gaia: kirola. Apirilaren 8ra arte aurkeztu daitezke irudiak, Artgazkik sortutako Facebookeko taldean.

"Nola eraiki zehazten dute plan bereziek"

BEÑAT MENDIBURU UDAL ARKITEKTOA

Aramaioko Udaleko arkitektoa da Beñat Mendiburu. Azkenaldian, auzoetako plan bereziekin buru-belarri dabil lanean. Sei aurkeztuta, beste bostak egiten dabilta

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Landaguneetako plan bereziak jendaurrean daude, beharrezkoak diren alegazioak jartzeko. Udal arkitektoaren aholkua da bigarren dokumentuko 10-16. artikulua begiratzea.

Auzoetako plan bereziak ikusgai daude. Jendeak deitzen du?

Auzo bakoitzeko antolamendu konkretua jasotzen du dokumentuak; hala, norberaren partzelari edo baserriari eragiten dionez, jende dezente ari da deitzen. Hirigintza dokumentuak ez dira erraz ulertzen; badaude ulertzen dutenak, horiek gauza zehatzak galdetzeko deitzen dute; baina gehienek galdetzen dute nola eragingo dien euren. Esan behar da gehiengoari ez diola askorik eragingo plan bereziak. **Beharrezkoa da horrelako plan bereziak egitea?**

Hirigintza legediak sortzen duen beharra da; EAEn 2006. urtean onartu zen lehenengo aldiz Hirigintza Legea. Ordura arte, funtzionatzen genuen Estatuko legearekin. Lege horretan ezarzen da auzo hauetako kasuistika bereziaren arautegia. Auzo hauek dira landa-lurrean dauden auzoak; berez, landa-lurrean ezin da eraikin berririk egin, ez baldin badago lotuta abeltzaintza edo nekazaritza ustiapen profesional bati. Baina halako auzoek daukate landagune izaera, hirigintza legediak ematen dien izaera berezia da hori. Izaera horren arabera, bertan etxebizitza berriak eraiki daitezke, familia bakarreko eraikinak. 2006. urteko legeak esaten du udal arauak egokitu egin beharko direla lege horretara eta jaso beharko direla auzo horietako ordenazioak; hori egin genuen Plan Orokorren bitartez, 2017an. Horrez gain, esaten du antolamendu xehakatur plan berezien bitartez arautu beharko dela. 2017ko Plan Orokorrek zehazten du ze lursailetan erai-



Beñat Mendiburu udal arkitektoa. A.E.

"EAE-KO HIRIGINTZA LEGEAK BAIMENTZEN DITU BASERRIETAN HANDITZEAK, BAINA TXALETETAN, EZ"

ki daitekeen; eta orain, plan berezi hauek egiten dutena da erabaki nola eraiki daitekeen. Gainera, dagoeneko dauden eraikinekin zer gertatzen den zehaztu behar da: hain zuzen ere, baserriak daude, 1950. urtea baino lehen eraikitakoak; eta baserriak ez direnak daude, txaletak deiturikoak.

Hirigintza legedia ezberdina da bi kasu horietan?

Hirigintza legeak baimentzen du baserrietan handitzeak egitea, edo baserri barruan etxebizitza gehiago antolatzea; baina txaletetan, ez. Plan berezi honek hori ere erregulatu behar izan du. Erregulatu dugu ze baserrietan eraiki daitekeen eta nola, eta gainerako eraikinetan ez da baimentzen handitzerik. Horrek nahiko harrabots sortu du; izan ere, txaletetan bizi den jendeak ez du begi onez hartu.

Zeintzuk dira Aramaiok dituen lehenetsunak?

Hirigintzaren ikuspuntutik, momentu honetan, sei auzoetako plan bereziekin gabilta, eta gainerako bost auzoetakoak ere idazten hasi gara dagoeneko. Horrez gain, martxan daukagu gune historikoko Plan Berezia egitea. Indarrean dagoena 1996. urtekoa da. Hori errebisatu egin behar da; izan ere, zaharrituta geratu da, patrimonioaren ikuspuntutik araudi berria sartu da. Azkenik, abian daukagu Plan Orokorren aldaketa puntual bat egitea.

Etxebizitza berriak eraikitzeke gainera badago?

Bai; hori sartuta dago Plan Orokorren aldaketa horretan. Kostatzen ari zaigu aldaketa hori aurrera eramatea, Ur Agentziarekin daukagun arazo bategatik. **Aramaiok duen auzo izaerak berezi egiten du hirigintza?**

Berezi eta zail, hein batean. Kasuistika oso konkretuak sortzen ditu. Herriguneko arautegiaz gain, hamaika auzo daukagu, Oleta ere badago... Konplexutasuna ematen dio, baina, era berean, aberastasuna ere ematen dio izaera horrek.

Eskolari izena aldatzearen alde botatu du gehiengoak

199 botoetatik 124 izan dira baiezkoak; prozesua amaitu nahiko lukete ikasturtea bukatzearekin batera

A.E. ARAMAIO

Joan den egunean egindako bozketaren arabera, gehiengoak San Martin herri eskolari izena aldatzearen alde egin du. 199 boto batu zituzten, eta emaitza izan zen: 124 izena aldatzearen alde daude, 22ri berdina zaie eta 53 ez aldatzearen aldekoak dira.

Eskola osatzen duten komunitateko kideek izan zuten botoa emateko aukera: 2 urtetik LHko 6. mailara arteko ikasleek, langileek, gurasoek eta udal ordezkariak, hain zuzen.

Ikasle ordezkariak

Prozesua aurrera eramateko motorra ikasleak eurak izan dira. "Elkarbizitza batzordean proposamena jaso genuen, orain dela bi urte", azaldu du Elkarbizitza batzordeko kide Maite Aperribaik. "Eta batzordetik proposatu genien ikasleen ordezkariari zer zegoen; bilerak

egin zituzten eta erabaki zuten egokiena zela galdetzea", dio Aperribaik. Ikasleek erabaki zuten zeintzuek izango zuten bozkatzeko aukera, arrazoiak proposatu zituzten, galdera formulatu, euren egin zituzten kartelak, bozketaren egunean zaintza lanetan ibili ziren...

Irizpide markatuko dituzte

Orain, adostu egin beharko dute ze irizpide izango dituzten kontuan izenak proposatzeko orduan. Izan ere, asmoa da ikasturte bukaerarako prozesua amaitzea, hurrengo ikasturte izen berriarekin has dezaten.

Oihana Amezkua Hezkuntza zinegotziak balorazio positiboa egin du: "Prozesu parte-hartzaileria izan da eta komunitatea inplikatu egin da. Gainera, ikasleek tresna demokratiko bat ezagutu dute eta herritar aktiboak direla erakutsi dute".



Maite Aperribaik eta Zuriñe Blanco irakasleak, ikasleekin. A.E.

Gazteek hilaren 31ra arte eman dezakete izena udalekuetan

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek 7 eta 13 urte bitarteko gazteei zuzendutako udalekuak antolatu dituzte. 2.321 plaza eskaini dituzte, guztira; lurraldeka, arabarrendako 815 plaza izango dira. Martxoaren 31ra arte egongo da izena emateko epea. Arabari dagokionez, plazen zozketa apirilaren 14an egingo dute.

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik dago; maiatzaren 15era arte egongo da horretarako aukera. Bankutik helbideratuta dauden ordainagiriak apirilaren 12an kobratuko dituzte. Gainontzekoek etxean jasoko dute ordainagiria, apirilaren 12rako; jasotzen ez dutenek udaletxean eskatu behar dute, epearen barruan.

Musika taldeek zabalik dituzte kuartelaren ateak

Udalak eta Kuartela kultur elkarteak protokolo bat adostu dute eraikina erabiltzeko, eta taldeek txandaka jardungo dute lanean astelehenetik zapatara bitartean; eraikinean hobekuntza batzuk egiteko konpromisoa hartu du, gainera, Udalak

Mirari Altube ARETXABALETA

Entsegu lokalak kuartelean dituzten taldeak hasi dira berriro lanean. Udalak eta Kuartela kultur elkarteak protokolo bat adostu dute eraikinaren funtzionamendurako, eta behin erabilerako jarraibideak eta taldeen betebeharrak jasota zabaldu dituzte ateak.

Bilera, irtenbidea adosteko

Urri bukaera ezkeron izan dute itxita kuartela musika taldeek. "Egonaldi luzea" izan da, haien esanetan. "Herria martxa hartzen zihola ikusten genuen, eta gu, berriz, geldi. Gainera, musikari profesionalek aukera izan dute lan egiteko eta guk, ez; ondorioz, txikiak are eta txikiago eta handiak are eta handiago egiten ari ziren", adierazi du Karlos Lopezek, Kuartela elkartearen ordezkariek eta Screamer's & Sinners taldeko kideak.

Egoerari irtenbidea topatu nahian, udal ordezkariekin bilera egin zuten. "Haien jardunaren berri eman ziguten, ziztuzten zailtasunak mahai gainean jarri, eta aukera bat eman gura izan diegu. Azken dekretuan, gainera, aurreko muga gehienak kendu zirela kontuan hartu behar da", azaldu du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.

Betetzeko konpromisoa

Bi aldeek onartu duten protokoloak kuartelaren funtzionamendu "antolatua eta ordenatua" bermatu gura du. "Beste hainbat tokitan, kiroldegian, esaterako, duten antzekoa da, garbitasun eta segurtasun neurriak eta arauak jasotzen dituen", adierazi du Caberok.

Entseatzeko baimena astelehenetik zapatara bitartean izango dute -10:00etatik 21:00ak arte-. "Horren barruan pilaketarik ez egoteko ordutegiak adostuko dituzte beraien artean", gaineratu du zinegotziak.



Ainhoa Cabero zinegotzia eta Karlos Lopez, Kuartela elkartearen ordezkariek. M. ALTUBE

Kuartela elkartearen kideek araudi hori betetzeko konpromisoa hartu dute, eta Lopez pozik agertu da, "aurrerapauso handia" izan delako dio: "Bagenuen Udalarekin elkartzeko eta elkarlanean jarduteko gogoia, ez bakarrik

COVID kontu hau dela eta; izan ere, behar asko ditugu". Ildo horretatik, eraikinean hobekuntza batzuk egiteko konpromisoa hartu du Udalak.

Herriko taldeak "bultzatzea"

Azken urteetan "indartu" egin da elkarteak, eta, musikariek gain, dantzariak, larrua lantzen dutenek eta serigrafia tailerrek ere badute tokia kuartelean; 100 bat lagun batzen ditu eraikinak.

Elkarteko kideek beste proposamen batzuk ere egin dizkiote Udalari: "Herriko kultura geldi ikusten genuen, eta zera proposatu genien: zergatik ez bultzatu herriko taldeak? Esaterako, hilabete behin, herriko musika, dantza edo antzerki taldeek emanaldiak eskainita Arkupen". Oraingoan, ez dute ezer lotu, baina zabalik geratu da bidea. "Lehentasuna eraikina zabaltzea izan da; aurrerago zehaztuko dugu gainerakoa", dio Caberok.

Bien bitartean, musikariak hasi dira lanean: batzuk, uda parteko kontzertuak gertatzeko; eta beste batzuk, diskoak. Screamer's & Sinners taldea, esaterako, diskoa grabatzeko zain dago urtarrila ezkeron.

Protokoloa

- Desinfekzio orokorra, erabiltzen hasi aurretik.
- Lokalen aireztapena bermatu.
- Lokalen desinfekzioa entseguen ostean.
- Komunen desinfekzioa erabilera ostean.
- Solairuetan hidrogela eta biruzida egongo da.
- Txandakako antolaketa: pasillo bakoitzean aldiro lokal bakarria erabili.
- Gela bakoitzean, gehienez, lau lagun; dantza geletan, zortzi.
- Maskara, derrigorrezkoa; salbuespena, haize instrumentuen entseguak.
- Ordutegia: 10:00-21:00, astelehenetik zapatara.

Zazpiko futbol zelaia, oraingoan, entrenatzeko bakarrik

Herritarrendako itxita egotearen arrazoia da "segurtasun neurriak bermatzeko ezintasuna"

M.A. ARETXABALETA

Kiroldegien aurrealdean kokatutako zazpiko futbol zelaia entrenamendu saioetarako bakarrik zabaltzen dute azken hilabeteetan, eta herritarrek ezin dute hori erabili. Honela adierazi du Asier Mujika Kirol teknikariak: "UDAK eta ikastetxeek erabiltzen dute zelaia hainbat saioetarako, eta haien ardura da edukiera zein gainerako segurtasun neurriak zaintzea. Herritarrei zabalduz gero, ez dago inor hori zaintzeko, ezingo litzateke bermatu segurtasuna".

Jendea sartu izan dela onartu du, eta ertzainek bota izan dituztela.

Koldo Zubillaga kirol zinegotziak, ildo beretik, zera adierazi du: "Sei lagun baino gehiago ezin direla elkartu aire zabalean adierazi zuen LABIk eta hori bete beharra daukagu. Gure nahia zelaia lehenbailehen zabaltzea da baina, oraingoan, ezin dugu".

Iturri gorri pilotalekua, osterara, erreserba daiteke palan jokatzeko: "Edukiera arazorik ez dago kasu horretan, sei lagun baino gehiago ez dira elkartzen eta".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Iturria aterata eta farola botata

Aste bukaeran hainbat apurketa egin dituzte herrian; besteak beste, Markole inguruko iturria atera, Deba ibai alboko pasealekuko farola bota eta bertako argazki zaharra lapurtu.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Pentsioen aldeko elkarretaratzeak astelehenero

Basotxo erretiratuen elkartearen zuzendaritza batzordeak gogorarazi gura du astelehen guztietan elkartzen direla Herriko Plazan (12:00). Gutxieneko pentsioen igoera eskatzen dihardute, elkarretaratzeekin, Gipuzkoako erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak egindako deiarekin bat eginez, eta herritarrek ere gonbidatu dituzte horietara.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Hiru eguneko egitaraua nerabeen aisialdirako

Atxagazte gaztelekuak eta kale heziketa zerbitzuak hainbat ekintza antolatu dizkiete nerabeei datorren asterako, eta 40 bat gaztek eman dute izena; aisialdi ohitura osasuntsuak sustatzea da helburua, natura eta kirola ardatz hartuta

Mirari Altube ARETXABAETA

Opor egunak dituzte nerabeek datozen bi asteetan, eta, aisialdi "ohitura osasuntsuak" sustatze aldera, hiru eguneko proposamena egin diete Atxagazte gaztelekuak eta kale heziketa zerbitzuak 12 eta 16 urte arteko gaztetxoei.

Astelehenean, martxoaren 29an, *Hi selfie* lehiaketa izango dute; martitzenean, mendira irteera; eta eguaztenean, kirol topaketak: mahai-futbola, ping-ponga, *beisbol-pie* eta boleibola. "40 bat nerabe elkartuko dira, eta bihar zehaztuko ditugu ekintza guztiak haiekin", adierazi du gaztelekuo begirale Josu Irurek.



Gaztelekuo Josu Irure eta Itsaso Orbegozo eta Julen Fernandez kale hezitzaileak. M. A.

Kale heziketa zerbitzuan, lau talde

Kale heziketa zerbitzuak ere hartu du parte egitaraua zehazterakoan, eta zerbitzu horretan diharduten nerabeei ere bideratu dizkiete ekintzak. "Aisialdi ohitura osasuntsuak sustatzea da helburua herri mailan, naturarekin eta kirolarekin zerkusia dutenak", adierazi du Julen Fernandez kale hezitzaileak, eta gaineratu: "Gure zerbitzuari dagokionez, gazteak identifikatzea ere gura dugu".

Fernandez iraila ezkerok dabil lanean Aretxabaletako gaztelekuoekin, eta haren lankide Itsa-

so Orbegozok urtebete darama. Gaur egun, lau talderekin elkartzen dira astelehen, eguazten eta egubakoitz arratsaldeetan; 11 eta 18 urte arteko 30 bat lagunekin, hain zuzen ere. "Gaztelekuan baino talde txikiagoetan egiten dugu lan guk, eta behar espezifikoei heltzen diegu; harreman beharrei, esaterako. Adin tarte bakoitzean eta gazte bakoitzak dituen behar zehatzak identifikatzea eta lantzea izaten da asmoa", argitu du Fernandezek.

Kale heziketa zerbitzuko talde batek dagoeneko hartu izan du

parte gaztelekuo ekintzetan, eta gainerakoak ere gonbidatu dituzte egunotan jarduteko.

Umeendako ekintzak ere bai

Loratu ekimenak, bestetik, 9 eta 12 urte arteko umeendako ekintzak antolatu ditu, datorren asteko hiru egunetarako (10:00-13:00), *Naturan jolastuz* leloarekin. Astelehenean, Lehen Hezikuntzako laugarren mailakoak elkartuko dira; martitzenean, bosgarren mailakoak; eta eguaztenean, seigarrenekoak. Ekintza eta jolas asko iragarri dituzte.

Umeentzako emanaldiak izango dira Pazko astean Arkupen

'Pepa ta Kutxo' clown ikuskizuna eta 'Erreka Mari' txotxongilo emanaldi ezaguna eskainiko dizkiete

M.A. ARETXABAETA

Apirileko kultura egitarauari neska-mutikoendako saioekin emango diote hasiera. Hilaren 8an, Xilipurdi antzerki taldeak *Pepa ta Kutxo* emanaldia eskainiko du (17:00). Clown ikuskizuna da eta pailazo klasikoen jokoak, mimoa, objektuen antzerkia, absurdoaren antzerkia eta beste hainbat elementu nahastuko dituzte ordubete gozagarria eskaintzeko umei.

Apirilaren 11n, ostera, txotxongiloen txanda izango da (17:00), eta Rosa M. Martinezek *Erreka Mari* lan ezaguna eskainiko die.

Pintura erakusketa

Erakusketa aretoan, ostera, Irati Garaitonandia aramaioarraren pintura lanek izango dute lekua apirilaren 8tik aurrera. 11 urte ditu hark, eta muskuluen kon-



Pepa ta Kutxo pailazoak. XILIPURDI

trolari, koordinazioari eta mugimenduari eragiten dion nahas-mendu neurologikoa du. Sei urte daramatza Idoia Elexpuru pintura irakaslearekin lanean, eta urteotan egindako lanak erakutsiko ditu, genero abstraktuan egindakoak.

Hogei bikotek hartuko dute parte frontenis txapelketan

Izan Bidea binakako frontenis txapelketa antolatu du Aretxabaletako Sarek, eta bihar eta etzi jokatuko dute Iturri Gorri pilotalekuan. Hogei bikotek jardungo dute nor baino nor gehiago, eta antolatzaileak oso pozik agertu dira txapelketak izan duen harrera beroarekin.

Bihar, zapatua, 08:30ean hasiko dituzte partidua, eta 18:30

bueltan emango diote amaiera lehen jardunari. Domekan, ostera, 09:00etan jokatuko da lehenengo partidua, eta finala 14:00 inguruan izango da.

Izan Bidea dinamika abian jarri zutenetik herrian urtebete baino gehiago pasatu da, eta aldarrikapena zabaltzeko beste bide bat izango da frontenis txapelketa: "Gaur egun Zaballako espetxean dagoen Garikoitz Garciari graduen progresioa ahalik eta azkarren aplikatzea eskatzen gabilta".

Odontologia estetikoa Endodontzia Inplantologia	Ortodontzia PADI zerbitzua Hortz protesiak
Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00 Ostiralean: 09:00-16:00	
Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55	



Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako eraikina. IMANOL BELOKI

Teilatuko filtrazio arazoa konpontzea erabaki dute

Luis Ezeiza Herri Eskolako teilatuko isolamendu arazoak ditu, eta euria egiten duenean ur filtrazioak izaten dira goiko solairuan. Hori horrela, osoko bilkuran hizpide izan zuten lan horien gaineko prozedura egiteko modua, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoko ohiko bilkura telematikoa izan zuten, martitzenean, udalbatzako kideek. Zerbait tramite izan zituzten hizpide, eta horietako baten kreditu aldaketa bat onartzerakoan, prozesua izan zuten berbagai. Hain zuzen ere, Luis Ezeiza Herri Eskolan egin beharreko obraren harira.

Luis Ezeiza Herri Eskolako teilatuko isolamendu arazoak ditu, eta euria egiten duenean ur filtrazioak izaten dira goiko solairuan. Hori horrela, obra egitearen alde agertu ziren udalbatzako kide guztiak, eta, kreditu aldaketa aho batez onartu arren, EH Bilduko kideek bi zehaztapen egin gura izan zituzten, nahiz eta lanak egitearekin ados egon.

Oposizioaren bi zehaztasun

Nestor Arana Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak adierazi zuen lan horien prozesuarekin arduratuta daudela, eta bi ekar-

pen egin gura izan zituen: "Iaz hasi zen lan horien lizitazioa, abuztuan, eta, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eman arren, ez zen exekutatu, eta aurtengo aurrekontuetan ez dago sartuta. Jasoko dugu laguntza? Horrekin batera, bi ekarpen egin nahiko nituzke lizitaziora begira: bate-tik, parekidetasun irizpidea izatea. Enpresei eskatu egin beharko genieke berdintasun plana. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, pasa berri da, eta, ikastetxe baten-tzako lana izanda, Eskoriatzako Udala eredu izan beharko litza-keela uste dugu. Honekin bate-ra, egin beharreko lanak mate-rial birziklagarriekin egitea ere eskatzen dugu. Esan moduan,

**BERDINTASUN PLANA
ETA MATERIAL
BIRZIKLAGARRIAK
ERABILTzea ESKATU
ZUEN OPOSIZIOAK**

gure baietza ematen dugu, baina ikastetxe honek beste hainbat behar ere baditu, eta aurrera begira etor daitezkeen aurrean ondo antolatu behar dugu".

Legeak esaten duena jarraituz

Horren ildora, Josu Ezkurdia EAJko bozeramaileak adierazi zuen prozedura legeak esaten duena jarraituz egin dela: "Aurrekontuetan ez egon arren, beste hainbat proiektuekin moduan gertatzen da hemen. Ezarri barik egon arren, aurrekontuetan sartzen dugu. Berdintasun planari eta jasangarritasunari erreparaturaz, berriz, pleguetan esaten dena kontratistek bete egin behar dute, legeak dioena jarraituz". Horrekin batera, ikastetxeak zaindu beharra dagoela azpimarratu zuen: "Herrian bi ikastetxe ditugu, eta biak zaindu behar ditugu. Lan hau presazkoa zen, gainera..."

Eskolako lanak opor garaian egitea aurreikusten dute, uztaila eta abuztua bitartean.

Ilusioa eta umorea Hodei magoaren ikuskizun berrian

'Harritzearen abilezia' magia ikuskizunaren bi saio izango dira: helduentzat eta familientzat, hain zuzen

I.B. ESKORIATZA

Zapatuan eta domekan, bihar eta etzi, Hodei magoaren *Harritzearen abilezia* ikuskizuna izango da Zaldibar antzokian. Inpaktu handiko ekoizpena izango da ikusgai, joko landuekin, ilusio handiekin eta ideia originalekin osatutakoa. Zapatuan 19:00etan helduentzat zuzendutako ikuskizuna izango da eta domekan, familiei zuzendutakoa, 17:00etan.

Sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian daude salgai; zapatuko saiokoak bost euro balio du

eta domekakoak, hiru. Aldez aurretik saltzen ez direnak Zaldibar antzokiko leihatilan salduko dira ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.

Oholtza gainean egongo den Hodei magoaren azken lau ikuskizunetako ideia onenak batzen ditu proiektu horrek, eta 2020ko abuztua ezker dago proposamen eszeniko ero hori ikusgai. Izan ere, ikus-entzuleak magoen dilemari buruz hitz egitera gonbidatzen dituen ikuskizuna da; horren harira, ilusioa eta en-gainua ditu hizpide.

Udaberriko ekintza bereziak antolatu dituzte gaztelekuan

'Hi selphie' lehiaketa, Atxorrotzeko iluntzea ikustea eta ping-pong eta mahai-futbol txapelketak antolatu dituzte

I.B. ESKORIATZA

Aste Santuan ekintza bereziak egin ohi dituzte Eskoriatzako gaztelekuko kideek, eta aurtun ere, 12-16 urte bitarteko nerabeei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dituzte martxoaren 29rako, 30erako eta 31rako.

Martxoaren 29an, *Hi selphie* lehiaketa izango dute, nerabeen artean gustukoa izaten dena. "Herri osoan zehar arituko gara ibilbide bat jarraituz, gehienez sei laguneko taldeetan. Guk irudi bat, koadro bat, egoera bat... eman, eta *selfie* edo argazki ba-

ten bitartez birsortu beharko dute", adierazi du Miren Zubillagari, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak.

Martxoaren 30ean, aldiz, iluntzea ikustera joango dira Atxorrotxera. Afari-merienda egingo dute, nork bere jana eramanez, eta frontalak eramateko ere eskatuko diete nerabeei. Amaitzeko, hilaren 31n, ping-ponga eta mahai-futbola gaztelekutik kanpora atera, eta txapelketa egingo dute. Eguraldi txarra bada, berriz, frontoian egingo dute ekintza.

OHARRAK

Atxorrotx Kultura Elkarte

Atxorrotx Kultura Elkarte baxkideen urteroko batzar orokorra izango da martxoaren 27an, zapatuan, 11:00etan, kultura etxean.

'Literatura Juntaixe'

Liburu gomendioak egingo dituzte eta musika zuzenean izango da, apirilaren 16an, 19:00etan, Zaldibar antzokian.

Soinu eta argiztapen ikastaroa

Apirilaren 17an eta 24an eta maiatzaren 8an, formatu txikiak kontzertuetarako argiztapen eta soinu teknikak erabiltzen irakatsiko du Josu Lazkanok.

Iker Eskibel azkarrena Fiteroko lasterketan

Nafarroako Fitero herrian Iker Eskibel (Oreka) txirrindulari eskoriatzarra izan zen garaile, domekan, BTT 2021eko Caja Rural Kopako bigarren proban. Haize gogorrari aurre egin, sufritu, eta amaieran erasoia jota, bera izan zen azkarrena

Imanol Beloki ESKORIATZA

Nafarroako Fitero herrian izandako BTT 2021eko Caja Rural Kopako bigarren proban Iker Eskibel eskoriatzarra izan zen garaile, lasterketa gogorraren ostean. Helmugara bakarrik iritsi zen, eskua altxatuta, eta irribarre batekin egin zituen azken metroak.

Iker Eskibel (Oreka), Iñigo Sagardoy (Salea-Conor) eta Dario Silvestre (SH Metalgraf) izan ziren lasterketako protagonista nagusiak. Izan ere, hirurak indartsu irten ziren proba hasieratik, gainerako txirrindulariengandik nabarmenduta. Eskibel hirugarren itzulian saiatu zen erasoia jotzen, baina haize zakarrak bakarrik joatea eragotzi zion.

Ezustearen ostean, garaipena

Lasterketako podiuma hiru txirrindularien artean argituko zela zirudienean, ezustekoa atetik iritsi zen. Miquel Fauser (Ciclos Benavent) hirukotea harrapatu zuen, eta aurretik jarri zen, lasterketako igoera luzeenean. "Ikaratu egin nintzen ikustean, Colina Tristegatik ezagutzen nuelako eta zer egiteko gai den banekielako...", aitortu du Iker Eskibelek, "Metro batzuk aurrera egin zuen



Iker Eskibel txirrindulari eskoriatzarra, helmugara iritsi zen unean. ITZALAK PHOTOGRAPHY

berak, gurekiko tartea utziz, eta, Iñigo Sagardoyk ezin zuela zuloa estali ikusita, estutu egin behar izan nuen harrapatzeko. Behin harrapatuta, aurre hartu nion, eta lasterketa buruan jarri nintzen orduan".

Dena emanda, garaile

Behin erasoia neutralizatuta, Eskibelek beste txirrindulariekiko tartea ireki zuen igoeraren azken metroetan. "Beherantz egin nuen guztiarekin", zehaztu du eskoriatzarrek. "Edo hiltzen nintzen edo helmugara iristen

nintzen". Azkenean, Iker Eskibel izan zen lehenengoa helmugako zinta zeharkatzen, eta, besoak gora altxatuta, alde dezentearekin amaitu zuen lasterketa. Proba amaitu zenean, gainera, garaipena bere izebari eskaini gura izan zion.

Apirilaren 18an Dicastillon

BTTko Caja Ruraleko Kopa Aste Santuaren ostean itzuliko da. Hain zuzen ere, apirilaren 18an Dicastillon izango da lasterketa, Nafarroako txapelketaren ohiko zirkuituetako batean.

zioan sartuta dago. Josteko makina beharrezkoa izango da bigarren saiorako, eta ez duenak abisatu egin beharko du. Saioan izena emateko 658 75 13 75 telefono zenbakira deitu daiteke, edo Whatsapp bidali.

Martxoko hiru egubakoitzetan izan dira masterclass saioak Lurdes Martinez jostunarekin, eta honakoa, hileko azkena izango da. Orain artekoen arrakasta ikusita, aurrera begira, bestelako saioak ere antolatzea ez du baztertzeko Martinezek.

Joskintza teknika berriak ikasteko saioa izango da gaur

Makrame teknika eta josteko makina izango dira protagonista gaurko masterclass saioetan

I.B. ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, bi ikastaro eskainiko ditu Lurdes Martinez jostunak, kultura etxean. Bi saioak arratsaldean izango dira: Bata, 15:00etatik 18:00etara bitartean, makrame teknikaz mu-

ral txikia egiten ikasteko, eta, bestea, 18:00etatik 21:00ak arte, lentzeriazko aro gabeko sujeta-doreak egiten ikasteko.

Saio bakoitzak 60 euroko prezioa izango du, eta bertan erabiliko den material guztia pre-



Dorletako Santutegian egindako omenaldian ateratako talde argazkia. IMANOL SORIANO

Gatzagatik Erromara bizikletan egindako bidaiagatik omendua

Dorletako Ama txirrindulari elkartearen aitortza jaso du Jose Luis Saez de Olazagoitia gasteiztarrek

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

1960. urtean egin zuen Jose Luis Saez de Olazagoitia gasteiztarrek Gatzaga eta Erroma arteko bidaiaria, bizikletaz, Dorletako Ama txirrindularien patroiz izateko Elizaren baimena jasotzeko asmoz. Hiru lagunek egin zuten bidaiaria "sinboliko" hura, eta, egitasmo hura aitortzeko, Dorletako Ama txirrindularitza taldeko lagunak omenaldia egin zioten joan den zapatuan.

Aita santuak audientzia berezian hartu zituen Gatzagatik abiatu ziren hiru txirrindulariak. "Aurretik eginda zeuden hainbat

eskaera eta gaia mugitzen hasia zegoen formalki. Hala ere, guk bidaiaria sinboliko hura egin nahi izan genuen, eta, hein batean, beharrezkoa izan zen helburua lortzeko", adierazi du Saez de Olazagoitiak.

Bidaiaren zailtasunak

Orduan halako bidaiaria bat egitea ez zela erraza nabarmendu du omendua: "Egunero 200 kilometro inguru egiten genituen, baina kontuan izan behar da orduko materiala ez zela egungoa; orduko bizikletek egungoek baino gehiago pisatzen zuten..."



Hiru mojarren alboan dagoena da Saez de Olazagoitia. DORLETAKO AMA

Erroman aita santuarekin

Gatzagatik Erromaraino bizikletan iritsi berri zireneko argazkia da goikoa, eta eskuinaldean hiru mojarren alboan dagoena da Saez de Olazagoitia. 1960ko abuztuaren 8an ateratakoa, Joan XXIII.a aita santuak audientzia berezian hartu zituenekoa da.

"Zaila izan da dimititzea, konpromiso bat nuelako"

ELENA LETE EAJ-KO BOZERAMAILE OHIA

2016tik 2019ra alkate eta ordutik oposizioiko buru izan denak "arrazoi pertsonalak" argudiatu ditu kargua uzteko: "Ez da galerarik egongo, esku onetan uzten dut nire lekua"

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk bere dimisioa publiko egin eta berehala erantzun ditu Elena Letek (Bergara, 1965) GOIENAREN galderak. Zer hobetu egon dela aitortu arren harro dago egindakoaz, eta esker on hitzak ditu EAJrentzat, Udaleko langileentzat eta Bergarako herriarentzat.

Zergatik erabaki duzu dimititzea?

Topikoa dirudi, baina pertsonalak dira motibo nagusiak. Nire familiak dedikazio berezia eta osagarria eskatzen dit eta bate-raezina da gaur egun Udalean dudak zinegotzi karguarekin. Horrez gain, EAJ barruan kide berri bat sartzea ona izango da. Ez da galerarik izango taldean; alderantziz, haize freskoa eta ideia berriak ondo etorriko dira. Esku onetan uzten dut kargua.

Nor izango da zinegotzi berria?

Martin Etxaniz izango da. Ekonomia munduan ibilbide profesional oparora eta ezagutza handia duena. Gaitasun handiak dituela uste dut Bergararen alde lan egiteko. Oposizioan daroagun urte eta erdi honetan, gainera, sustapen batzordean parte hartu du, eta, beraz, ezagutzen du apur bat Udalaren funtzionamendua.

Zaila izan da erabakia hartzea?

Bai. Azken sei hilabeteetan okerrera egin du nire egoera pertsonalak, eta eusten ibili



Elena Lete, Arrasaten bertan egiten du lan, eguztaren arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

naiz. Zaila da erabakia hartzea, askotan esan dudak moduan, konpromiso bat nuelako Bergararen alde lan egiteko; konpromiso horiek ahalik eta ondoen betetzen saiatu naiz urte hauetan. Pertsonalki zaila izan da kargu hau uztea, lan oso aberasgarria eta oparora delako.

2016ko urtarrilean alkate kargua hartzeko erabakia zaila izan zen?

EAJren zerrendan nindoan, eta, momentuan bertan proposamena ez espero arren, erantzukizunagatik besterik ez bada, baiezkoa eman nuen. Banuen

beldurra eta banituen hainbat zalantza, baina argi nuen pausoa eman behar nuela. Orain, gehiago kostatu zait, hartutako konpromiso bati uko egitea delako. Baina lasai ere banoa, talde ona dagoelako atzetik.

Eta nolako esperientzia izan da zure herriko alkate izatea?

Ona. Askotan esan izan dut munduko lanik politena dela, eta, seguruenik, gogorrena ere izango da. Dedikazio handia eskatzen du eta ia dena lehen pertsonan bizitzen da, eta horregatik gogorra eta sutsua da.

Baina, bestetik, izugarri asetzen duen lana da. Harro nago bere garaian emandako pausoz eta gerora egindako lanaz. Noski, badira hobetu edota beste era batera egingo nituzkeen gauzak, baina hori bera da bizitza...

Zein izan zen unerik gogorrena?

Boluko lur-jausia, zalantza barik. Oso une gogorra izan zen eta egoera zail bat kudeatu behar izan genuen. Uste dut ondo egin geniola aurre, eta malda egonkortzeko proiektu oso bat prest utzi genuen, nahiz eta orain bertan lozorroan dagoen.

Eta unerik edo lorpenik gozoena?

Bat baino gehiago egongo dira, baina oso pozgarria izan zen Pauso Berriak programari esker Markel Barrocal moduko pertsona bat Udalerako lanean jartzea; oso une polita izan zen hori. Gero, gauzatutako proiektuen artean, Boluko frontoia estali izana pozgarria izan zen, eta baita, nola ez, Seminarixoa martxan jarri izana. Urte eta erdiko lan mardula behar izan genuen aretoa martxan jartzeko; egindako lana hor geratzen da.

Seminarioko parkingera ere lanean sendo ibili zineten, baina ez da gauzatu. Arantza geratu zaizu?

Bai. Lan eta dedikazio handia ekarri zigun, sinistuta geundelako parking hori beharrezkoa zela Bergararentzat. Proiektua oso aurreratuta utzi genuen eta espero genuen gauzatuko zela. Pena handiarekin geratzen naiz. 2019an alkategai aurkeztu zinen, baina ez zenuen helburua lortu. Kolpe gogorra izan zen?

Penaz hartu genuen, hainbat proiektu interesgarriren jarripena etetea ekarri zuelako. Jarraipenik gabeko proiektu adierazgarriena parkingarena izan zen, baina agintaldi osorako plan zehatz bat genuen ezin izan

duguna bete; ilusio handia genuen jarrita agintaldi honetan. Oposizioan ere ilusioz aritu gara.

Zelan oposizioan? Eragin daiteke?

Hasieratik esan genuen oposizioan ere gure programa garatzeko egingo genuela lan. Horretarako ahalegina egin dugu, eta ahalegin horretan jarraituko dute. Egia dena da udal antolaketa berriarekin oposizioaren jarduna oso mugatua dela. Hiru batzorde bakarrik daude egun eta bistakoa da galerak egon direla, maiztasuna galdu delako edota teknikari batzuk egoten ez direlako. Batzordeak dira Gobernuaren eta oposizioaren elkarlanerako foroak eta egitura honekin izugarri zailtzen da elkarlan hori.

Beti izan duzu EAJren babesa?

Bai, eta esker ona adierazi nahi dut. Jaurlaritzan departamentu bateko zuzendari, Udal Gobernuko zinegotzi, alkate edo oposizioiko kide izan, beti izan dut alderdiaren babesa. EAJrendako eta azken urteetan ondoan izan dudak taldearendako esker on hitzak besterik ez daukat. Talde-lanean oinarritu da nire jarduna, eta oso talde langilea eta ekintzailea izan dut ondoan.

Bizitzaren fase berri bati ekingo diozu orain. Nola irudikatzen duzu?

Familiak denbora osagarria behar du eta espero dut aukera izatea etxekoei denbora hori dedikatzeke. Hori bai, Arrasateko Udaleko jarraituko dut lanean.

Birusak gogor astindu du zurean?

Beste etxe askotan moduan, oso gogorra izan da gurean ere.

"BOLUKO LUR-JAUSIA IZAN ZEN KUDEATU BEHARREKO EGOERA ZAILENA; ONDO EGIN GENION AURRE"

Sarrerak geratzen dira oraindik Aste Santuko kultura eskaintzan

Hiru musika talderen zuzenekoak, antzerkia, txotxongiloak eta zinema izango dira, besteak beste, Seminarixoan

J.B. BERGARA

Aste Santuko kultura eskaintzaren barruan, askotariko ekitaldiak izango dira Seminarixoan. Apirilaren 1ean, Dupla taldearen kontzertua (19:00); apirilaren 2an, *Atzerrian lurra*

garratz antzezlan (19:00); apirilaren 3an, Pelax taldearen kontzertua (19:00); apirilaren 7an, Camden Town akademiaren eskutik, nerabeei zuzendutako hiriko dantzen ikastaroa egingo dute Seminariko patioan

goizean zehar; apirilaren 8an, *Noa uy, uy, uy* umeendako txotxongilo emanaldia egongo da (18:00); apirilaren 9an, Izeder dendaren eskutik, ume eta nerabeendako eskulan tailerrak izango dira Seminariko patioan goizean zehar; eta apirilaren 10ean, Ibil bedi taldearen kontzertua egongo da (19:00). Horrez gain, apirilaren 4an, 5ean eta 11n, umeendako zein helduendako zinema ere egongo da.

Udalak Kultura Mahaiarekin elkarlanean osatutako egitaraua



Dupla, Arrasateko zuzeneko baten. GOIENA

da honako hau, eta sarrerak martxoaren 18an jarri ziren salgai; gehiago edo gutxiago izan, ekitaldi guztietarako sarrerak geratzen dira oraindik, www.seminarixoa.eus webgunean.

Sarrerak online erosteko aukera dago, baina Seminarixoko leihatilan ere eros daitezke; Seminarixoko edozein jarduera hasi baino ordubete lehenago dago sarrerok erosteko aukera, eta, bestela, eguenero ere zabaltzen da leihatila, 18:00etatik 20:00etara.

Arrizuriaga egonkortzera, kultura proiektu baterako

Udal Gobernuaren agintaldi osorako 'Bergara Izan, Bizi, Ekin' planak 2021erako jasota dituen konpromisoen artean dago Arrizuriaga egonkortzeko 300.000 euro bideratzea; Zubieta kalea urte amaieran hasiko dira berritzen, 500.000 bat euroko aurrekontuarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Agintaldi osorako *Bergara Izan, Bizi, Ekin* planaren barruan, Udal Gobernuak 2021erako dituen konpromisoen berri eman du asteon. 64 dira konpromisoak, zerrenda luzea, baina badira nabarmendu beharreko batzuk. Hori bai, proiektu zehatzez harago, diote "lehentasun nagusia" dela bergarar guztien oinarritzko beharrak bermatzea: "Pandemiak agerian utzi du zaurgarrienen egoera uste baino okerragoa dela".

Zubieta: makinak, aurtan lanean

Konpromisoen artean dago, esaterako, Zubieta eta Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko proiektua. Atzo, kalea itxita egon zen, fatxada bat konpontzeko lanean eraginda, eta nahi buruhauste eragin zituen; gaur-gaurkoz, herri barruko mugikortasunaren ardatz nagusietako bat den seinale. Kale osoa berriro urbanizatzeko lanetarako 500.000 euro inguru aurreikusten dira eta lanak urte bukaeran hasiko lirateke. Datarik zehaztu ez badute ere, bizilagunekin elkartuko dira, aurrez idatzita dagoen proiektua partekatuko. "Baditugu auzotarrek zehaztu beharreko kontu batzuk. Aukerak mugatuak dira, baina bizilagunekin egon nahi dugu", dio Udal Gobernuak bozeramaile Nagore Inurrategik. Proiektuan ez dago jasota gaur egun Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak okupatuta duen eskola zaharrean aldaketarik egitea, baina Gobernuak dio gune horri ze erabilera eman ere auzotarrek landu nahi duela.

Arrizuriaga: proiektua, "bidean"

Arrizuriagako eraikina egonkortzearena da 2021erako beste konpromiso garrantzitsu bat. Inurrategik dio proiektua "eskatzeko bidean" dagoela, baina Udalak alde aurretik eskatutako memoria teknikoan aurreikusten



Egoera txarrean dago Arrizuriaga, eta parkea itxita dago; aurtan egonkortuko dute. J.B.

PROIEKTU ZEHATZEHARAGO, OKERREN DAUDEN HERRITARRAK LAGUNTZEA IZANGO DA LEHENTASUNA

da jauregia egonkortzeko 300.000 euro inguru beharko direla. Lanak 2021ean hasi eta bukatzea espero dute, eta ondoren hasiko lirateke Arrizuriagarako kultura proiektua idazten. Diotenez, Udalak bideratzaile rola jokatu du bergararren eta eragileen artean, kultura sorkuntza bultzatzeko eta proiektu eraldatzaileak martxan jartzeko.

San Joxepeko eguneko zentroa

Beste konpromiso bat da San Joxepeko eguneko zentro arina martxan jartzea. Diputazioak kudeatzen duen Ernai kaleko zentroa martxan jarri zenetik, hutsik dago San Joxepekoa; ez da egokitzapen lan handirik egin behar zentroa martxan jartzeko, baina eskaini beharreko zerbitzua zein den baloratzen ari da Udal Gobernuak, beharrak zeintzuk diren identifikatu ahala.

Ortuak: partaidetza prozesua

Bestalde, Bergara jasangarriagoa sustatzeko asmoz, ortu komunitarioen proiektua garatu nahi dute aurtan. "Interesatuekin partaidetza prozesua jarriko dugu martxan, ortu komunitarioen helburuak zeintzuk izan behar diren erabakitzeko. Azterketak egin izan dira aurrez Udalean eta ortuak jartzea bakarrik bada helburua azterketa horrek dio leku egokiena San Joxepe atzeko eremua dela, baina horrek ez du esan nahi San Joxepen jarriko direnik. Partaidetza prozesuak esango du zertarako nahi ditugun ortuok eta Udaletik zer eskaini dezakegun", esan du Inurrategik.

Gainerako konpromisoen artean aipatu daitezke, besteak beste, Bergara eukalpto gabeko herri izendatzea, etxe hutsen diagnostiko bat egitea eta emakume etxearen proiektua diseinatzea mugimendu feministarekin batera. Bestalde, gauzatu den konpromisoetako bat da bizikletendako aparkalekuak jartzea. Labegaraietan jarri dute parking estali bat, kiroldegia atzealdean, eta hurrengo Osteta kalean jarriko dute, Munibe plazatik Ikerleku kalerako tartean.

Erramu Zapatuko ospakizunik ez, baina azoka formatu txikian

Sanmartinetako harrera ikusita, Fraiskozuri plazan jarriko dute bederatzi postuz osatutako feria bihar (09:30-14:30)

J.B. BERGARA

Erramu Zapatuko jairik ez da egongo aurtan ere, baina azoka antolatu du Udalak biharko (09:30-14:30), Fraiskozuri plazan. Sanmartinetako harrera ona ikusita, erabaki dute bertan egitea Erramu Zapatuko feria. Bederatzi postu jarriko dituzte eta bertako produktuak izango dira protagonista: barazkiak, frutak, ogia, garagardo ekologikoa, gazta -ardi-gazta eta ahuntz-gazta-, gozogintza, ezti, talo eta irin ekologiko enbasatua eta askotariko pateak izango dira.



Sanmartinetako azoka Fraiskozur. J.B.

Klasikoa den bertso saioa

Kultura arloko beste ekitaldi batzuk izan dira asteon: eguaztenean, *Bideak* dokumentala ikusi ahal izan zen Seminarixoan, eta atzo, Bergarako Musika Eskolako dantzariak izan ziren San Martin plazan. Gaur, Erramu

Zapatuko klasikoa den bertso saioa izango dute, Seminarixoan (19:00): Nerea Elustondo, Xabier Silveira, Alaia Martin, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze arituko dira bertsoetan; Ibon Leibar *Txinbo* izango da gai jartzailerak. Sarrerak aspaldi agortu ziren.

Koldo Eleizalde: apirilaren 16ra arte eman daitezke izena

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen Koldo Eleizalde lehiaketan 36. edizioan parte hartzeko deialdia ireki zen otsailan, eta antolatzaileek gogora ekarri dute izena emateko epea apirilaren 16an amaitzen dela. Aurreko urteetako genero guztiak mantendu dituzte: ipuin idatzia, komikia, bertsoa, ipuin-kontaketa, antzerkia, txistek eta poe-

sia. Ikus-entzunezko lanak -antzerkia, ipuin-kontaketa, baka- rrizketa, bertso kantatua, txistek...- Internet bidez aurkeztu behar dira, euskarako webgunea erabiliz: <https://eusgara.bergara.eus/eu/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>. Idatzizkoak -ipuin idatzia, poesia, komikia, bertso idatzia...-, berriz, paperean, Bergararren Arreta Zerbitzuan, edo, modu telematikoan, webgunearen bitartez. Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 29an egingo da, Seminarixoan.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

I21
KALITEA

Enpresa legegaitza 1190/025

Berritze energetikorako ekimen pilotua Boluan

Debagoiena 2030 ekimenak gidatuta, Boluko etxe batzuk modu jasagarri, simple eta merkean isolatzeko Birgaitzen esperientzia abiatu zuten eguaztenean; 20 bat bizilagun izan ziren frontoian egindako lehen bileran, eta badira dagoeneko izena eman dutenak

Jokin Bereziartua BERGARA

Etxeetako energia eta CO2 kontsumoa murriztea eta horrekin bizilagunek dirua aurrezteko. Horixe da Bolurako aurreikusita dagoen Birgaitzen programaren funtsa. "Auzo horretan etxe asko daude 1970eko eta 1980ko hamarkaden artean eraikiak izan direnak, eta etxe horiek ezaugarri berezi bat dute: horma bien artean ganbara huts bat daukate eta ganbara huts horiek isolamenduz betez gero prezio eskuragarri baten etxeko konforta nabarmen hobetuko litzateke", adierazi du H-enea Living Lab enpresako koordinatzaile Eukene Barrenetxeak.

Zaharberritze energetikoa "oso modu sinplean" egiten dela dio Barrenetxeak; kanpoalderantz dauden etxeetako hormetan hainbat zulo egin, aire ganbera guztiak zelulosa isolamendua-rekin bete eta, ondoren, zulo horiek igeltsuarekin estaltzen dira -bezeroen erabakia da hormak margotzea-. Diotenez, egun erdiko berritzea litzateke.

1.300 eurotik 900 eurora

Era berean, eguazten arratsaldean Boluko frontoian egindako aurkezpenean, Barrenetxeak azpimarratu zuen berritzea egiteko gertu dauden hamar etxe-



Boluko etxe bloke bat, eguazten arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

HAMAR ETXEK PARTE HARTUKO BALUTE, INTERBENTZIOA %30 MERKATZEKO AUKERA EGONGO LITZATEKE

tara heltzean amaierako prezioa %30 murriztuko litzatekeela. Prezio estandar bat zehaztu dute: erreformaren balioa 1.300 euro ingurukoa litzateke, BEZik gabe. Aldiz, hamar bezeroen konpromisoa balute, interbentzio ba-

koitza 900 bat euro kostatuko litzateke, BEZik gabe. Zeintzuk diren abantailak? Etxeko tenperatura 1 eta 4 gradu artean berotzea, kontsumoa %24 inguru murriztea eta CO2 isurketak urtean 427 kilo murriztea eta berokuntza gastuan 80 euroraino murriztea urtero.

D2030 ekimenak gidatuta

Debagoiena 2030 ekimenak gidatutako esperientzia pilotu bat da Bolukoa, eta bultzatzaile nagusiak Acede, H-Enea Living Lab eta Ion leihoak dira.



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Mundu osora zabaldu

Iazko martxoan, begirada bat emanda, ez genuen uste soinean dabilkigun birus honek horrenbesteko oihartzuna izango zuenik eta, gutxiago, horrenbesteko lur eremua irentsiko zuenik. Santiamen batean mundu osora zabaldu da eta derrepentean hesitu beharra. Bitartean, gizarteak egin zezakeen ahalegina: maskarak erabili beharra, jende multzoak mugatu, tabernatan neurriak hartu, ordutegiak aldatu, bazterte edo konfinamendu arau zehatzak ezarri, eta abar. Aduituak biluzik harrapatu ditu. Politikariak, aurrera, atzera eta alboetara aginduak ematen, etengabe, eta, sarritan, nor bere kolkotik ateratako kontuak jaurtiz.

Mundu guztira barreiatu da koronabirusa eta oraindik herrialde asko daude txertoa jasotzeko. Afrikan herrialde mordoak oraindik ez dute ezer jaso. Kutsatze-tasa, zenbat heriotza... Auskalo. Pandemia honen borrokan mundu osoa hartzen ez den bitartean gure ahaleginak antzuak izanen dira. Hemen gaixoeekin ibili behar duten profesionalentzat ez dago txertorik oraindik. Adi, gezurrezko txertoak bidean dira.

Martxan da Mugiment, "kirol eskaintza handitzeko asmoz"

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko zein Gipuzkoako diputazioek sustatutako proiektua da Mugiment txartela, "kirola sustatu eta eskaintzeko handitzeko asmoz". Atxikitako udaletako abonatuak beste herrietako kirol instalazioetara sartzeko aukera dute; betiere, udal bakoitzak ezarritako erabilgarritasunaren arabera. Zerbitzua doakoa da

Bergarako abonatuentzat, eta, txartel birtuala denez, aplikazioa instalatu beharra dago, Google Play-n edo App Store-n. Datu pertsonalak eman behar dira: helbide elektronikoa, nortasun agiriaren zenbakia eta kirol instalazioa. Txanda hartu ondoren, beste herriko instalazioetan sartu ahal izateko, nortasun agiria erakutsi beharra dago. Gipuzkoako eta Bizkaiko 44 herri dago erabilgarri Mugiment txartela; Debagoienean, Bergaran Oñatin eta Eskoriatzan.

OHARRAK

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia

Errenta aitortpena egiteko hiru modu daude eta guztietan egin daiteke euskaraz. Martxoaren 30etik ekainaren 30era aurkeztu behar dira aitortpenak. Argibideetarako: 943 11 30 00.

'Bergara 2030 egin herrixa' plana: galdetegia

Herriko errealitatea zein den ezagutzeko diagnostikoa osatzen ari da Udala, eta herritarrei dei egin die Udaleko webgunean dagoen galdetegia betetzeko. Apirilaren 5a da epemuga.

Zeramika kolektiboaren erakusketa Aroztegin

Gaur irekiko da eta apirilaren 11ra arte egongo da zabalik *Zatika* izeneko erakusketa. Ordutegia: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Hiriko dantzak eta eskulanak nerabeentzat

Tailerrotan izena emateko azken eguna gaur, udal webgunean.

Pilota: Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketa

Kadeteetako hirugarren mailako partidua gaur, Bergararen eta Añorgaren artean. Udal pilotalekuan, 19:45ean hasita.

Interesatuak, Imaz harategira jotzeko

Barrenetxea pozik agertu da, lehen bileraren ostean badirelako izena eman duten auzotarrak: "Galdera asko izan ziren, eta bost lagunek eman dute izena. Espero dugu, gutxienez, hamar etxetara heltzea, erreforma merkeago irten dadin". Horetako bat da Alfonso Alonso bizilaguna: "Ez daukat zalantzarik, erreforma egingo dut". Interesdunek Boluko Imaz harategian eman dezakete izena.



Boluko frontoian egin zuten lehen aurkezpena, eguazten arratsaldean. J.B.



Euskararen historia soziala Bergaran proiektuaren baitan elkarriketatutako hamalau lagunen argazkiak. BERGARAKO UDALA

Bergarako historia soziala jasotzeko lanean hasita

Bergarako Udalak eta Badihardugu elkarteak abiatutako proiektua da 'Euskararen historia soziala Bergaran'. Helburua gerraosteko euskalgintzaren memoria jaso eta zabaltzea da, eta, horretarako, hamalau lagun elkarriketatu dituzte dagoeneko

J.B./J.O. BERGARA

Bergarako Udalak eta Badihardugu euskara elkarteak gerra osteko euskalgintzaren memoria jasotzeko proiektua abiatu zuten, elkarlanean, otsailean, "Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko helburuarekin". Gerraostetik 1980ra euskarari eusteko eta biziberritzeko egin zen lanaren testigantzak jaso nahi izan dituzte horretarako.

Bi lan nagusi egingo dituzte: orain arteko grabazioak aztertu eta pasarte onenak aukeratzeaz gain, hamabost elkarriketa berri ere egingo dira.

Askotariko eremuetatik

Laboratorium museoan egin dira orain arteko hamabi elkarriketak, eta bide beretik jarraitzeko asmoa dute datorren astean ere. Badihardugu elkarteko Idoia Etxeberria ari da elkarriketak egiten, eta hamalau dira dagoeneko hartu dituen bergararrak.

Askotariko alorretatik –hezkuntza, antzerkigintza, bertso-larritza...– euskarari ekarpena egin dioten herritarrak dira; izan ere, egitasmoaren helburua

horixe da: euskalgintzaren memoria jasotzea eta zabaltzea, herriko euskararen historia soziala ezagutarazteko.

"Aurrelan handia"

Bergarako Udalak azaldu du Udaleko Euskara Zerbitzuak "aurrelan handia" egin duela pertsona egokiak bilatzen eta aukeratzen. Elkarrizketak egin aurretik haiekin bildu dira, eta, dokumentatu ostean, honako hauek aukeratu dituzte lehenengo pasarteak grabatzeko: Jose Luis Gorrotxategi, Koldo Alberdi *Egileor II*, Maite Barrena, Jabier Mendizabal *Surra*, Rosa Narbaiza, Gotzon Bikuña, Eneko Oregi, Juan Martin Elexpuru, Jerardo Elortza, Arantzazu Narbaiza, Blanca Narbaiza, Mikel Lazpiur, Arantxa Ibarzabal eta Arantzazu Oregi.

Ahotsak proiektuaren baitan

2003an abiatutako lanari esker, Bergarako ahozko ondarearen zati handi bat ikusgai dago www.ahotsak.eus/Bergara webgunean; garai bateko Bergarako bizitza jasotzen duten 175 lagunen testigantzak dira.

HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: ttap.eus

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Herri Eskolaren proiektua bermatzea eskatu dute

Proiektu pedagogikoaren jarraikortasuna bermatzeko "konpromisoa" eskatu dio, Legebiltzarrean, Ibai Iriarte legebiltzarkideak Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzzi. 2019an Legebiltzarrak Jaurlearitzari emandako agindua betetzea exijitu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

EH Bilduko legebiltzarkide Ibai Iriartek Antzuolako Herri Eskolaren egoera "larria" dela eta bere "etorkizuna kinkan dagoela" azaldu du aste honetako Legebiltzarreko saioan. Aitzindaria den hezkuntza proiektuaren jarraikortasuna bermatzeko "konpromisoa" betetzeko eskatu dio Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuari. "2019ko irailean egoera larria zen, eta larria da oraindik ere. Eskolako klastroaren erdia baino gehiago ez da finkoa, eta sei kidek soilik daramate bost urte baino gehiago lanean eskolan; horietatik batek erretiroa hartuko du aurtengo eta beste bik, datorren urtean. Hau da, hiru kide horiek eskola uztean, bere garaian proiektu pedagogiko aitzindari hau martxan jarri zuten kide guztiak eskolaz kanpo egongo dira. Ereditu pedagogiko indartsu baten oinarria klastro finkoa izatea da, eta, horregatik, Antzuolako eskola proiektu pedagogikoa kinkan jarria dago. Konpromisoa eskatu gura diogu Hezkuntza Sailari, eta legez besteko proposamenari erantzuna eta irtenbidea emateko. Izan ere, gaur-gaurkoz, ez dago erantzunik", adierazi du Ibai Iriarte legebiltzarkideak.

Iriartek gaineratu du orain dela garaia 2021-2022 ikasturtea planifikatzeko. "Irailean egoera hau konponduta egon dadin, uste dugu orain dela ikasturtea planifikatzeko garaia. Gainera, Antzuolako Herri Eskolaren aldetik izugarritzko gogoia eta lana dago proiektu honen jarraikortasuna bermatzeko", gaineratu du legebiltzarkideak.

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak adierazi du gaiak aurrera egin dezan lanean jarraituko dutela: "Eusko Jaurlearitzak Legebiltzarraren agindua zuen. Hitz eman ziguten hori gauzatzeko zela, eta ez dute Hez-



Herri Eskolaren aurrealdeko jolas parkean herritarrak. GOIENA

ANTZUOLAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAK PEDAGOGIA PROIEKTUA SUSTATZEN DIHARDU

kuntza Saitetik gauzatu. Agindua iritsi zen Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Delegaziora, oztoporen bat bazegoen, baina Legebiltzarrak agindua eman zion, eta legea egokitzea euren esku dago. Gure bidea egin genuen, eta ikusten badugu auziak geldi jarraitzen duela, zerbait egingo dugu, izan mozio bat aurkeztea, izan Bildarratzekin bilera bat eskatzea".

Eskola komunitatea, lanean

Legebiltzarreko agerraldiak epel utzi duela Antzuolako eskola komunitatea aitortu du eskolako guraso taldeak. "Legebiltzarrean jasotako inpresioak ez hotz ez bero utzi gaitu. Azken finean, ez zen ezer zehaztu bertan. 2019an jaso genuen legez besteko proposamen hori, bertan aho batez erabaki zuten Antzuolako metodologia aurrera eramateko

bitartekoak jarriko zirela, eta, ondoren, ahozko errekonozimendua ere jasotzen jarraitu dugu. Astelehenean ahozko errekonozimendua hori ere izan zen, baina ekintzarik ez da egon, gaur-gaurkoz", azaldu du Herri Eskolako pedagogiaren bultzatzaile den guraso taldeak.

Hala ere, hezkuntza komunitateak pedagogiaren jarraikortasuna berma dadin lanean jarraituko duela argi dute: "Hezkuntza komunitatea osatzen dugunok -irakasleak, gurasoak eta Udala- lanean jarraituko dugu, lehen bezala. Hezkuntza Sailean ikusten dugu mugimendua badagoela, baina oraindik gauza zehatzik ez digute esan eta ez dute ezer egin. Izan ere, aurtengo kurtsorako zerbait egongo zela esan ziguten, eta, azkenean, ez zen ezer egon. Eskolaren pedagogia proiektuarendako berandu dator dena, baina espero dugu datorren kurtsorako, 2021-2022 ikasturterako, zerbait egitea. Espero dugu Aste Santu osterako zerbaiten berri izatea, eta, hala ez bada, orduan ikusi eta aztertu behar dugu zein bide hartu genezakeen", gaineratu dute.

Ostalaritza Aurrera plataformak mozioa aurkeztuko du

Hilaren 30eko osoko bilkuran, plataformarekin bat egiten duten herriko ostalariak mozioa aurkeztuko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

COVID-19ak eraginda Espainiako Gobernuak ostalaritza itxeko hartutako aginduak "sektorea egoera larrian" utzi duela dio Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa plataformaren mozioak. Egoera honen aurrean, agintariak neurriak har ditzatela eta irtenbideak bila ditzatela exijitzen du plataformaren idatziak.

Zehazki, bi eskaera aurkeztuko ditu plataformak hilaren 30eko ohiko osoko bilkuran. "Batetik, mozio honen bidez eskatzen dugu Gipuzkoako ostalaritzaren egoeraren berri ematea Eudeli, Foru Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlearitzari. Bestetik, aipatutako erakundeei eskatzea, martxoaren 14az geroztik ostalariok bizi dugun egoera ekonomikoari irtenbidea ematea, atzeraeraginarekin. Hau da, Gipuzkoako ostalaritzako autonomo hileroko gutxieneko

soldata aitortzea eskatzen dugu eta berori bideratzeko beharrezkoak diren izapideak burutzeko, alegia", jasotzen du mozioak.

Ostalarientzako laguntzak

Herriko ostalari guztiak oraindik dirulaguntzak jaso ez dituzten arren, laguntzak horiek ostalariengana iristeko dekretua sinatua duela dio alkateak, eta, beraz, tramitea eginda izanik, epe laburrean jasoko dutela. "Laguntzak bideratuta eta ebatzita daude. Bai konfinamendua hasi zenean Udalak onartutako laguntza zuzenak, eta baita ere COVID-19aren baitan egindako azpiegitura inbertsioetan laguntzeko Diputazioaren dirulaguntza dekretua", argitu du Beñardo Kortabarri alkateak.

Aurtengo, gainera, Udalak terrazen tasak ez ditu kobratuko; eta hondakinen tasak %75eko horaria izango du.



Herritarrak terrazaz gozaten. MAIDAR ARREGI

Erramuak bedekintzako dituzte domekan parrokiaren

Hilaren 28an, domekan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiaren Erramu Eguneko meza eskainiko da, goizeko hamaiketan hasita. Gainera, urteroko ohiturari eutsiz, erramuak bedekintzako aukera ere izango dute antzuolarrek. Guztia, osasun babes neurriak bermatuta. Egun horretan egingo den diru batzea Caritasendako izango da.

Komunitate energetikoa berbagai Goienar-ekin

Goienar energia kooperatibak bi hitzaldi eskainiko ditu. Apirilaren 21ean, Goienarri buruzko azalpena emango dute, eta ondoren, faktura elektrikoak eta ekainetik aurrera egongo diren tarifa aldaketek jardungo dute. Ekainaren 2an, komunitate energetikoak eta autokontsumoak jardungo dute. Biak 18:00etan Torresoroan izango dira.

Hamalau urte dira ez dela prozesiorik egiten

Andazain faltak ekarri zuen, batez ere, Aste Santuko prozesioa egiteari uzteko erabakia. Baina egiten zen, eta hiru santu prestatzen eta janzen ziren Ostiral Santuan kalera ateratzeko. Horien artean zen Lorenzo Askasibar eskultorearen 'Kristo Penitentea'

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ate joka dago Aste Santua, eta, pandemia egoerara egokitu bada ere, nork bere erara disfrutatuko ditu jaiegunok. Urte gutxian aldaketa nabarmena izan da ospakizun horren bueltan. Gizartea aldatzen doa, eta, belau-naldi nagusienek Elgetan egiten ziren ospakizunak oso presente badituzte ere, gazteenek ez dute herrian prozesiorik bizi izan.

Aurten ere izango dira liturgia jarduerak zein bijiliak herriko parrokiari, baina ez prozesiorik kalean. Dena den, parrokiako gordailuan jasota daude hala-koetarako jantziak, figurak eta bestelako osagaiak. Artelanen artean, Lorenzo Askasibar eskultore elgetarraren *Kristo Penitentea* nabarmentzen da.

Azken prozesioa, 2007an

Hamalaugarren urtea izango da honako hau Aste Santuko prozesiorik gabe Elgetan. "Azken urteotan ez da egiten", azaldu du Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik. "Egon ziren urteak prozesiorik egiten ez bazen ere santuak prestatu, jantzi eta ikusgai jartzen genituela elizan, baina ez dugu egingo aurten", gaineratu du.

2009an hartu zuten prozesioa egiteari uzteko erabakia Elgetan.



Prozesioa, San Roke kalean gora, 2007ko Aste Santuan. ARTXIBOA

2007AN EGIN ZUTEN ASTE SANTUKO PROZESIOA AZKENENGO ALDIZ ELGETAN

Irudiak pisu handikoak dira, pisutsuegiak adinekoendako, eta zailtasunak egoten ziren haiek eramateko zereginean lekukoa hartzeko prest zeuden gazteak topatzeko. Andazain lanak egiteko prest zeuden gazteak, alegia.

Erabakia ez zen bat-batean hartu. 2006an ere ez zen prozesiorik egin, andazain lanetarako jenderik ez zegoelako. 2007an egin zen, baina ez 2008an. Kasu hartan, eguraldi txarragatik. Behin betiko erabakia 2009an hartu zuten. Urteroko elizkizun bereziak izango dira, hala ere. "Eguen Santuan Jesusen azken afariaren elizkizuna eta Bariku Santuan Jesusen nekaldiaren ospakizuna egingo ditugu, biak 18:00etan. Zapatuan, berriz, 22:00etan egingo dugu Pazko bijilia", azaldu du parrokoak.



Nestor Maidagan, zerrenda eskuan, txertatzera sartzeko izenak ematen. L.Z.L.

80 urtetik gorako herritarrek ere jaso dute txertoaren lehen dosia

Ordubeteko atzerapenarekin heldu ziren txertoak astelehenean, baina, banan-banan, denek jaso zuten

L.Z.L. ELGETA

Lehenagotik 90 urtetik gorako elgetarrekin egindako moduan, txanda emanda jaso zuten COVID-9aren kontrako txertoaren lehen dosia 80 urtetik gorako herritarrek. Astelehen goizera-ko zeuden deituta, lehenengoak 08:30erako. Txertoak, ordea, ordubete pasa berandu iritsi ziren, eta luze jo zuen itxaronaldia gehienendako. Banaketa arazo bat tarteko Antzuolara bidali zituzten Elgetarako ziren txertoak. Okerra argitu ostean, Elgetako erizain Nestor Maidaganek ekarri zituen dosiak EL-

getara, eta, behin hasita, azkar joan zen txertaketa. Maidaganek Osakidetzako beste bi erizain izan zituen alboan.

Bigarren dosia, laster

Txertoak "lasaitua" ematen duela adierazi zuen elgetar batek baino gehiagok. "Neurriak hartuta bada ere trankilago ibiltzeko aukera" izango dutela esan zuten askok. Aspaldiko partez elkar ikusteko aukera ere izan zuten astelehenean. Bigarren dosia hartu beharko dute aste batzuk barru, eta ordura arte agurtu zuten elkar.

36ko gerrako umeak omenduko dituzte apirilean

Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak martitzenean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Pandemia egoeratik iaz birritan bertan behera gelditutako omenaldia aurten egingo dute, baina formatu bereziarekin. 1936an 0-16 urte bitartekoak ziren 51 gerrako ume debagoien-dar omenduko dituzte. Pilaketak saihesteko, ekitaldiak herriz herri egingo dira, eta Elgetakoa apirilaren 24an izango da, 12:00etan. Bertan, bi elgetar eta bi antzuolar omenduko dituzte: Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi elgetarrak eta Rosa eta Azucena Ortiz de Lejarazu Saez antzuolarrak (Ikus 8. orria).

OHARRAK

Aberri Eguna

Elgetako EH Bilduk balkoietan eta leihoetan ikurrina jartzeko dei egin du. Doan banatuko dituzte, gaur, 20:15ean, herriko plazan.

Haur Eskola

Apirilaren 12tik 21era zabalik izango da matrikula. Online egin daiteke, eta presentziala egiteko txanda eskatu beharko da aurrez. Argibideak: *elgeta.elgeta@haurreskolak.eus*.

Areto-futbol partidak

Kopako finala dela-eta apirilaren 3rako areto-futbol partidak antolatzen dihardute herrian. COVID protokoloak aztertzen ari dira, baina izen ematea zabalik da.

Askasibarren 'Kristo Penitentea'

"Eskultura dramatiko espresionistatza jo daiteke", dio Nerea Villak. "Tamaina handikoa da, baina ez osoa. Gorputza tunikaren azpian ezkututzen den estruktura batek egituratzen du, eta ikusgai gelditzen diren aurpegia, eskuak eta oinak daude landuta. Espresio handiko piezak dira. Gorputzaren tentsioa agertzeko zain eta tendoi guztiak irudikatzen dira".



Lorenzo Askasibar eskultore elgetarraren obra 2007ko prozesioan. ARTXIBOA

26 autokarabana bakarrik Arantzazun

Arantzazu eta Araotzerako mugikortasun plan berezia jarriko du Udalak Aste Santuko oporren aurretik, bertakoen eta turistaren elkarbizitza bermatzeko: bost metrotik gorako ibilgailuendako kopurua 26ra mugatuko dute, eta autobus zerbitzua indartuko

Oihana Elortza OÑATI

COVID-19aren testuinguruan, nabarmen egin du gora barne turismoak, eta horrek arazoak sortu ditu, esaterako, Arantzazun eta Araotzen: eragina izan du eguneko bisitarien eta gaua pasatzera ibilgailu handiekin doazen elkarbizitzan, auto pila-ketak izan dira, aparkatzeko zailtasunak, gaizki aparkaturiko auto ugari, eta auzotarren eta bisitarien arteko elkarbizitzarako trabak ere bai. Horri irtenbidea topatu guran ibili dira udal ordezkariak, eta mugikortasun plan berezi bat pres-tatu dute. Martxoaren 31ean jarriko dute indarrean.



Bi autokarabana aparkatuta atzo, eguena, goizean. J.A.U.

Baimendutako gunetan soilik

Arantzazun, esaterako, 26 aparkaleku egokituko dituzte bost metro baino gehiago dituzten ibilgailuendako. Seinalez adieraziko dituzte gune horiek –beheko aparkalekuan egokituko dituzte autokarabanendako

tokiak–. Aparkaleku horietatik kanpo ezingo dira tamaina horretako ibilgailuak aparkatu. Araotzen, Jaturabe presa inguruko aparkalekua egokitu berri du Udalak, eta orain, baimendurik ez dagoen tokietan apar-

katzeko debekua azaltzen duten seinaleak jarri ditu, Arantzazun bezala Araotzen ere gora egin duelako bisitarien kopuruak. "Barne turismoaren gorakadak auto ugari eroan ditu Araotz auzora. Horrek, tarteka, eragina

izan du auzotarren egunerokoan eta haien ohiko mugikortasunean: sarri, bidea oztopatzen dute berez estua den auzo-bidean gaizki aparkaturiko autoek; ohikoa baino tamaina handiagoko ibilgailuek pasatzeko trabak izaten dituzte, tarteka –elurra kentzeko makinak, larrialdi zerbitzuetako ibilgailuak–, auzotarren zelai sarreretan aparkatzen da zenbaitetan... Arazoak antzeman dira, eta kexak heldu dira Udalera. Erantzuna eman beharra dago, denok goza dezagun parajeez", dio alkateak, Izaro Elorzak.

Autobus gehiago

Goiko aparkalekuan tokirik topatzen ez duen bisitariak herri-gunean dauden aparkalekuak ere erabil ahal izango ditu: Ibarrran, Mondragon Unibertsitatearen alboko parkingean, postetxearen ondoan dagoena, eta San Martinen egokiturik dagoen autokarabanendako gunean legoke aparkatzeko lekua.

Datozen opor egun hauetan, gainera, indartu egingo dute Oñati eta auzo bi horiek lotzen dituen autobus zerbitzua, eta herrigunean aparkatzen dutenak eroso joan ahal izango dira gora. Hala, 07:30etik 18:30era bitartean, orduero egongo da Arantzazura igotzeko aukera. Eta Arantzazutik jaisteko ere bai, 08:00etatik 19:00etara. Apirilaren 1etik 4ra artean jende asko egongo balitz, baliteke errefortzu zerbitzua

jartzea, autobusak ordu erdian behin egonez igotzeko zein jaisteko. Araotzetik pasatzeko, abisua eman beharko da autobusa irteten aurreko ordu erdian, 900 12 14 00 telefonora deituz.

Azken hilabeteetan ibili da Udala turistaren eta bertakoen arteko elkarbizitza bermatzeko modua aurkitzeko lanean, eta martxoaren 31tik aurrera, Aste Santuko eta Pazko asteko egunetan, ikusiko da mugikortasun plan horrek arazoari erantzuten dion edo ez. "Orduantxe zehaztuko ditugu osteko urratsak, halako zerbaiten beharrik balego, beti ere. Bitartean, segi dezagun geure parajeez gozatzeko, arduraz eta errespetuz", dio alkateak.

Turismo eskaintza, zabalik

Bestalde, Oñatiko turismo eskaintza zabalik dago bertako zein kanpotik datozenendako. Herriko eraikinen bisita, Arrikruztz kobetakoak, Pottokalekuko zaldi irteerak, Arantzazuko parketxearen eskaintza, Santutegia bera, Txokolateixia eta Gomiztegi daude ikusteko, besteak beste, inguruko parajeetan ibiltzeko aukerez gain.

MARTXOAREN 31N JARRIKO DUTE INDARREAN MUGIKORTASUN PLAN BEREZIA



JOKIN BEREZIALTUA

Irizar, 'Galdegazte'-ko gonbidatu

Txantxiku ikastolako Amets Bikuña, Irati Delgado, Naroa Igartua eta Aimar Iturricastillo ikasleek Markel Irizar Oñatiko txirindulari ohia elkarriketatuko dute Goiena telebistako *Galdegazte* saioan. Txirindularitaz, familiaz, hartutako erabakiez, tabernari lanaz eta beste kontu askoz galdetuko diote. Apirilaren 14an izango da, 21:30ean eta 23:30ean.

'Zuk zeuk' finalera heldu da Oñatiko gaztelekua

Garapen jasangarriarekin lotutako "ginkana erraldoi" moduko bat da *Zuk zeuk*; Euskal Herriko 900 gaztek hartu dute parte, eta arlo pribatuko zein publikoko elkarte babesleek jarritako erronkei egin diete aurre. 300 gaztek lortu dute aste honetan jokatzeko ari diren finalera pasatzea, eta horien artean daude Oñatiko gaztelekuko erabiltzaileak; 30.000 euro banatuko dituzte saritan. Garapen iraunkorreko helburuekin lotutako gaiak hartu eta jorratu dituzte lehiaketa honetan.

Finala, berez, Donostian presentzialki egitekoa zen, baina, osasun egoera ikusita, bide telematikoen bidez jokatu dute.

GORA ETA BEHERA



Edozein tokitan ikusten dira lurrean

Kiroldegi azpiko aparkalekurako bidean ikusi du maskara lurrera botata herritar batek, eta haserre bidali du argazkia eta mezua: "Mordoa ikusten ditut lurrean, hori ez dago ondo".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Oxel Uribetxebarria, Anik Zubizarreta, Jose Ramon Arrazola, Iñaki Olalde, Jerardo Elortza eta Ramon Martin aurkezpenan. O.E.

Umerezen eskuizkribuak sarean irakur daitezke

Herriko hainbat eragilek eskatuta eta Gipuzkoako Artxibo Historikoaren laguntzarekin, XIX. mende hasieran Manuel Umerez Goribargoitiak oñatieraz idatzitako bi eskuizkribuak digitalizatu egin ditu Oñatiko Udalak, eta denen eskura daude orain

Oihana Elortza OÑATI

Manuel Umerez Goribargoitiaren eskuizkribuen balioa jakinekoa zen, eta, gorde eta jaso beharreko ondare dela sinistuta, horiek digitalizatzeko eskaera egin zioten Udalarari Artixak, Gure Bazterrak-ek, udal liburutegiak eta udal euskaltegiak. Eta, hala, Udalak Gipuzkoako Artxibo Historikoaren laguntzarekin burutu du lana.

Arrazolatarraren etxean

Hain zuzen ere, herritarren aldetik etorritako proposamena eta denen arteko elkarlana nabarmendu dute, aurkezpen ekitaldian, Kultura zinegotzi Iñaki Olalde eta artxiboko arduradun Ramon Martinek: "Jende gaztea ere badago historiarekin eta ondarearekin interesa duena, eta asko poztu nau horrek". Egingako lanari buruz, erraza izan dela adierazi du Martinek, ez dutelako inolako oztoporik izan: "Liburuen jabe Jose Ramon Arrazola aleak eskuetan zituela

etorri zen, zer egin nahi genuen azaltzeko deitu genionean". Izan ere, Arrazolak argi zuen erantzuna: "Gurean beti jakin izan dugu liburu edo eskuizkribu hauen berri, eta euren balioa. Aurretik ere etorri izan dira ikustera, eta digitalizatzeko proposamen hau jaso genuenean ez genuen zalantzarik izan, zabaldu egin behar da".

Osaba batek idatzitakoak

Umerezen eskuizkribuak XIX. mende hasierakoak dira, 1805ekoa lehendabizikoa, eta osaba batek ezkondu berria den iloba bati eta lagun nekazari bati idatzitako bi liburu dira. Liburu biek orri kopuru antzerakoa dute, 441 batek eta 478 besteak. Biga-

**APIRILAREN 9A
BITARTEAN
ARTXIBOAN EGONGO
DIRA ORIGINALAK
IKUSTEKO MODUAN**

rren horrek, baina, askoz hitz gehiago ditu, letra txikiagoarekin idatzita baitago, eta apenas dago espaziorik lerroen artean. Mitxelenak eta Villasantek, besteak beste, aipatu izan dituzte eskuizkribu horiek, eta Oxel Uribetxebarria eskoriatzarrak bere tesirako gai hartu ditu: "Garai hartako tamaina horretako euskarazko liburu bakarrak dira eta duten balioa eta garrantzia handiak dira. Horregatik erabaki dut nire tesia eskuizkribu horiei buruzkoa izatea".

Jerardo Elortzak liburuetako bat transkribatuta zuen, eta poztu egin da biak digitalizatu ikusita: "Egia da erlijio kontu asko datozela, baina orduko janzkerak, ohiturak, sineskeriak eta bizimoduak ere ageri dira. Balio handia dute".

Apirilaren 9ra arte artxiboan egongo dira ikusgai eskuizkribuak, artxiboaren ordutegi barruan. Sarean, Udalaren eta artxiboaren webguneetan sartuta irakur daitezke.



Lezesarri auzoan dagoen Betik enpresaren eraikina. O.E.

Zotzen ekoizpena itxi egingo du hilaren amaieran Betik enpresak

Komertzializazio negozioa ere badu, eta horrek indarrean jarraituko du; han birkokatuko dituzte langile batzuk

O.E. OÑATI

"Merkatuan izan den zotzen jaitziera nabarmena kontuan izanik", Betik enpresak herrian duen ekoizpen linea itxi egingo du hilaren amaieran.

Lezesarri auzoan, Azkoagain parean dagoen eraikinean dago, duela 80 urtetik, ekoizpen linea. "Garai berriak iritsi dira, eta egoera asko aldatu da. Itxieraren arrazoiak hainbat dira, eta ez da bata bestea baino garrantzitsuagoa. Agian, nagusia da bertan lanean diharduten langile gehienek erretiro aurreratua hartuko dutela, eta etorkizun

gutxiko negozioa izango delakoan ixten ditu ateak ekoizpen lantegiak", diote enpresako ordezkariak. Gainerako langileak komertzializazioko biltegiko lanetara pasako dira. Komertzializazioa kudeatzen duen negozioak Otadui zuhaitzian du egoitza, eta bertan biltegi eta bulegoko hogeit bat langilek egiten dute lan.

Zotz zapalak eta medikuendako espatulak eta izozkien makilatxoak egin dituzte urteetan Betik-en. Orain, ostalaritzari eta supermerkatuei zuzendutako produktuak, batez ere.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Gordean

Jainkoarengan uste on izatea sinesmen ameslari bat besterik ez dela diote askok, ihesbide bat larritasunak datozenerako, laguntza inozo bat ezin arintzeko. Maitasunak heriotza gainditu duela sumatu dutenek desioa eta errealitatea nahasten omen dute...

Gordean bada ere, gai hauei buruzko mahai-inguruak gurean ere gertatzen dira. Azalderiak eta topikoak alde batera utzita, bila dabilen jendea ugaritzen ari da: bizitzari zentzua eman nahi diotenak, sakoneko atsedenen egarri direnak, zientzia gaietan ongi janzteko ahalegina egiten dutenak, Jainkoa eta maitasunari buruzko galderak egiten ausartzen direnak, eta erlijio, eta espiritualtasun bideak ezagutzeko prest daudenak...

Mundu globalean bizi gara, eta ikuspegi pluralak ezagutu eta lantzeko aukerak dauzkagu. Bakoitzak jakingo du non jarri bere habia. Nirea, hegaldi askoren ostean, kristautasunaren eskaintzan jarri dudala aitortzeko lotsarik ez daukat, nahiz eta gaur oso ohikoak diren, barregarri uzten duten parodia eta gogoetak.

Helduei barre eragiteko antzezlanak da etzikoa

Heziketa sexualari eta afektiboari buruz umorez egiten duen hausnarketa eramango du Benetan Be taldeak domeka iluntzean Santa Anara. Zapatuan, irudiak dituzten 'podcast'-ak egingo ditu Zaramarrak eta gaztetxean Korrika eguna izango dute

Oihana Elortza OÑATI

Benetan Be taldearen zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoak uztartzen dituen helduentzako umorezko antzezlanak da *Porno vs. afrodita edo I love #gorkaurbizu* antzezlanak; barre eragiteko asmoa du.

40 urtetik gorako musikariek osatzen duten rock taldea azken kontzertua ematera doa, eta emanaldirako soinu probak hastear direla abiatzen da obra. "Izango da antzerkia, izango da musika, izango da barre-algara, mina, pasioa, haragia, odola; izango da rock-and-rolla", esan du taldeko kide Patricia Urrutiak. Domekan izango da ikus-



Benetan Be taldeko aktoreak. BENETAN BE

kizuna Santa Anan, 18:30ean, eta ohiko tokietan eros daitezke sarrerak.

Kai Nakai zapatuan

Bihar, zapatuan, berriz, Korrika eguna egingo dute gaztetxean, eta musika, jolasak eta jatekoa egongo da egun osoan. Baita zuzeneko kontzertuak ere: 13:00etan, Tolosako Nikotina taldea eta 18:00etan, berriz, Gasteizko Kai Nakai. Goizean, baina, 11:00etan, irudiak izango dituzte *podcast*-ak grabatuko dituzte Zaramarrako lagunek Antton Telleria, Ibai Zangitu eta Aiora Probatxoarekin. 80 lagunendako tokia dago.

Apirileko saioetarako sarrerak, bihar

Beita antzezlanak egongo da apirilaren 16an; 18an, Maren-en kontzertua; eta 10ean eta 11n, Larru Beltzak taldearen zuzeneko emanaldia. Sarrerak bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai. Larru Beltzak taldeak 17:00etan eta 18:30ean joko du, gaztetxean, apirilaren 10ean; eta 12:30ean, 11n. Sarrerak gaztetxean bertan eros ditzakete, bihartik, 5 eurotan langileek eta 3 eurotan langabeek eta ikasleek. Marenek gaztelekuan joko du; ohiko tokietan egongo dira sarrerak, bihartik, 5 eurotan.

Beita antzezlanak irazan faktoriatik dator, Xup taldekoekin, eta sarrerak agortzean daude. Ohiko tokietan eskura daitezke.

'Ginelako gara' antzerki ibiltaria izango da gaur kalean

Ikusezin bihurtu zituzten zazpi euskal emakume aitzindarien istorioak antzeztuko dituzte gaur, egubakoitza, Oñatiko kaleetan, 18:00etan hasita, Elkar Heziko DBH-2ko ikasleek. Antzeztan hainbat agertoki izango ditu: Etxaluzen hasi eta Lazarragan bukatuko da.

Setem Hego Haizea GKEren eta Elkar Heziko ikasleen artean burututako hausnarketa prozesu baten emaitza da hori. Bide horretan aitzindari izan diren emakumei buruz aztertu eta ikasi dute, eta zazpi euskal emakume aukeratu dituzte, emakumeek gizartearen eta historian egindako lana ikusarazteko eta baloratzeko. Lehen emakume albataria, sorgin izateaz eta homosexualak izateaz salatuak izan diren emakumeak, erresistentzia sareetan ibilitakoak, musikari baten eta argazkilari baten istorioak antzeztuko dituzte, besteak beste. Aurretik hartu behar da lekua, mezua hona bidalita: 688 62 11 95.

DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxe: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>
--	---

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



**%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU**

ERREGE KOPAKO FINALA

RAFA MUNGIAREKIN ETA HARITZ GALLASTEGIREKIN, EUSKADI IRRATIKO ESATARIAK
HARMAILATIK SAIO BEREZIA
MARTXOAREN 29AN, ASTELEHENEAN, 19:00/21:00 ETA 23:00



goiena

Zu hemen zaude.

Koparen jabe dira dagoeneko

Ibarrean hiru lagunek irabazi dute Espainiako Kopa. Andoni Zubizarretak eta Luis Mari Lopez Rekartek Athleticen eta Realaren 80ko hamarkada oparoa bizi izan zuten; Oihana Aldai emakumezkoen Realak emandako poztasunaren testigu izan da

Xabier Urzelai ARRASATE

Andoni Zubizarretak (Aretxabaleta, 1961) eta Luis Mari Lopez Rekartek (Arrasate, 1962) gauza asko dituzte komunean. UDAko harrobikoak dira biak, eta batera joan ziren Alavesera, 1978 inguruan Aretxabaletako taldeak Alavesekin hitzarmena sinatu zuenean. "Gatzagako mendatean ibiltzen ginen aurrera eta atzera, entrenamenduetara joateko Andoniren aitak edo nireak egiten zituen txofer lanak, beste garai batzuk ziren haiek. Ez dakit egun hartan Andoni gurekin zetorren ala ez, baina gogoan dut aita eta biok Gatzagan gora gindoazela Guardia Zibilen kontrol batekin egin genuela topo. Ez dut gertatutakoa ondo gogoratzen, ez dakit konturatu gabe aurrera egin genuen ala zer, baina kontua da tiroak bota zituztela airera... Broma gutxi zegoen garai hartan", dio Lopez Rekartek.

Zubizarretak ere ez ditu ahaztu garai hartako kontuak: "Aretxabaleta moduko klub bateko bi jokalarik ibilbide polita egin genuen sasoi berean, ez dira halako adibide asko gongo.

Alavesen elkarrekin egon ginen, eta ondoren ni Athleticera joan nintzen eta Luis Mari Realera. Eta, urte batzuk geroago, Bartzelonan egin genuen ostera ere topo".

Clementeren urte oparoak

Andoni Zubizarreta izan zen Errege Kopa irabazi zuen lehen debagoiendarra (1984). Talde zuri-gorrian jokalaria historiko bilakatu zen Iribarren postua hartu zuen 80ko hamarkada hasieran. "Haren eskutik ikasi nuen nik zer zen Athleticeko atezain izatea; niretako ametsa zen Iribarren pausoak jarraitzea, haren ondoan ahal nuen guztia ikasten saiatzen nintzen". Urte oso onak izan ziren Athleticendako. Clemente aulkian zela, Zubi-k bi liga irabazi zituen jarraian -1983an eta 1984an-, eta, hain zuzen, azken denboraldi hartan zuri-gorriek Liga eta Kopa irabaztearekin batera Superkopa ere irabazi zuten.

Mutur-joka amaitu zutenekoa

Hain zuzen, Athleticeko zaleek 1984an Bartzelonaren kontrako final hartan berdegunean 90

minutuan gertatu zena baino gehiago, ondorengo minutuetan gertatu zena dute gogoan, Maradonarekin, Schusterrekin eta konpainiarekin mutur-joka ibili zirenekoa. "Nik daukadan oroitzapena da bi partidu ezberdin izango balira bezala. Lehenengoan berdegunean gertatu zena dut gogoan (1-0), lan handia egin behar izan genuen partidu hura irabazteko, Bartzelonak goi mailako jokalaria zituelako, eta edozein momentutan egin zezaketen gola [Endikaren golarekin irabazi zuen Athleticek]. Eta ondoren, par-

ETXEAN PATXADAZ JARRAITUKO DUTE HIRUREK FINALA; EZ DAGO AUKERA HANDIRIK

REALAK IRABAZTEN BADU, GOROSABEL BILAKATUKO DA KOPA DUEN LAUGARREN DEBAGOIENDARRA



Andoni Zubizarreta, koparekin (1984), Urtubi besarkatzen. M. ESCALERA

tidu osteko gertaera tristeak daude. Eta egia esan, hor ere ez nintzen askotaz konturatu. Urte hauetan Bilbon eta Bartzelonan egon naiz, eta bi aldeetan gustura ezabatuko zituzten partidu osteko hamar minutu haiek. Baina ezin da, eta hor geratuko da, historiarako. Dena dela, hurrengo egunean Bilboko ospakizunetan inor ez zen akordatzan bezperan Bernabeun gertatutakoaz", dio Zubi-k.

Hain zuzen, partidu ondorengo erretratu zaharrak errepasatuz gero, atezain aretxabale-tarra hainbat argazkitan azaltzen da eskua altxatuta, lurrean dagoen Miguel Sola taldekidearen ondoan laguntza eske [Maradonak eman zion Solari kolpea aurpegian]. "Medikuei deika ibili ginen eta gogoan dut aldagelara joan nintzela Migueli laguntzera. Eta aldageletatik irten nintzenerako, jada zala-parta guztia pasata zegoen, ez nintzen askotaz enteratu".

Anekdotak izan zen hura, eta betirako geratu dena da 1984ko urte borobila. "Denboraldi hura sekulakoa izan zen; ondoren ere urte onak bizi izan ditut, baina...

Urte berean titulu haiek irabaztea Athleticekin...".

Hiru urtera, Real txapelkun!

Luis Mari Rekarteren txanda hiru urtera iritsi zen, Realarekin: 1987an, txuri-urdinek jendez lepo zegoen La Romaredan Atletico Madril taldeari penaltietan Kopa irabazi zioten. "Zelako beroa egiten zuen egun hartan!", dio arrasatearrak. "Final hartaz akordatzan naizenean burura etortzen zaidan lehenengo gauza da zenbat eltxo zeuden futbol zelaian, izugarria zen. Egia da partidua hastearekin batera halako kontuak alde batera uzten dituzula eta partiduan kontzentratzen zarela, baina oraindik detaile hori daukat buruan".

Reala aurreratu zen markagailuan, Lopez Ufartek sartutako gol eder bati esker (1-0), eta, Da Silvak berdindu ondoren, Txiki Begiristainek sartu zuen 2-1ekoa. 74. minutuan, baina, Rubiok partidua berdindu zuen, eta Arrasatekoa ondo gogoratzen da -eta baita Athleticoko zale asko ere- 88. minutuan Atletico Madrilgo jokalaria bat lurrera bota zuenean Ramos Marcos

CITROËN C4 BERRIA

%100 ELEKTRIKOA,
GASOLINA EDO DIESELA



CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE





Reala txapeldun (1987). Erdian dago Lopez Rekarte, kopari helduta. REALSOCIEDAD.EUS



Oihana Aldai, Kopako txapeldun, Aretxabaletan egindako harreran (2019). GOIENA

epaileak ez zuela penaltia adierazi. "Ez dakit, ba, penaltia izan zen... Esango nuke Julio Prietorekin izan zela jokaldi hura, eta, seguruenik, orduan VAR delakoa egon izan balitz, penaltia adieraziko zuket. Baina betikoa da, alde batetik ikusten duzu jokaldi bat eta falta dirudi; ondoren, beste kamera batek erakusten dizu jokaldi bera eta inondik inora ez da falta. Intentsitatez moztutako jokaldia izan zen, baina penaltia izan zela esatea, akaso, larregitxo izango da". Hala, penaltien txandara joan ziren. Eta hor, Arconada izan zen protagonista: "Partidu amaiera izugarria izan zen; dena izan zuen, emozioa, tentsioa... Eta Arconadaren geldituaren ondoren sekulako poztasuna. Dena izan zuen partidu hark, partidu *koperoa* izan zen ehuneko ehun. Uste dut Zaragozako taberna guztietako garagardoa agortu zela [Barre], baina esango nuke Zaragozara ez genuela ezer prestatuta eraman, ospakizunak momentukoak izan ziren. Geroago, Bartzelonarekin eta Deporrek ere tituluak irabazi nituen, baina Realarekin iraba-

zi nuen Kopa hura... Lagunarte batek irabazitako Kopa izan zen, etxeko taldean jokatzen genuen, eta ondoren, gipuzkoarrekin ospatu ahal izan genuen herriz herri, gauza oso ederra izan zen. Futboleantortutako nire lehenengo garaikurra izan zen, eta oso kuttuna da niretako, oso oroitzapen onak ditut".

Los Carmenes ere mugarri

Debagoieneko hurrengo Kopa txapeldunaren berri izateko urteak pasa behar izan dira, Realeko jokalaririk Oihana Aldaik hartu zien aurreko biei erreleboa. Duela bi urte Granadako Los Carmenesen Realak 1-2 irabazi zion Atletico Madrili Erregina

"LIGA ETA KOPA IRABAZI GENUEN ORDUAN; HALAKOAK IZAN ZIREN OSPAKIZUNAK"



ANDONI ZUBIZARRETA
ATEZAIN OHIA

Kopako finalean. "Maiatzean beteko dira bi urte, ondo gogoan daukat", dio Aldaik. "Gogora etortzen zaidan lehenengo gauza da zelaira gerturatzen genbiltzala zaleek egin ziguten harrera. Jende mordo bat zen harmailetan, eta zelan animatzen zuten! Eta partidua amaitu zenean aita besarkatu ahal izan nuen, une hura dut gogoan".

Zalerik gabeko finala

Apirilaren 3an hiru debagoien-darrek etxean jarraituko dute partidua, lasai; ez dago besterik egiteko aukerarik. "Gainera, hurrengo egunean etxean jokatuko dugu partidua, eta, bestelara ere, ez nuke izango askorako

"REALAREKIN IRABAZITAKO KOPA LAGUN KUADRILLA BATEK IRABAZITAKOAK IZAN ZEN, EDERRA"



LUIS MARI LOPEZ REKARTE
FUTBOL JOKALARI OHIA

aukerarik", dio Sporting Gijon taldean jokatzen dabilen Aldaik. Eta, hain zuzen, hiru protagonistek nabarmendu dute euren finaletan harmailetan zenbat jende egon zen. Bai Bernabeun Athleticen 1984ko final hartan, La Romaredan 1987an eta los Carmenesen 2019an. "Nik garbi daukat zalerik gabe futbola ez dela futbola. Romaredako harmailetan ez zen pertsona bat gehiago sartzen, ez dut inoiz ahaztuko hango giroa, hango berotasuna. Eta, zoritxarrez, apirilaren 3ko finalean jokalariek ez dute giro horretaz gozatuko; final arraroa izango da, zalantzarik gabe", dio Lopez Rekartek.

"ZALEEN ANIMOAK DITUT GOGOAN; ZORITXARREZ, EZ DUTE HALAKORIK IZANGO SEVILLAN"



OIHANA ALDAI
SPORTINGO ATEZAINA

Zubizarreta ere iritzi berekoa da: "Euskal zaleak Sevillara joan ahal izango balira gauza handia izango litzateke, harreman ona duten bi afizioek elkarrekin gozatu ahal izango luketelako partiduez, baina, zoritxarrez, orain ez da posible".

Athleticek bi aukera izango ditu

Talde zuri-gorriak 15 egunen buruan bi aukera izango ditu Errege Kopa irabazteko, Realaren kontrako finala 2020ko urtekoari dagokiona da eta; aurtengoa Bartzelonaren kontra jokatuko du. Zubizarretak garbi dauka zaleendako ze final den interesgarriena. "Realaren kontrako finalak dena dauka. Kopako finala da, baina, aldi berean, euskal derbia ere izango da. Nik uste dut Athleticen zaleak Realaren kontrako final horri dandela begira, hasteko, lehenengo delako, eta, bestalde, azken urteotan Bartzelonaren kontra ere Athleticen jokatutako dituelako beste final batzuk". Hain zuzen, aretxabaletarra Athleticen eta Bartzelonako jokalaririk izan da lehenengo, eta bi klubetako kirol zuzendari izan da gero, eta halako finaletan gauza bitxia gertatzen zaiola aitortu dio GOIENARI. "Lasai zaudenean arrazionaltasunarekin jokatzen duzu, baina partiduan sartuta zaudenean bitxia da burmuinak zelan funtzionatzen duen. Gogoan dut Athleticen eta Bartzelonak Mestallan jokatutako zuten finalean (2009) Gaizka Toquerok egindako gola ospatu nuela, eta handik minutu batzuetara beste horrenbeste egin nuela Tourek 1-1eko egin zuenean".

Ikusteko dago Koparen jabe diren debagoienarren kopurua hazi egingo ote den hilaren 3an. Gorosabel desatzen dago.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

*Final historikoan,
gu ere euskal koloreekin!!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Andoni Gorosabel arrasatearra, Realaren elastikoarekin. REAL SOCIEDAD

"Urtea luzea izan da, baina hau da momentua"

ANDONI GOROSABEL REAL SOCIEDADEKO JOKALARI ARRASATEARRA 2019-20 denboraldian lortutako finala apirilaren 3an jokatu dute Sevillan, Cartujan; jokalaririk arrasatearrak hasierako hamaikakoan egoteko "esperantza" dauka

X. Urzelai/M. Bikuña ARRASATE
Duela urtebete lortutako sariaren ordaina jasotzeaz daude Realeko jokalariek. Arconadak, Lopez Ufartek eta konpainiak 1987ko Errege Kopa irabazi zuten, egungo jokalaririk gehienak jaio barik zeuden. Tartean, Andoni Gorosabel arrasatearra. **Zer dakizu Romareda futbol zelaiaren Realak Atletico Madrilen kontratutako Errege Kopa hartaz?**

Egia esan, oso gutxi. Etxean entzundakoa bakarrik. Aita egon zen finala ikusten, eta hark kontatutako apurra dakit egun hartaz. Orain arte klubak irabazi duen Errege Kopa bakarra da, eta gure esku dago bigarrena lortzea. **Selekzioen partiduengatik liga etenda dago. Bartzelonaren kontrako partiduaren emaitza txarra izan zen. Haserre ikusi zintugun.**

Partidua oso gogorra izan zen, baina, bereziki, emaitzak min handia egin zigun. Dena den, pasa dira egun batzuk, eta eman diogu buelta. Ez dago besterik. **Akaso, finalari begira, hori izan da taldean egin behar izan duzun lan zailena?**
Zapore gazia utzi zigun, baina finalari begira ipini gara dagoeneko. Halako egoerei buelta ematea komeni da, lehenbailehen.

Egoerari hari buelta eman ostean, ze sentsazioekin, ze gorputzaldirekin dago Realak?

Ilusioa eta gogoia dira ditugun sentsazioak. Gainera, gorputzak badaki finala ate joka dagoela, eta hori ere kudeatu egin behar dugu. Astebete geratzen zaigu aurretik, benetako helburua lortzeko, partidua ondo prestatzeko.

Aurretik hiru debagoiendarrek lortu dute Errege Kopa irabaztea: Oihana Aldaik (2019) eta Luis Mari Lopez Rekartek (1987) Realarekin, eta Andoni Zubizarretak (1984) Athleticekin. Zurea izango da laugarrena?

Ondo legoke, bai. Nik pozarren hartuko nuke kopa, eta historiarako geratuko litzateke lorpen hori.

Real-zaleendako zelai kuttuna da Romareda. Orduko finalean zaleek ez zuten hutsik egin. Oraingoan, baina, zalerik ez da egongo Cartujako harmailtan.

Pena handia, duda barik. Errege Kopako finala da, baina derbia, era berean. Gainerako partiduetan moduan, zaleen falta igarriko dugu. Halako finalei jendeak ematen die kolorea, giroa, animazioa... Ez da berdina izango.

Dena den, publikorik gabe ere, %100 emango dugu finala irabazteko, eta Cartuja gure zaleen zelai kuttun bihurtzeko. Espero dezagun guztiondako oroitzapen onak utziko dituen zelaia eta eguna izatea.

Apirilaren 3ko partiduari begira, badaukazu hasierako hamaikakoan egoteko esperantzarik?

Taldeko jokalaririk guztiok daukagu jokatzeko gogoia, ilusioa eta esperantza. Baina azken erabakia entrenatzaileak dauka. Lan jarraitu beharko dugu, eguneroko saioetan.

Jokalaririk asko diote futbola ez dela futbola zale barik. Iritzi berekoa zara?

Egoera oso arraroa da. Ni ez naiz ohitu oraindik. Azken finean, zaleendako jokatzeko dugu. Bereaien gozamenerako, eta harmailak hutsik ikusteak pena ematen du.

Nola ikusten duzu Athletic? Entrenatzaile aldaketarekin hobekuntza igarri zen, baina, azkenaldian, motelago dabil taldea. Berdinketa askotxo.

Esango nuke oso antzera gaudela bi taldeak. Gorabeherekin heldu gara finalera, baina, partidu bakarrera jokatzeko denean, edozer gauza gerta daiteke. Are gehiago, urtebetez atzeratu den partidua izanik; esango nuke hau dela momentua. Zertarako gai garen erakutsi behar dugu, eta kopa Gipuzkoara ekarri.

Baina zaleek pentsa dezakete Realak ez dela momentu onenean heltzen Cartujara, partidua horren garrantzitsua izanda.

Bi partidu jarraian galdu ditugu, eta zaleek inpresio hori izan dezakete. Baina taldea ondo ikusten dut. Gogoarekin, ilusioarekin... Eta ziur nago gure bertsio onena emango dugula.

Zure etxekoek, gertukoek, non ikusiko dute partidua?

Bada, 21:30ean izango dela kontuan hartuta, nor bere etxean. Ez dago aukera gehiago.

Kopa irabaziz gero, egin duzu promesik?

Oraingoan, ez. Ez dakit aurrerago zerbait pentsatuko dudana.

"ZALEENDAKO JOKATZEN DUGU, ETA HARMAILAK HUTSIK IKUSTEAK PENA EMATEN DIGU"

REALA-ATHLETIC, ERREGE KOPAKO FINAL HISTORIKOAREN ATARIAN

**AURRERA,
TXURI-
URDINAK!**

INTERSPORT
LORAMENDI

Fernandez
Arraindegia

Jon
Harategia

PARLANCE
LANGUAGE SCHOOL

Zaleak gogotsu daude, eta egun handiaren zain

Kamisetak, pankartak, banderak, bufandak, txanoak... Horiek guztiak ateratzen hasi dira zaleak. Finala talde txikietan ikusi behar badute ere, Sevillaraino heldu beharko duten animoak eta kantuak egiteko ezarriak berotzen dira dagoeneko

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Hasi da atzerako kontaketa. Baita bi taldeetako zaleendako ere. Guztiek dute gorritz marka-tuta apirilaren 3a.

RAKEL SOMALO ETA FAMILIA
OÑATIKO ZALEA

"Baloj jabetzak ez dauka zentzurik golak sartzen ez baditugu"

Argazkian ikusten den moduan, dagoeneko apainduta dute etxea Rakel Somalok eta familiak. Are gehiago, finalaren egunean, etxe-ko negozioa den arrandegia ere apainduko dute. Etxean ikusiko dute finala, eta uste du Reala faboritoago dela. "Athleticek asko irabazi du Marcellinorekin, eta kopak irabaztera ohituago dago. Ligako partiduan hobeak izan ginen, eta Realaren aldeko apustua egingo nuke. Hori bai, errespetu handiarekin, partidu bakarrera edozer gerta liteke eta", esan du.

Eta, hain justu ere, partidu bakarra izatera, golak izango dira garrantzitsuenak. "Azken metroetan asmatu behar dugu. Baloiarekin jabetza edukitzea inportantea da, baina ez badugu golik sartzen... Hori, eta defentsan sendo egotea".

FELIX IRIZAR
INTXORTAKO LEHOIAK LAGUNARTEKOA

"Biok irabazi gura dugu, baina inork ez du galdu nahi"

Athleticek jokaturako azken hiru Errege Kopako finaletan egondakoa da Felix Irizar. Hiru haiek galdu arren, oroitzapen oso onak ditu. "Irabaztea tokatzen zaigu, eta hala bada, badakit nori bidaliko diodan lehen meza: Superkopa irabazi osteko pertsona berberari", esan du.

Osaba Joxek Logroñesen jokatzeko garaian jantzi zuen talde haren elastikoa. Zuri-gorria hura ere. Etxerako bueltan, aitonak errieta egin zion. "Zuri-gorria bai, baina Athleticena izan dadila", esan zidan. Orditik naiz zalea", gogoan du. Etxean ikusiko du partidua Irizarrek.

EDURNE URTEAGA
TXANTXIKU TXURIURDINAK TALDEKOA

"Sevillan egon ezin izana mingarria da zaleondako"

Taldea animatzeko 21 bidaia egin eta hamabost futbol zelai bisitatu ostean, Edurne Urteaga Sevillako Cartujara joan barik

geratuko da. "Lyonen, Manchesterren, Bartzelonan, Madrilen, Valladoliden... egon ostean, penagarria da Sevillakoa, baina etorriko dira beste final batzuk".

Atotxan egondakoa da, eta Realazkoagainen ikusitakoa. Aitarengandik jaso zuen futbol-lerako maitasuna, eta, egun, Realazaleasun handiena da. "Hamabi urte daramat bazkide. Lehenengo Mailarako igoera bizi izan nuen, eta Kopako finala beste pauso bat da".

JOSE RAMON SARASUA
INTXORTAKO LEHOIAK LAGUNARTEKOA

"Xehetasun txikiek erabaki dezakete nor den txapelduna"

Finala xehetasun txikiek erabaki dezaketela uste du Sarasuak. "Realak hobeto jokatu du. Athleticek amorrutik handiagoko erakusten du zelaian. Dena den, edozein akats, penalti edo falta jaurtiketa izan daiteke erabakigarri. Kezka hori badaukat".

Realaren kontrakoa galduta ere, bigarren final bat jokatu dute zuri-gorriek. "Realari irabazita, akaso, bigarrena ere irabaziko dugu. Baina Sevillakoa galtzen badugu, Bartzelonaren kontrakoa ere bai".




Ricardo, Lide, Julen eta Rakel, etxean.



Edurne Urteaga, Txantxiku Txuriurdinak lagunartekoaren egoitzan.



Felix Irizar. M. SANTOS



Jose Ramon Sarasua. J.R.S.



Finalerako aurreikuspena, bi kirol adituren eskutik

Haritz Gallastegi eta Rafa Mungia kirol esatariek solasaldia egin dute apirilaren 3an Athletic-ek eta Realak jokatu duten Errege Koparen finalaren bueltan. Bi adituen esanak 'Harmailatik' saioan, astelehenean, 19:00etan, 21:00etan eta 23:00etan

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Ustezko iragarpenak egitea zilegi da, baina derbi baten emaitza jakitea ez da hain samurra, ezta kirol aditu batentzat ere. Ibilbide luzeko profesionalak izan eta Euskadi Irratiko esatari urte mordo daramatzaten arren, Haritz Gallastegi elgetarrak eta Rafa Mungia arrasatearrak, finalaren atarian, norgehiagoka aurreko azterketa egin gura izan dute. Apirilaren 3an jokatu den Errege Kopan esatari lanetan arituko dira bi debagoiendarrak, eta egunerako gogoz daude.

Ikusitakoa emozioz kontatu

Intentsitate handiarekin bizi dute futbola, eta, kasu honetan ere, hala arituko dira Errege Kopako finalean. Gallastegi atletizale amorratua eta Mungia, berriz, realzale sutsua izan arren, neutraltasunez arituko dira, ikus-entzuleei kontakizuna ahalik eta errealean egiteko asmoz.



Mungia eta Gallastegi. XABIER URZELAI

Atzera kontakteta

Goiena telebistarako egindako solasaldian, Sevillatik programa berezia egingo dutela adierazi dute bi esatariek. Bi euskal taldeen lorpenak ere izango dituzte berberak, eta horietan bizitakoak gogoraraziko dituzte. Bi taldeak ondo daudela adierazi dute biek ere. "Realak jokalaria garrantzitsuak berreskuratu ditu, eta, urte askoren bueltan lehenengo finala izanda, derbi parekatua izango da", dio Mungiak. Gallastegik, berriz, Athletic partidu bakarrera hazi egiten den taldea dela dio: "Lehiatzen dakien taldea da, eta, hori dohain bat izanda, ez du opari handirik emango".

Horrekin batera, partiduaren aurretik titularrak zeintzuk izan daitezkeen ere bota dute. "Arrastoa utziko duen finala" izango dela dio Gallastegik; eta Mungiak, berriz, euskal futbolarentzat egun eta partidu "historikoa" izango dela.



ARETXABALETAKO UDALA ETA ELGETAKO UDALA

Realaren autobusa bailaran izan da

Errege Kopako finalaren harira, herririk herri ibili da Realaren autobusa. Geldialdietan, bandera trukea egin dute; alegia, Realekoa utzi eta udalerrikoa hartu, guztiak Sevillara eramateko. Herri bakoitzean harrera udal ordezkariak egin zieten Aitor Diaz de Mendibil eta Joseba Ibarburu Realeko ordezkariak eta Mitxel Loinaz Realeko jokalaria ohiari.

REALA-ATHLETIC, ERREGE KOPAKO FINAL HISTORIKOAREN ATARIAN

IRABAZ DEZALA ONENAK!



Lasterketetarako gogo biziz daude Lokatzakoak

TXIRRINDULARITZA Joan den zapatuan egin zuten maila guztietako txirrindularien aurkezpena Lokatzakoek. Horrekin batera, domekan egingo den Gorlako Igoeraren moldaketen berri eman, eta arduraz jokatzeko eskaera egin dute klubeko ordezkariak

Imanol Beloki BERGARA

40 ziklista inguru ariko dira aurten Lokatzarekin eta nobedadea da emakumeen taldea ere egongo dela. Iñigo Larrañaga kirol zuzendariaren esanetan, negua "arraroa" izan da, neurri murriztaileak tarteko ezin izan dutelako nahi beste lan egin, baina urteari aurre egiteko gogoz daudela ere gaineratu du. Joan den zapatuan egindako talde guztien aurkezpenaz batera, domeka honetarako, Gorlako Igoeraren 46. aldia antolatu du Lokatzak; izango dituen moldaketak eta zenbait xehetasun azaldu zituen.

Joan den zapatuan, Bolintxo okindegiak San Juan auzoan duen egoitzaren aurrean batu ziren Lokatza taldeko txirrindulari guztiak, eta, kategoriaz guztietako kirolarien aurkezpena egiteaz batera, argazkiak ateratzeko aprobetxatu zuten. Ion Unamuno Lokatza ziklismo eskolako presidentek taldearen berri eman gura izan du: "Lokatza Bergarako taldea izan arren, bailarako selekzio txiki bat da; herri guztietako kirolariak ditugu. Klubak boladaka aritzen dira, batzuetan indartsuago egoten dira, beste batzuetan ez hainbeste... Gure kasuan, entrenatzaile oso onak ditugu,



Bergarako txirrindulari klubaren aurtengo taldeen aurkezpena. TXOMIN MADINA

gaitasun handikoak, baina gutxi ditugu, kantitate faltan gaude. Edozelan ere, taldearekin oso pozik gaude".

Aurtengo denboraldiari begira Lokatza taldearen berrietasun nagusietako bat emakumezkoen taldea dela adierazi gura izan du Unamunok. "Orain arte, eskolartekorainoko mailara arte izan ditugu emakumezkoak. Aurten, berriz, kade te mailako bi txirrindulari eta elite mailako beste bi txirrindulari lortu ditugu, taldean, errepidean aritzeko".

Gorlako Igoera domekan

Domekan, berriz, Lokatzak gorritz markatuta izaten duen hitzordua izango da: Gorlako Igoera. Denboraldiko egutegia prestatzeko osatutako kontingentzia planari jarraituz, lasterketak zenbait moldaketa izango ditu, zaleen zein kirolari guztien segurtasuna bermatzeko. Hain zuzen ere, jende gehien pilatzen diren une eta guneak kontrolatzean jarriko dituzte indarrak. Horrela, besteak beste, irteera, helmuga eta sari banaketa publikorik gabe izango dira.

Denboraldi berrirako gertu?




ITSASO PLAZA
LOKATZAKO TXIRRINDULARIA

"Egia esan, pozgarria da bailara honetan ere emakumezkoen talde bat izatea. Iaz, gizezkoen taldean hasi nintzen, baina emakumezkoak batzen garenean eta taldean ari garenean giroa ezberdina izaten da; giro aparta, betiere, eta nire kasuan, gusturago aritzen naiz".



BEÑAT LEGORBURU
LOKATZAKO TXIRRINDULARIA

"Koronabirusak eskema guztiak apurtu dizkigun arren, hasteko gogoz gaude. Etxean entrenatzen aritu gara, aitarekin batera... baina ez da berdina izan. Taldeen aurkezpena egiteaz asko poztu gara; hala, lagunekin elkartu eta giro pixka bat izateko. Honi guztiari normaltasun pixka bat eman behar diogu".



UNAX ERRASTI
LOKATZAKO TXIRRINDULARIA

"Ematen du lasterketa ugari izango ditugula aurten; zorte handia dugula nabarmendu nahiko nuke. Horri heldu behar diogu, eta aprobetxatu. Izan ere, denboraldi amaieran izan genituen hainbat lasterketa, eta berriz esaten dut zortea dugula, beste kirol batzuetan gu baino txarrago aritu direlako".



LANDER URIBESALGO
DEBABARRENAKO ZIKLISTA

"Aurten hasi naiz 23 urte azpikoen mailan, eta eman didaten aukera honekin gustura, oraingoz. Domekan Gorlan izango naiz lehenengo aldiz, eta nire hirugarren lasterketa izango da maila honetan. Beraz, etxeko lasterketa izanda, urduri nago, baina, bertako zaleak ditudanez, ilusioz nago".

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?

Zatoz **batu-banatura!**

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

Batu Banatu:
zure publizitate-banaketa, neurriria!



b + b
batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus

"Ikasketa ona izan da 16 milimetrotan grabatzea"

MADDI BARBER ZINE ZUZENDARIA

Huhezinema saria, euskarazko film labur onenarena, jaso du nafarrak, artzaintza tradizionalari buruz egin duen 'Gorria' lanarekin, "oso gustuko" duen zine jaialdian

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da eta Ikusizko Antropologia arloan masterra du azken urteetan zinemagintzan buru-belarri dabilen Maddi Barber (Lakabe, 1988) nafarrak. Hark zuzendu eta grabatu duen *Gorria* filmak jaso du aurtengo Huhezinema saria.

Zorionak! Esperotako saria?

Sekulako sorpresa izan da eta oso pozik nago, nahiz eta ez nuen sari-banaketara joateko aukerarik izan. 2014an izan nintzen lehenekoz Huhezinema jaialdian; ez genuen saririk jaso, baina oso jaialdi polita iruditu zitzaidan, ikasleentzako ikasketa prozesu moduan, batetik, eta baita profesionalizazio bide horretan ere.

Zer kontaktu nahi zenuen *Gorria*-n?

Gai baten inguruan ditudan galderei erantzuten saiatzen naiz nire filmen bitartez, eta oraingoan, atentzioa ematen zidana zen artzainek arkumeak nola zaintzen dituzten gero hiltzeko. Gizakien eta animalien arteko erlazioan, askotan, zaintza lanak animalia horien sakrifizioarekin nahasten dira, eta hori guztia lehen pertsonan bizi eta kontaktu nahi nuen.

Eta hala joan zinen zure jaioterriko artzain batekin bizitzera, ezta?



Maddi Barberrek irabazi du Huhezinema saria aurten. KATTALIN BARBER

Hori da; hiru hilabetez, martxotik ekainera bitartean, egon nintzen Lakabeko artzain batekin euren ogibidea ikasten. Artalde txikiak dituzte han eta modu tradizionalan egiten dute lan. Iruñeko Punto de Vista zine jaialdiaren laguntzarekin grabatu nuen nik bakarrik, eta soinua eta muntaia lanetarako talde bat izan dut alboan gero. **16 milimetroko formatu zaharrear grabatu zenuen; zergatik?**

Beste ikasketa prozesu bat izan da hori; sekula erabili barik nengoen halakorik, baina apro-

posa iruditu zitzaidan, eskuz egiten delako ia lan dena eta gaiarekin oso bat zetorrelako. Oinarritzko lanabesa da, ez du soinurik grabatzen, eta soinua gero grabatu genuen. Formatu digitaletan argitaratu dugu filma; bestela, oso garestia da eta.

"GIZAKIEN ETA ANIMALIEN ARTEKO ERLAZIOAN NAHASTU EGITEN DIRA ZAINTZA ETA SAKRIFIZIOA"

Hamalagarren Huhezinemako palmaresa

Sail Ofiziala

- **Huhezinema saria** *Gorria* (Maddi Barber).
- **Komedia saria** *Datsegit* (Aitor Arruti).
- **Vertigo saria** *Maite* (Xabier Larrazabal).
- **Mundukide saria** *Before I die* (Iker Esteibarlanda).
- **Ikusleen saria** *Dar-dar* (Paul Urkijo).

Muko ikasleen saila

- **Fikzio onenaren saria** *Ilunabarrean esan* (Xabier Vallina).
- **Aipamen berezia** *12 minutu* (Ane Cuesta).
- **Dokumental onenaren saria** *Deia* (Naia Aizpurua).
- **Argazki onenaren saria** *Deia*.
- **Ikusleen saria** *Ilunean argia* (Maria Garmendia).

Aurrez egin dituzun lanen artean daude Itoizko urtegiari buruz egin-dako eta saritutako bi lan.

Txikitatik izan dut gustuko arlo hori, eta film laburren rallyetan ere ibili izan naiz. Itoiz urtegiari buruz ikertu ondoren sortu nituen *592 metroz goiti* (2018) eta metraje ertaineko *Urpean lurra* (2019) gero; Donostia Zinemaldian estreinatu ziren biak.

Zer duzu orain esku artean?

Donostiako Tabakalerak emakume zinegileendako duen *Noka* egitasmoarekin ari naiz, film luze baterako gidoia idazten.

Musika Banden Federazio sortu berria, indarrak batzeko asmoz

Bergarakoa da, oraingoz, Federazioa batu den Debagoieneko banden ordezkari bakarra

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

46 euskal bandak eta horiek barnebiltzen dituzten 3.000 musikari daude Euskal Herrian, eta horietako hogeitaz sortu dute Banden Federazioa; asmoa da poliki-poliki talde guztiak batzea. Euskal kulturaren ondarea defendatzeko" eta "zaintzeko" sortu dutela azaldu zuten astelehenean egin zuten aurkezpenean: "Gure helburu nagusien artean dago –pandemiaren eraginez larriago bilakatu den egoera desblokeatzeaz gain eta bi-tartekari lana egiteaz gain–, herri-kulturak gure gizartearen egunerokotasunean duen garrantzia azpimarratzea". Azaroa ezker, legez, musika banda askok –hezkuntza arloko eta profesionalek ezik– ezin dute aurrez aurreko entsegurik eta kontzerturik egin.

Elkarlana sustatuz bizipenak, ideiak eta proiektuak partekatu nahi dituzte. Etorkezuneko proiektuen artean dituzte banda federala sortzea eta baita euskal banda gazte bat ere. Horrez gain, banden ondarea agerian uztea eta horri laguntzea ere gura dute, partitura zahar-rak, argitalpenak eta grabazioak berreskuratu eta batzeko ahalgina eginez.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

HALA BAZAN

MARTXOAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
SAR DADILA KALABAZAN
ETA ATERA DADILA 30 URTE GEROAGO
GOIENAKO PLAZAN



goiena
Zu hemen zaude.

Txikientzako marrazkiak egin ditu Julen Ribasek

Irakurtzen eta idazten ikasten ari diren 5 urtetik gorako umeentzako da 'Galdu dena azaldu dadila!' izeneko liburu berria; Julen Ribas Arrasateko ilustratzaileak egin ditu Garazi Kamio Andoaingo idazleak sortutako istorioaren marrazki koloretsu eta biziak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE OIaiaren ama, Ekhiaren aita, Lukaren amama eta Miaren osaba despistatu egin dira eta hirian galduta daude lau haurrak. Horrela abiatzen da Ikaselar hezkuntza argitaletxeak argitaratu eta dagoeneko liburu-dendetan eskuragarri dagoen *Galdu dena azaldu dadila!* liburua. "Ez dakigu oso ondo nortzuk galdu diren, haurrak ala helduak. Liburuarekin saiatu gara gehienok dugun galtzeko beldurrari buelta ematen, helduok ere badaukagula zer ikasi eta zer zuzendu erakusteko; izan ere, zaintzan ari garenean une oro ari gara aginduak ematen; esaterako: 'Ez galdu'; 'platereko dena jan'; 'txintxo portatu...'. Baina, sarritan, gero, konturatzen gara helduak garela arauak betetzen txarrenak, eta modu dibertigarriari hori azaldu nahi izan dugu liburuan", kontatu du Julen Ribasek.

"Lan gozagarria"

Iaz, martxo amaieran, jaso zuen Ribasek argitaletxetik deia. "Garai arraroak ziren, itxialdian geunden, lanean nengoen baina oso er ritmo txarrean. Komiki bat marrazten ari nintzen, oso lan teknikoa eta zaila zena, eta, horregatik, proposamen polita iruditu zitzaidan, komiki horre-



Julen Ribas ilustratzailea, liburu berria eskuetan duela. BEGIRA ARGAZKILARITZA

tatik arnas pixka bat hartzeko. Garaziren testuaz gainera, ez zidaten bestelako muga edo pausarik zehaztu, eta modu librean sortu ditut irudiak. Zirriborroak egin ahala argitaletxekoei bidaltzen nizkien, eta eurek Kamiori. Euskaldunak dira pertsonaiak, baina aniztasuna erakusten saiatu naiz".

Marratzeko teknika ezberdinak menperatzen ditu Ribasek, eta akuarelen alde egin du liburuan. "Zuri-beltzean eta tintarekin ari nintzen komikia lantzen, eta paperarekin, pintzelarekin eta

akuarelarekin jolastea erabaki nuen libururako; arkatza suelto utzita eta koloreari indarra emanda. Jolas moduan hartu nuen eta asko gozatu dut".

Frantziako Iraultzan murgilduta Trilogia baten hirugarren atala bukatzen ari da orain. "Frantziako argitaletxe baten enkargua da. Helduentzako lan bat da, dokumentazio eta ikerketa lan handia eskatzen duena. Bigarren atala argitaratuko dute orain, eta ekain ingururako, seguruenez, hirugarrena".

Irudi originalak, Kulturaten ikusgai

Hamalau ilustrazio egin ditu Ribasek libururako, eta ia guztien originalak daude Arrasateko Margo Taldeak Kulturaten duen erakusketan jasota. "Lanez lepo nabil, eta, taldekideei erakusketarako lanik egiteko modurik ez nuela esan nienean, liburuakoak erakustea proposatu zidaten. Ideia polita iruditu zitzaidan, eta hor daude originalak eta baita liburua ere".



Ribasen lanak Arrasateko Margo Taldeak Kulturaten duen erakusketan. J. R.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko sariak!

Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTROLOGIA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harreraakolanda.org
Baita Martxoaren produktuak

PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 17RA ARTE

Posta elektronikoz: klub@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren saria"

[barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Parte-hartzaileen artean egingo da zakereta.

Irabazleak 07/03/2021 eguneko irabazlearen izena argitaratu eta liburuak hiru egunetan banatuak izango dira. Irabazlearen izena argitaratu eta gero gogoratu.

KLUBAren irabazlearen izena argitaratu eta gero gogoratu.

KLUBAren irabazlearen izena argitaratu eta gero gogoratu.

KLUBAren irabazlearen izena argitaratu eta gero gogoratu.

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkarian Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: Martxoaren 30a



943 25 05 05



klub@goiena.eus



KLUBA, lotetxea

[barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€

Deitur: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Atikoa salgai Atzeko kalean. Bi logela, bainu-gela eta sukalde-egongela. 43 metro koadro. Horrez gain, 14 metro koadroko terraza, 10 metroko bi ganbara eta 12 metroko garajea. Prezioa: 200.000 euro. 605 72 64 43 edo 696 36 97 17

102. EROSI

Baseria Oñatin. Oñatiko bikote gazte bat gara. Baseri bat erosteko interesa dugu. Honi buruzko informazio edo interesa baduzue, jarri gurekin harremanetan. Telefonoa: 600 34 87 13

Baseria Oñatin. Oñatin baseri bila gabilzan Oñatiko familia bat gara. Zerbañt jakin edo izanez gero deitu zerbaki honetara: 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU

Eskoriatza. Kaixo! Gutzienez bi logela dituen etxebizitza bila gabilza. Eskerrik asko. Deitu 686 24 42 34 edo 676 44 14 68 telefono zenbakietara.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. 671 16 54 60

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE

Ile-apaindegi baten lanerako gela bat ematen da errentan. 943 79 99 56

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Adinekoen zaintzarako gertu nago. Goizean edo eguerdian kalera lagundu edota gauzez zaintzeko ere bai. 642 98 98 06

Arrasate. Asteburuertarako lan bila nabil. Soziosanitario eta garbiketa titulazioak daukat. Legezko agiriak ere bai. Telefonoa: 632 83 32 44

Arrasate. Emakume eskalduna gertu pertsona nagusiekin egon eta kalera laguntzeko. Telefonoa: 656 77 53 37

Arrasate. Esperientzia handia daukan neska arduratsua egunean zehar zaintza lanak egiteko gertu. Soziosanitario titulazioak daukat. Legezko agiriak ere bai. Telefonoa: 689 50 70 54

Arrasate. Neska eskalduna orduka etxeak garbitzen, pertsona paseatzen, laguntzen edota jostintza lanetan jarduteko gertu. 678 66 59 54

Bergara edo Arrasate. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Deitu 632 76 59 52 telefono zenbakira.

Bergara. Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke, orduka, gauetan, asteburuetan edota ordezkapenak egiten. Legezko agiriak eta formazioak daukat. Telefonoa: 688 74 00 14

Bergara. Soziosanitario titulazioa daukan emakume eskalduna eskaintzen da arratsaldetan edo asteburuetan zaintza lanak egiteko. Telefonoa: 656 74 78 43

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke, goizez zein arratsalde. 688 81 08 63

Debagoiena. Asteburuetan, orduka edo jardun osoz, lan egingo nuke. 632 25 27 26

Debagoiena. Bergarako neska adinekoak zaintzeko eskaintzen da. Titulazioa dauka eta esperientzia ere bai. 688 72 88 97

Debagoiena. Egunean zehar orduka edo gauetan zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 659 90 85 1

Debagoiena. Erizain laguntzailea naiz eta nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. 620 23 58 15

Debagoiena. Erizain laguntzailea naiz eta pertsonak zaintzen edo garbiketarako egiten lan egingo nuke. Deitu 622 12 62 48 telefonora.

Debagoiena. Esperientzia duen neska adinekoak zaintzeko edo garbitasun lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Goizeko 9:00etatik 13:00etara, baita asteburuetan ere. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Garbiketa lanetan zein pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. 658 11 46 66

Debagoiena. Garbiketan eta zaintza lanetan aritzeko gertu nago, ordutegi arazo barik. Soziosanitario titulazioa daukat. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Gauetan pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 671 54 59 72

Debagoiena. Lan bila nabil garbitasunean edota haur eta zaharren zaintzan. Egun osoan zehar prest. 698 91 18 63 (Andrea)

Debagoiena. Lan egingo nuke garbitasunean eta haur eta zaharren zaintzan. Egunez zein gauzez prest. Telefonoa: 604 13 19 79 (Jordi)

Debagoiena. Lan egiteko prest nago: pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiketa edota zerbitzari lanetan. 603 35 53 37

Debagoiena. Legezko agiriak eta titulazioa daukat eta egunean zehar nagusiak eta umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Mutila gertu egunez, gauzez zein etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 633 49 27 40

Debagoiena. Mutila gertu etxeko langile moduan aritzeko. Baita erakuntzan, arropa josten, bodegan zein bestelako lanetan ere. 612 28 05 29

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. Telefonoa: 679 45 97 18

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, egun osoko prestasunarekin. Telefonoa: 631 98 22 90

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Egun osoko prestasuna. Erreferentzia

onak eta esperientzia daukat. 631 93 11 90

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, baita gauetan eta base-rietasun ere. Autoa daukat. 631 37 49 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Deitu 638 85 43 36 telefono zenbakira.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten nahiago dut, baina orduka ere jardungo nuke. Deitu 632 78 04 24 zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxe eta atariak garbitzeko edo nagusi eta umeak zaintzeko. Erizain laguntzaile moduan eskarmentua dut. 747 40 45 49

Debagoiena. Okindegian, sukalde laguntzaile, mezulari, igeltsero edota zainzaile moduan esperientzia duen mutila lan bila. 603 28 34 98.

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz lan egingo nuke, zaintzan eta garbiketan. 658 11 46 66 edo 612 28 42 74

Debagoiena. Ospitalean edo etxean zaintza lanak egingo nituzke. Arratsalde zehar. Esperientzia daukat eta soziosanitario ikastaroa egiten ari naiz. 631 95 04 42

Debagoiena. Pertsonak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke, orduka, asteburuak, ... Legezko agiriak daukat. Telefonoa: 643 59 76 06

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 671 16 54 60

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusien zaintzan jarduteko prest nago; orduka, gauzez, asteburuetan. 631 98 15 50

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, baita etxean bertan bizi izaten ere. 647 51 48 07 edo 602 42 04 81

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Ingelesa Arrasaten. First Certificate titulua ateratzeko ingeles eskolako jasoko nituzke. Deitu 669 87 24 54 telefonora.

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurra galduta Abxondon. Martxoaren 14an txakurra galdu zen Abxondon. Artzain txakurra da, iletsua, gris kolorekoa. 'Urdin' dauka izena. Ikusi edo aurkitu baduzu, deitu zerbaki honetara mezedez: 634 466 359

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Baseria Aretxabaletan. Bikote gazte bat gara eta Aretxabaleta inguruan baseri bat erosteko beste familia edo norbanako baten bila gabilza. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 660 37 55 92

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ERREGE KOPAKO FINALARI BURUZKO SAIOA

'Harmailatik' Astelehena, 19:00, 21:00 eta 23:00



HIRUKA.EUS

PAUL BILBAORI ELKARRIZKETA

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 26

08:30 Kantari Arrasate 4
09:00 Kantari Arrasate 5
09:30 Kantari Arrasate 6
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 EKT: Haizpea Abrisketa
11:30 Hala Bazan: Herriak
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Hemen da Miru 20
13:30 Elkarrizketa: Oier Araolaza
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albistek
15:30 EKT: Haizpea Abrisketa
16:00 Albistek
16:30 Elkarrizketa: Oier Araolaza
17:00 Albistek
17:30 Adinberri 24
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Harmailatik
19:30 EKT: Haizpea Abrisketa
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Galdegazte: Idolo Asumendi
21:30 Hala Bazan: Kultura
22:00 Hemen Debagoiena

ZAPATUA, 27

09:00 Kantari Arrasate 6
09:30 Kantari Arrasate 5
10:00 Kantari Arrasate 7
10:30 Hala Bazan: Kultura
11:00 Asteko errepasoa
12:00 Harmailatik
12:30 Harira
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Elkarrizketa: Oier Araolaza
14:30 Asteko errepasoa
15:30 EKT: Haizpea Abrisketa
16:00 Hemen Debagoiena
17:00 Harira
17:30 Hitzaldiak: Iñaki Antiguadad
18:30 Asteko errepasoa
19:30 Hala Bazan: Kultura
20:00 Galdegazte: Idolo Asumendi
20:30 Harira
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Elkarrizketa: Oier Araolaza
22:30 EKT: Haizpea Abrisketa
23:00 Harira
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 28

08:00 Hemen da Miru 21
08:30 Hemen da Miru 2
09:00 Hemen da Miru 20
09:30 Kantari Arrasate 5
10:00 Kantari Arrasate 6
10:30 Kantari Arrasate 7
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Hitzaldiak: Iñaki Antiguadad
13:00 Asteko errepasoa
14:00 Galdegazte: Idolo Asumendi
14:30 Hala Bazan: Kultura
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Hemen da Miru 20
16:30 Kantari Arrasate 7
17:00 Kantari Arrasate 5
17:30 Hemen da Miru 21
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Hala Bazan: Kultura
19:30 EKT: Haizpea Abrisketa
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Harmailatik
21:30 Asteko errepasoa
22:30 Hala Bazan: Kultura
23:00 Hitzaldiak: Iñaki Antiguadad

EGUBAKOITZA, 26

HEMEROTEKARI TIRAKA

'Hala bazan'

21:30/23:30

ASTEBURUA

IÑAKI ANTIGUADADI ELKARRIZKETA

'Bereziak'


Zapatua, 17:30; eta domeka,

12:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 30



GOIENA

BENITA AREJOLA-LEIBA EZAGUTZEN

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 31

GARI BRAVORI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:30/23:30

OROIGARRIA



Joseba Elkoro Oyanguren



2002ko martxoaren 24an hil zen, 27 urte zituela.

*Laguntasunak ematen dizu
desagertuko ez den poz pertsonal bat,
trukean ezer espero barik.
Eskerrik asko Adolfo Mantecari eta Imanoli,
zuk bezala zaindu gaituztelako.
Zure lagunek gogoan izango zaitugu.
Zure falta sumatzen dugu.*

Aretxabaletan, 2021eko martxoaren 26an.

URTEURRENA



Juanita Ibabe Iriarte



2020ko otsailaren 25ean hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 27an, 19:00etan, Oñatiko San Miguel parrokian.

*Amandria maitia,
gu danon ama, gure etxia.
Zure indarra, alaitasuna
eta aurrera jarraitetako gogua
beti izan da gu danondako
bizitza danerako eredu.
Berriz elkartuko garelakuan,
besarkada haundi bat
Amandria.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2021eko martxoaren 26an.

HILETA



Teresa Igarza Iturrino




Gregorio Galdosen alarguna
2021eko martxoaren 25ean hil zen, 92 urte zituela.

Seme-alabak: Inaxio eta Marga Sadaba, Rosa, Xanti eta Laura Garcia. Bilobak: Ion Ander, Aitor. Ahizpak: Patricia (†), Jesusa (†), Ines (†). Etxeko izeko: M. Karmen Gastiasoro. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. — Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian. — Familiak Aretxabaletako Tanatorioan hartuko zaituzte 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko familiaren izenean. Aretxabaletan, 2021eko martxoaren 26an.

OROIGARRIA



Raquel Gonzalez Chirlaque



2021eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Zure lagunak.
Bergaran, 2021eko martxoaren 26an.

URTEURRENA



Rosario Azula Askasibar



Lauri Letamendiren alarguna
2020ko martxoaren 28an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza igandean, martxoaren 28an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parroki elizan izango da. — *Beti gure bihotzean.*

Etorriko zaretenoi, bihotzez eskerrak aurretik familiaren izenean. Arrasaten, 2021eko martxoaren 26an.

HILETA



Lourdes Mateo Monja




2021eko martxoaren 24an hil zen, 56 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. — Familiak Arrasate Tanatorioan hartuko zaituzte 11:00etatik 13:00etara.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko familiaren izenean. Arrasaten, 2021eko martxoaren 26an.

ESKER ONA



Raquel Gonzalez Chirlaque



2021eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Raquelen azken agurreko melodia goxoak ez ditugu inoiz ahaztuko.

Bergaran, 2021eko martxoaren 26an.

ESKER ONA



Mari Cruz Arriaran Aguirrezabal




2021eko martxoaren 22an hil zen, 90 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko martxoaren 26an.

ESKER ONA



Natividad Arriaran Erostege



2021eko martxoaren 13an hil zen, 95 urte zituela.

*Gaur lore polit
Ureztatuko zaitut,
Aurrera egin dezagun
Sustraietatik helduz.*

—
Mila esker familiaren izenean.

Oñatin, 2021eko martxoaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 26	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 27	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 28	M. FCA. AZKOAGA: Iurriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 29	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 30	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 31	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 1	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 26	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 27	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 28	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 29	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 30	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 31	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 1	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 26	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 27	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 28	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 29	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 30	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 31	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 1	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
<i>(22:00etatik 09:00etara)</i>	
2021eko abuztuaren 15era arte:	
ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30	
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
<i>(22:00etatik 09:00etara)</i>	
2021 osoan:	
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
 QOF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

- Raquel Gonzalez Chirlaque.** Bergaran, hilaren 16an. 61 urte.
- Felix Igartua Urkia.** Oñatin, martxoaren 17an. 72 urte.
- Miren Rementeria Osa.** Bergaran, martxoaren 18an. 88 urte.
- Jose Antonio Ugalde Lezeta.** Eskoriatzan, martxoaren 19an. 60 urte.
- Esteban Kasatorre Ezenarro.** Bergaran, hilaren 20an. 58 urte.
- Fernando Zubillaga Altube.** Aretxabaletan, hilaren 22an. 90 urte.
- Lucia Cuesta Saiz.** Arrasaten, martxoaren 22an. 88 urte.
- Patxi Miguez Albisua.** Bergaran, martxoaren 22an. 58 urte.
- Mari Cruz Arriaran Aguirrezabal.** Bergaran, hilaren 22an. 90 urte.
- Lourdes Mateo Monja.** Arrasaten, martxoaren 24an. 56 urte.
- Teresa Igarza Iturrino.** Aretxabaletan, hilaren 25ean. 92 urte.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
 Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Espainiako txapelketan**

Axi Alonso, Ainara Uribarri, Sara Arregi eta Leire Ezpeleta debagoiendarrak podiumera igo ziren Candanchun jokaturako probetan. Bailarako beste hainbat eskiatzaile ere egon ziren.

2. Mintzapraktikarako, ipuinak

Zahar-Berri egitasmoaren baitan, ipuin kontaketa saioa egin zuten Arrasateko gaztetxean. Vanesa Gonzalez eta Maider Altzelai ibili ziren ipuinak kontatzen.

3. Western doinuak, eta mozorrotuta

Oregon, The italian western, Dakota eta *El llanero solitario* pelikuletako soinu bandak eskaini zituen Eskoriatzako musika eskolako bandak herrikideen aurrean.

4. Korrikari babesa

Arizmendi Ikastolako ikasleek Aretxabaletako Herriko Plazan egin zuten Korrikari babesa emateko ekitaldia. Korrika egin, murala osatu eta diru bilketa egin zuten.

5. Ehun urte, osasuntsu

Hilaren 21ean bete zuen mendeurrena Benita Arejola-leibak, familiakoeekin. Bergarako Basalگو auzoan jaio, Angiozarrera ezkondu eta Oñatin bizi da azken 32 urteetan.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Elene Kone Mujika
Apirilaren 8an, 6 urte.
Urte askotarako, Elene!
Ondo pasatu eguna!
Ainara, Aitziber, Aitor
eta Iratiren partetik.



BERGARA
Maria Maiztegi Arruti
Apirilaren 4an, 9 urte.
Zorionak eta urte
askotarako
familixakuen partetik,
guapisima! Primeran
pasatu zure eguna!



ESKORIATZA
Nare Corral Parra
Apirilaren 2an, 9 urte.
Zorionak, Nareto!
Jarraitu hain zoriontsu
izaten eta bizitzaz
disfrutatzen!
Mundiala zara! Asko
maite zaitugu denok!




ANTZUOLA
Noa Iturbe Gabiria
Apirilaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, Noa! Egun
polita igaro, zure
lagunboekin eta
etxeko guztiekin.
Jarraitu orain arte
bezala, alai-alai. Muxu
handi bat, printzesa!



ARRASATE
Paule Lizaur Sagasta
Apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Paule!
Jada lau urtetxo! Egun hau danon artien berezi
bihurtuko dogu! Muxu erraldoi bat, ikaragarri
maitxe zaitugun danon, eta bereziki, Lierren
partetik! Segi zaren bezelakoa izaten! Mua!



ARRASATE
Ihbar Nalda Gonzalez
Martxoaren 30ean, 11
urte. Zorionak, Ihbar
maitia! Ondo pasatu
zure egunean.
Besarkada eta muxu
potolo bat zure
famiariaren, eta
bereziki, Monaren
partetik!
Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Egoitz Fernandez Davila
Martxoaren 30ean,
10 urte. Zorionak,
txapeldun!
Familia osoaren
partetik, patxo
asko-asko!



ANTZUOLA
Paule Alberdi Laskurain
Martxoaren 30ean, 5
urte. Zorionak, Paule.
Ondo pasatu eguna.
Muxu pottoloak familia
osoaren partetik.



OÑATI
Markel Bengoa Igartua
Martxoaren 30ean, 8
urte. Zorionak, Markel!
Zortzi urte jada! Segi
beti moduko xalau...
Patxo handi bat etxeko
danon partetik.



BERGARA
June Sanchez de Paz Urcelay
Martxoaren 28an, 8
urte. Zorionak, June!
Amatxoren, Hodeiren
eta Mikelen partetik.
Asko maite zaitugu!




BERGARA
Lander Elejalde Urcelay
Martxoaren 28an, 4
urte. Zorionak etxeko
politxari! Ondo-ondo
pasatu zure egunian!
Muxu handi bat danon
partetik!



BERGARA
Edith Zangitu Garmendia
Martxoaren 28an, 3
urte. Zorionak, Edith!
Ondo pasatu zure
eguna, *pitxina!* Patxo
handi bat familia
danaren partetik!



BERGARA
Naroa Calles Moreno
Martxoaren 28an, 15
urte. Zorionak, Naroa,
eta urte askotarako
zure senideen eta,
batez ere, zure
aita-ama bitxien
partetik. Asko maite
zaitugu.



OÑATI
Eneko Osas Arregi
Martxoaren 28an, 6
urte. Zorionak, Eneko!
Sei urte. Patxo asko
etxeko danan partetik.




ARRASATE
Intza Moraza Atxaga
Martxoaren 28an, 4
urte. Zorionak, *pitxina!*
Lau urtetxo guregana
etorri zinenetik!
Egun ederra pasatu!
Muxutxo potolo bat
etxekuen partetik!
Asko maitxe zaitzugu!



OÑATI
Garikoitz Izurategi Velazquez
Martxoaren 27an, 5
urte. Zorionak,
txapeldun! Segi halako
guapo eta sinpatiko.
Patxo handi-handi bat!



BERGARA
Haitza Jauregi Perez
Martxoaren 27an, 2
urte. Zorionak eta
musu handi bat,
familia osoaren
partetik.



BERGARA
Arhane Calvo Urdanpilleta
Martxoaren 27an,
Zorionak, marisorgin!
Ondo-ondo pasatu
zure lehen urtebetetze
eguna. Patxo handi bat
amatxoren, aitaixoren
eta, bereziki, Ekaitzen
partetik.




OÑATI
Luka Vaz Ibabe
Martxoaren 27an, 7 urte. Zorionak, maitia!
Primeran ospatuko dugu zure zazpigarren
urtebetetzea. Muxu potolo bat familiako guztion



ARRASATE
Xabier Santa Cristina Milan
Martxoaren 26an, 10
urte. Zorionak, Xabier,
familixaren partetik.
Ondo-ondo pasatu
zure eguna!
partetik.




ELGETA
Aimar Arantzeta Iribar
Martxoaren 26an, 5
urte. Zorionak, Aimar!
Ondo pasatu zeure
eguna! Patxo potolo
bat etxeko danon
partetik!



ARRASATE
Ane Zuazubiskar Iñarra
Martxoaren 26an, 26 Anemin
eguna, pozez eta
umorez ospatu duguna,
oholtzarik-oholtza dabil
gure txapelduna, guzti
guztiagatik zorionak,
laguna!




OÑATI
Daniel Palacin Errasti
Martxoaren 25ean, 5
urte. Zorionak eta urte
askotarako, Daniel!
Egun politta euki
deizula eta ondo-ondo
pasatu! Mila muxu
etxeko danon partetik!



ARETXABAETA
Amaia Irure Aiestui
Martxoaren 24an, 20
urte. Zorion beruenak
zure pixukide kuttunen
partetik! Belarri barik
itxi bizaitzugu... kar
kar kar! 20 patxo
erraldoi, rubia!



BERGARA
Kenar Da Silva Moreno
Martxoaren 23an, 10
urte. Zorionak,
txapelduna! Heldu da
hainbeste espero
zenuen eguna.
Ondo pasatu, maitxia!
Asko maite zaitzugu.



BERGARA
Maddi Peiro
Martxoaren 23an, 3
urte. Zorionak,
printzesa! Hiru urte
jada; zelako handia!
Muxu asko,
bihotz-bihotzez.
Aitaxo eta amatxo.



BERGARA
Elene Rodriguez Lazzano
Martxoaren 23an, 9
urte. Zorionak,
printzesa, etxeko
guztione partetik. Muxu
asko, txapelduna!
Maite zaitzugu!

ZORIONTEKO HIRU BIDE
• <https://goiena.eus/zorionagurak>
helbidean sartu.
• Mezua bidali zorionagurak@goiena.eus
helbidera
• Zatoz Goienaren egoitzara

OHARRA:
Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak argitaratu ditugu. Hortik aurrera jasotakoak, apirilaren 16an aterako dira.



ARRASATE
Telmo Axpe Pacios
Martxoaren 22an,
urtebete. Zorionak,
maitia! Patxo potoloak
etxekoen partetik!
Muak!



ARETXABAETA
Maddi Amozarrain Olabarria
Martxoaren 21ean, 9
urte. Zorionak, Maddi!
Ilargiraino eta buelta
maite zaitzugu!



BERGARA
Elene Perez Zabaleta
Martxoaren 20an, 10
urte. Zorionak urte
askotarako, Elene!
Belarritik 10 tirakada
eta besarkada handi
bat familia osoaren
partetik. Muxuak!



BERGARA
Iker Zabala Pozo
Martxoaren 18an, 3
urte. Zorionak,
mutikote!
Ondo-ondo pasatu
zure urtebetetzea;
etxekoen eta, batez
ere, Egaren partetik!



BERGARA
Maitane Agiriano Larrion
Martxoaren 18an, 12
urte. Zorionak,
Maitane! Ondo pasatu
zure eguna, familia
osoaren partetik.
Muxu handi bat.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak aldarrikatzeko. *Olakua auzoko urmaelaren ondoan, 12:00etan.*

ESKORIATZA Joskintza ikastaroak Lurdes Martinezekin

15:00etan, makrame teknikarekin mural txikia; eta 18:00etan, aro bako bularretakoak. Josteko makina beharrezkoa da. *Kultura etxean.*

ESKORIATZA Partxis jolasa

LHko 5. eta 6. mailetakoko neska-mutikoendako. *Partxis parkean, 16:45ean.*

OÑATI 'Euskal kultura begirada feministatik'

Jabetze Eskolaren baitan, Iratxe Retolaza emaginak gidatuta. *Euskaldun berria gelan, 17:00etan.*

OÑATI 'Ginelako gara' antzezlan ibiltaria, Elkar Hezikio ikasleekin

Etxaluzen hasiko da. Ostean, Antixenean, Santa Marinan, liburutegiko lorategian, Pake Lekuko plazatxoan eta Lazarragan egingo dituzte geldialdiak. *Etxaluzen, 18:00etan.*

ARRASATE 'Gure iraganarekin solasean: paktu patriarkalak eta kolonialak' tailerra

Amaia Nausia eta Onintza Odriozola izango dira hizlariak, Euskal Herriko Bilgune Feministak gonbidatuta. *Gaztetxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Jantzi dantza' erakusketa: azken eguna

Gaur da bilduma ikusteko azken eguna. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Za ti ka' erakusketa

Emakume zeramisten lanak ikusgai, gaurtik apirilaren 11ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ARRASATE III. pandero jaialdia

Amets Ormaetxearekin, Leire Etxezarretarekin eta Irati Gutierrezekin solasaldia. *Amaia antzokian, 18:30ean.*

BERGARA Erramu Zapatu bezperako bertso saioa

Nerea Elustondo, Amets Arzallus, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Xabier Silveira bertsotan. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 19:00etan.*

ZAPATUA 27

ARETXABALETA Binakako frontenis txapelketa

Izan Bidea ekimenaren baitan. *Iturrigorri pilotalekuan, 08:30ean.*

BERGARA Erramu Zapatuko feria

Barazki, fruta eta bertako elikagai ekoizleek parte hartuko dute. Hamabi postu egongo dira. *Fraiskozuri plazan, 09:30ean.*

BERGARA Olaso dorrera bisita gidatua

Aurrez eman behar da izena. *Olaso dorrean, 10:15ean.*

LEINTZ GATZAGA 'Ondo bereiztua, asko aurreztua!' kanpaina

Informazio puntua eta haurrendako eta gaztetxoendako ekintzak. Orduetgia: 10:30-14:00. *San Migel plazan, 10:30ean.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria, San Andresen

3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena. *Arimazubi plazan, 11:30ean.*

OÑATI Korrika eguna

13:00etan, Tolosako Nikotina taldea; eta 18:00etan, Gasteizko Kai Nakai. 11:30ean zabalduko dute barra eta egun osoan musika, jolasak eta jatekoa egongo dira. *Gaztetxean, 13:00etan.*

ARRASATE 'Tartalo, gaztaren sekretua' antzezlan

Umeendako, Logela Multimedieiaren eskutik. Sarrerak, bost euro. *Amaia Antzokia, Arrasate 17:00etan*

ESKORIATZA 'Harriztearen abilezia' magia ikuskizuna

Inpaktu handiko ekoizpena taularatuko du Hodei magoak. Joko

landuak, ideia originalak eta ilusioa bateratuko ditu. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARAMAIO 'Papicha, sueños de libertad' filma

Martxoaren 8aren harira, Zine-ziklo feministaren baitan. *Kultura etxean, 19:00etan.*

DOMEKA 28

ARETXABALETA Binakako frontenis txapelketa

Izan Bidea ekimenaren baitan. *Iturrigorri pilotalekuan, 09:00etan.*

ARRASATE 'Bultza!' dinamika babesteko ekitaldia

2021eko Korrikarik gabe, AEK-k martxan ipini duen dinamika aurkeztuko du. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Manifestazioa

Unai Paroten etxeratzea eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:30ean.*

ESKORIATZA 'Harriztearen abilezia' magia ikuskizuna

Inpaktu handiko ekoizpena taularatuko du Hodei magoak. Joko landuak, ideia originalak eta ilusioa bateratuko ditu. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE 'Familian jolasean': azken eguna

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

OÑATI 'Porno vs. afrodita edo I love #gorkaurbizu' antzezlan

Zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoak bateratzen dituen helduentzako umorezko antzezlan; heziketa sexual eta afektiboa ardatz hartuta, Jon Zumelaga, Patricia Urrutia eta Juanjo Otero oholtzan. *Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

ARETXABALETA 'Ovarios verdes fritos' antzezlan

Detritus Teatru taldearen lana, gaztelaraz. Protagonista Mastur Batetu Catalina doktorea da, identitate galeran eta gernu isurietan aditua. Sarrerak, lau euro. *Arkupen, 19:00etan.*



HODEI MAGOAK

ESKORIATZA Hodei magoaren ikuskizuna

Inpaktu handiko ekoizpena taularatuko du Hodei magoak. Joko landuak, ideia originalak eta ilusioa bateratuko ditu. Sarrerak, bost euro. *Zaldibar antzokian, bihar, zapatua, 19:00etan; eta, etzi, domeka, 17:00etan.*

ASTELEHENA 29

ESKORIATZA 'Hi selfie' lehiaketa

Nerabeentzako ekintza. *Gaztelekuan, 10:00etan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Amaia antzokian, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

OÑATI Eraikuntza jolasak eta 'Playmais'

Txaloka ludotekaren eskutik. *Foruen plazan, 16:30ean.*

MARTITZENA 30

OÑATI Malabareak zirku tailerra

Txaloka ludotekaren eskutik. *San Martin zuhaitzian, 16:30ean.*

OÑATI 'Elkanori bira' hitzaldia

Argiako kazetari Axier Lopezek egingo du berba. Magallanesen eta

Elkanoren mundu biraren inguruko ikuspegi kritikoa emango du. *Zinema aretoan, 18:00etan.*

ESKORIATZA 'Atxorrotzeko ilunabarra ikustera' irteera

Nerabeendako ekintza. *Atxorrotx mendian, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Erdaldun berrien kluba' antzezlan

Olatz Pagaldayrekin. *Udaletxe zaharrea, 19:00etan.*

OÑATI 'Nola autolagundu eta lagundu COVID garaian' hitzaldia

Osasun psikologo Raquel Amigok egingo du berba. Edukiera mugatua. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

EGUAZTENA 31

BERGARA '30 emakume ahaztezin' erakusketa

Ikusgai egongo da maiatzaren 31ra arte. Askotariko publikoaren aurrean aritu diren 30 emakumeri egindako omenaldia. *Laboratoriumen, 10:00etan.*

ARRASATE Sasoibide irteera, mendira

Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan. *Biteri plazan, 16:00etan.*

OÑATI Plastilina egin eta 'Trigonos' jolasa

Txaloka ludotekaren eskutik. *Txorrotan, 16:30ean.*

ESKORIATZA Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak
Nerabeentzako ekintza.
Gaztelekuan, 16:00etan.

BERGARA Odol ateratzea
Deialdi irekia.
Oxirondo azokako lehenengo solairuan, 16:30ean.

EGUENA 1

OÑATI Arrikrutzen bisita
Pasarelatik bisita egiteko aukera.
Arrikrutzen, 09:30etik aurrera.

OÑATI 'Arantzazu Parketxea' bisita gidatua
Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren interpretazio zentroa ikusteko aukera.
Parketxean, 10:00etatik 14:00etara.

ARRASATE 'Arrasate monumentala eta gehiago' bisita gidatua
Arrasateko historiaren pasarte garrantzitsuenak historiaurretik aro berrira arte, 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.
Herriko Plazan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua
Euskal artisten lanak ezagutzeko aukera, 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.
Arantzazuko informazio puntuan.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Alde zaharra ezagutzeko aukera, Laboratoriumetik hasita, 11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan euskaraz eta 17:00etan gazteleraz.
Turismo Bulegoan.

BERGARA Dupla bikotea
Gari Uriartek eta Beñat Oribek osatzen dute taldea. *Mundua geldi* diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoa, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 2

ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua
Industrializazioak Arrasaten izandako eragina ikusteko aukera, 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.
Herriko Plazan.

OÑATI 'Arantzazu santutegia' bisita gidatua
Euskal artisten lanak ezagutzeko aukera, 10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz.
Arantzazuko informazio puntuan.

OÑATI 'Gozatu Txokolateixan' bisita gidatua
Aurrez egin behar dira erreserbak, 605 76 35 95 telefonoan edo *txokolateixia@hotmail.com* helbidean-
Txokolateixan, 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Alde zaharra ezagutzeko aukera, Laboratoriumetik hasita, 11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan euskaraz eta 17:00etan gazteleraz.
Turismo Bulegoan.

BERGARA 'Atzerrian lurra garratz' antzezlan
Etorkinen errealitateari buruzko fikziozko obra antzeztuko dute Ander Lipus eta Laura Penagos aktoreek. Sarrerak, zortzi eurotan, leihatilan.
Seminarixoa, 19:00etan.

ZAPATUA 3

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua
Pasarte historikoan eta politikoen lekuko izan den eraikina ezagutzeko aukera. 10:00etan eta 11:30ean euskaraz, eta 10:45ean eta 12:15ean gazteleraz.
Herriko Plazan.

OÑATI 'Gozatu Txokolateixan' bisita gidatua
Aurrez egin behar dira erreserbak, 605 76 35 95 telefonoan edo *txokolateixia@hotmail.com* helbidean.
Txokolateixan, 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Alde zaharra ezagutzeko aukera, Laboratoriumetik hasita, 11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan euskaraz eta 17:00etan gazteleraz.
Turismo Bulegoan.

DOMEKA 4

ARRASATE 'Galarrako koba' bisita gidatua
09:00etan euskaraz eta 11:00etan gazteleraz. Ezinbestekoak dira kaskoa, eskuko linterna eta linterna frontala.
Meatzerreka elkarteko aparkalekuan.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
Alde zaharra ezagutzeko aukera, Laboratoriumetik hasita, 11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Unibertsitate zaharra eta parrokia ezagutzeko aukera, 13:00etan euskaraz eta 17:00etan gazteleraz.
Turismo Bulegoan.

ASTELEHENA 5

ARRASATE 'Udala-Besaide, ipar-martxan' ibilbidea
Makilak ezinbestekoak dira.
Udalako goiko aparkalekuan.

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua
11:00etan eta 12:30ean.
Laboratoriumen.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Dating amber
Domeka eta astelehena: 19:00.

Kranston akademia
Domeka: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

23 paseos
Domeka eta astelehena: 18:30.

Kranston akademia
Domeka: 16:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Los traductores
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

Kranston akademia
Zapatua eta domeka: 16:30.

EIBAR

COLISEO

El informe Auschwitz
Zapatua eta

domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

Dardar
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 19:00.

Monster hunter
Zapatua eta domeka: 19:00.

ANTZOKIA

Monster hunter
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehena: 19:00.

Dardara
Zapatua eta domeka: 19:00.

GASTEIZ

GORBEIA

Los Croods
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 16:55.
Domeka: 12:00, 16:55.

Raya y el ultimo dragon
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 17:00, 19:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

Pequeños detalles
Egubakoitzetik martitzenera: 18:50.

Minari
Egubakoitzetik martitzenera: 19:05.

El informe Auschwitz
Egubakoitzetik martitzenera: 17:20.

Inmune
Egubakoitzetik martitzenera: 17:00.

Dardara
Egubakoitzetik martitzenera: 19:20.

Los traductores
Egubakoitzetik martitzenera: 17:15.

Monster Hunter
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 17:10, 19:15.
Domeka: 12:00, 17:10, 19:00.

Nomadlan
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 17:00,

19:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

Tom y Jerry
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

Godzilla vs Kong
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

Libertad
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 18:45.
Domeka: 11:30, 18:45.

Tom y Jerry (euskaraz)
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta martitzena: 19:25.
Domeka: 12:00, 19:25.

Kranston akademia (euskaraz)
Domeka: 12:00.

KRITIKA

The Mauritanian ★★★★★
Zuz.: Kevin Macdonald. **Herr.:** Britainia Handia (2021). **Aktoreak:** Tahar Rahim, Jodie Foster. **Iraupena:** 129 minutu.

Errepresioaz osatutako linboa

ANTONIO ZABALA

Mohamedou Oul Slahi-k hamalau urte pasa zituen Guantanamo espetxean atxilotuta. Derrepente, munduarendako desagertu egin zen, inork ez zekien non zegoen. Ez zegoen hari buruzko berririk. AEBetan sortutako errepresioaz eta indarkeriaz osaturiko linbo antzeko baten bahituta zegoen. Al Qaedaekin lotura zuen susmoa zutenez, Guantanamo mantendu zuten, inolako salaketa ofizialik gabe. Abokatu batzuek bere egoera nolakoa zen jakin zutenean, *habeas corpus* eskaeraren bidez, Mohamedou laguntzea erabaki zuten, eta egoeraren berri munduari zabaltzea.

Filma bi zatitan bana genezake: alde batetik, atxilotuaren istorioa dago. Nola

atxilotu zuten, Guantanamo jasandako tratu huingarria eta abokatuekin izandako harremanak; eta, beste aldetik, ikerketaren pausoak ezagutzeko dituzte kasuaren hondoraino heltzeko. Hobeto funtzionatzen duen zatian, ikusleak Mohamendouren oinazea ezagutzeko lortzen du. Baina, orokorrean, filmak ez du konbentzionaltasunetik ihes egiten. Dena ezagunegia egiten zaigu, pertsonaien azalpena nahiko eskematikoa da. Mohamedouren pertsonaia landuago dagoenez, horri buruzko begirada nahiko mendebaldekoa da. *The Mauritanian* lan txukuna da, baina, Britainia Handikoa izanik, Hollywoodeko kutsua dauka.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Balkoietakoa golak

Orain urtebete, COVID-19a gurera ezustean etorri zen, denok etxe barruan konfinatuta egon behar izan genuen eta berehala konturatu ginen gauza serioa zela. Solidaritate sentimendu berezia sortu zen guztion artean, denok egoera beraren menpe geunden eta.

Sentimendu hori ikus-entzunezko bilakatzen zen egunean behin arratsaldeko zortzietan, balkoi eta leihoetara osasun langileei txalo egitera irteten ginenean. Urtebeteren buruan, oraindik egoera kezkarria gaude, eta nekatuta eta aspertuta ere bai, eguneroko titularrak gai honen inguruan direlako. Datorren larunbatean, apirilak 3, 90 minutuz gaia aldatzeko ahalegin guztiak egiten ari dira Real eta Athletic, komunikabideak eta jarraitzaileak. Jende askorengan sentimenduak batzeko gaitasuna du futbolak, hori aitortu beharra daukat, eta oraingoan, golak ospatzera balkoietara irten beharko dugu.

Hurrengo egunean etorriko dira berriz ere AstraZenecaren kulebroia biltegi ezkatuetan, eguneroko pandemiaren emaitzak, Madrilgo politikari saltsa, batek beste alderdiko bat fitxatu duela, besteak kandidatuak erosi egin dituela eta asto arrak umea egin duela!

BUKATZEKO



Astork Arrasaten duen egoitzan egin zuten aurkezpena Emakume Master Cup-eko pilotariekin, martitzenean. T.M.

Finaleko kamisetak, plastikozko botilekin

Emakume Master Cup txapelketako pilotariak denboraldi berrirako arropak aurkeztu dituzte Arrasaten. Hain zuzen ere, apirilaren 4an Irungo Uranzu pilotalekuan jokatu diren Eskuz Binakako Master Laboral Kutxa finaleran estreinatuko dituzte horiek

Jone Olabarria ARRASATE

Duela ia 30 urte diseinatu zituen Astorek pilotari profesionalentzako lehen praktikak. Ordutik hona, pilotarien "erreferente" izan direla azaldu dute Arrasaten egoitza nagusia duen kirol jantzien etxeko arduradunek. Frontoian aritzen direnak jantzen dituztela azaldu dute Astoreko arduradunek, 2018an "mugarri" izan zen diseinuaren ostean: "Emakumezkoen patroia zuten lehenengo pilotari-prakak".

Hamaika botila kamisetako

Emakumezkoen eskupilotaren esparruan lehiaketarik garrantzitsuen den Emakume Master Cup txapelketako finalerako kamisetak ere diseinatu dituzte. Apirilaren 4an jokatu da, eta bertan lehiatzen diren bikoteek "%100ean birziklatua" izango den elastikoa eramango dute: "Dryshell" ehunarekin egindako jantzia da; eta elastiko bakoitza plastikozko 11 botilarekin egina dago. Ehunak transpiratzeko



Arrate Bergara, elastiko berriarekin. T.M.

gaitasun bikaina dauka, eta azkar lehortzen da". Patroiarri dagokionez ere, pilotarien beharretara egokitzeko garatu dutela zehaztu dute, "mugitzeko askatasun osoa eskainiz".

Kamiseten ekoizpenean ere "eredu jasangarria" jarraitu dutela zehaztu dute Astoreko kideek: "Dryshell" ehuna aukeratuta, ehunen fabrikaziorako beharrezkoa den energiaren erabilera eta CO2 isuria %50 murrizten lagunduko dugu".

Debagoiendarrak ere bai

Arrate Bergara pilotari bergararra da Emakume Master Cup txapelketaren 2021eko aldian parte hartu duen debagoiendar bakarra. Ainhoa Ruiz de Infanterekin batera lehen kanporaketan geratu ziren txapelketatik kanpo, baina, hala ere, martitzeneko aurkezpenean izan zen.

Elastiko urdina jantzita, azken urteetan emakumezkoen pilotaren baitan "aurrerapauso handiak" eman direla aitortu du Bergarak, nahiz eta oraindik lana egiteko dagoen: "Orain dela bost urte, egun gauden egoeran egongo ginela esan izan balidate, ez nuen sinistuko. Egoera ona da, nahiz eta oraindik profesional etiketa hori lortzeko izan".

"Eskertuta eta ilusio handiz"

Arropa berriak estreinatzeko gogotsu, azken urteotan emakumezko pilotaren maila asko hobetu dela zehaztu du: "Emakume Master Cup-i esker aukera handiagoa izan da jokatzeko eta hobetzeko, eta, egia esanda, oso eskertuta eta ilusio handiz bizi dut. Lehenengo edizioarekin alderatu baino ez dago alde igartzeko".

Batxilergoko proiektu eraldatzailea
ezagutu nahi duzu?

INFORMAZIO SAIOAK

Online

APIRILAREN 14an

Almenen: 17:30ean
Gaztelupen: 18:30ean

Eman izena! <https://labur.eus/batxilergoa2122>

*Azken eguna, apirilak 6

AURREMATRIKULA
Apirilaren 12tik 23ra

MATRIKULA
Ekainaren 21etik uztailaren 6ra



Arizmendi
Ikastola

informa zaituz

943 77 20 25 www.arizmendi.eus